



Genero-indarkeriaren emakume biktimak EAE

2010

urteko txostena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

GENERO INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMAK EAE-N



2010. urteko txostena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA

Herrizaingo Saila - Eusko Jaurlaritzza

2011ko ekaina

© Txosten hau ezin da kopian ezein euskarritan edo modutan (ez partzialki, ez osorik), Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

Argitaraldia: 1.a, 2011ko azaroa

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Herrizaingo Saila

Internet www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Elaborazioa: MURGIBEK landu du. Berdintasunerako aholkularitza enpresa

Azala: Blanca Pérez de Unzueta Arrieta
Obraren izenburua: *La Familia*
Egileak dohainik lagatzen ditu azaleko irudia eta barruko azaltxoetakoak, liburua hau argitaratzeke bakar-bakarrik

Diseinua eta maketazioa: EPS-comunicación • www.eps-grupo.com

L.G. VI 665-2011



ATARIKOA

Bigarren urtez jarraian, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eremu honetan burutu-tako jardueri buruzko txostena aurkeztu du. Agiri honen bidez agerian utzi nahi dira Euskadin genero-indarkeriaren prebentzioak duen garrantzia, indarkeria hori jasaten duten biktimentzako arreta integralaren funtsezkotasuna, erakundeen arteko koordinazioa izateko beharra eta gizarte-gaitz larri honi aurre egiteko herritarren ezinbesteko laguntza.

Txosten hau multzo batzuetan dago egituratuta eta horien artean nabarmentzen dira gure Autonomia Erkidegoan 2010. urtean zehar genero-indarkeriak hartu duen pisuaren azterketari buruzkoak, baita 2002. urtetik izan duen eboluzioa eta erakundeen arteko esku-hartzea eta lankidetza ere. Berrikuntza gisa, azpimarratzekoa da txostenari prestazio eta baliabideen katalogo bat erantsi zaiola (diru- eta egoitza-laguntzak, laguntza juridiko eta psikologikorako programak, etxebizitza, enplegua, ofiziozko txandak edo Biktimarentzako Arreta Zerbitzuak), horiek guztiak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza integralera eta beren erabateko oneratzera zuzenduta daudela.

Aurreko urtean ez bezala, 2010eko datuen bilketak ahalbidetzen du informazioa banakatzea, biktimak eta biktimizazioak dibertsifikatuta. Horri esker, genero-indarkeriaren errealitatera hobeto egokitzen den deskribapena eskaintzen du eta erabilgarriagoa da hain larria den arazo hori ikusaraztean.

Azkenik, nabarmendu nahi dut neure ardurapean dagoen Herrizaingo Sail hau genero-indarkeriari aurre egiteko nahitaezkoak izan behar duten bi gertaera garrantzitsu prestatzen ari direla. Hona hemen: alde batetik, Genero Indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren I. Jarduteko Planaren onarpena eta; bestetik, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko eta bere biktimentzako arreta eta berorien oneratzeko osoari buruzko autonomia-erkidegoko legearen prestaketa. Bi ekimen horiek zenbait erakunderen partaidetzaren emaitza dira; hain zuzen, genero-indarkeriaren eremuan esku-hartzen duten elkartek eta, oro har, herritarrak baitira. Izan ere, guztion lana da emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpen desagerraraztea.

RODOLFO ARES TABOADA
Herrizaingoko sailburua



AURKIBIDEA

1. SARRERA	13
2. EAE-KO GENERO INDARKERIA AZTERTZEA ETA HORREN LARRITASUNA-2010	19
2.1. GENERO INDARKERIA MOTA GUZTIEN KONTZEPTUALIZAZIOA.....	21
2.1.1. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	21
2.1.1.1. Definizioa	21
2.1.1.2. Kausak	23
2.1.1.3. Etxeko indarkeriaren zikloa.....	24
2.1.2. Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa salbu)	27
2.1.3. Sexu-askatasunaren aurkako delituak.....	27
2.2. GENERO INDARKERIAREN ONDORIOZ EAE-KO EMAKUMEEN BIKTIMIZAZIOAK	29
2.2.1. Genero-indarkeriaren ondorioz EAEn eraildako emakumeak.....	30
2.2.2. Genero-indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioei buruzko EAEko datu orokorrak-2010.....	32
2.2.3. Genero-indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioei buruzko EAEko lurralde-datuak-2010	40
2.2.4. Denbora-ezaugarriak.....	56
2.2.5. Ezaugarri sozio-demografikoak.....	59
2.2.5.1. Biktimak	59
2.2.5.2. Erasotzaileak	67
2.2.6. Salaketak eta salatzaileak.....	71
2.2.7. Babes-aginduak.....	73
2.2.7.1. Eskatutako babes-aginduak.....	73
2.2.7.2. Epaitegiek emandako babes-aginduak.....	74
2.2.8. Beste datu batzuk.....	75
2.2.8.1. EAEn eskolatutako emakumeak, 2010ean	75
2.2.8.2. Eskumuturreko bilatzaileak.....	75
2.2.8.3. Sakelako telefonoak	75
2.2.8.4. El/GI espedienteak.....	75
2.3. 2002-2010EKO BILAKAERA.....	76

3. INSTITUZIOEN ESKU-HARTZEA	79
3.1. PLANGINTZA	81
3.2. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA.....	82
3.2.1. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren komunikazio-kanpaina	82
3.2.2. Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eta Immigrazio Zuzendaritzaren kanpaina	83
3.2.3. Azaroaren 25eko kanpaina	84
3.2.4. Hitzaldiak eta hainbat eremutako nahiz komunikabideetako esku-hartzeak azaltzea ...	85
3.3. PROFESIONALAK PRESTATZEA	85
3.4. INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA.....	86
3.4.1. Institutuzio, talde eta erakundeentzako laguntza	86
3.4.2. Genero-indarkeriaren emakume biktimei laguntzeko telefono bidezko 24 orduko arreta-zerbitzua (900 840 111).....	89
3.4.2.1. Ezaugarriak eta funtzioak.....	89
3.4.2.2. Egindako dei guztiak.....	91
3.4.2.3. Datu soziologikoak.....	92
3.4.2.4. Deien ezaugarriak.....	96
3.4.2.5. Zerbitzuaren erabiltzaileei ematen zaien laguntza	99
3.5. PRESTAZIO ETA LAGUNTZEN KATALOGOA, GENERO INDARKERAREN EMAKUME BIKTIMENTZAT	100
3.5.1. Baliabide ekonomikoak	101
3.5.1.1. 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzkoa.....	101
3.5.1.2. Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoak	102
3.5.2. Egoitza-baliabideak	104
3.5.2.1. Arabako egoitza-baliabideak.....	105
3.5.2.2. Bizkaiko bizitegi-baliabideak.....	105
3.5.2.3. Gipuzkoako bizitegi-baliabideak.....	108
3.5.3. Programa espezifikoa	109
3.5.3.1. Aholkularitza juridikoa	109
3.5.3.2. Laguntza psikologikoa.....	110
3.5.4. Beste baliabide eta programa batzuk	112
3.5.4.1. Abokatu-laguntzako ofiziozko txanda	112
3.5.4.2. Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak.....	112
3.5.4.3. Etxebizitza alorreko laguntzak	114
3.5.4.4. Enplegu alorreko eskubideak eta laguntzak.....	120
3.5.4.5. Genero-indarkeriarekin lotutako arloetan lan egiten duten elkarte eta erakundeak.....	120

3.6. ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA.....	123
3.7. POLIZIA-JARDUERA.....	123
3.7.1. Arriskua neurtzeko irizpideak eta irizpide horiek aplikatzeko protokoloak	123
3.7.2. Poliziaren babes-neurriak abian jartzeko baldintzak edo betekizunak	124
3.7.3. Hainbat arrisku-egoeren aurrean abian jartzen diren neurri zehatzak.....	125
3.7.4. Arriskurik eza eta, horren ondorioz, babes-neurrien premiarik eza aztertzeko irizpideak eta/edo horiek eteteko jarraibideak	126
3.7.5. Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko koordinazio-neurriak	128
4. ETORKIZUNeko ERRONKAK.....	133
5. JARDUERA-ARDATZAK ETA ZUZENDARITZAREN EKINTZAK.....	141
6. BIBLIOGRAFIA.....	147
7. ERANSKINAK.....	151



SARRERA

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egin du, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak, oro har, gizartearen gaitza den genero-indarkeriaren alorrean kontzientziatzen eta sentsibilizatzen laguntzeko, hastapenak eta ekintzak, bai eta instituzioak ematen ari diren erantzuna ere aurkeztuko du eta horri buruzko informazioa emango du arazo horri errotik kentzeko. Izan ere, Genero-indarkeriaren Gobernuko delegatuak, Miguel Lorente jaunak¹, dioenez “aldendutako berdintasunari dago lotuta, eta, beraz, emakumezko eta gizonezkoen arteko ageriko desberdintasunari ere bai”.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren iritziz, genero-indarkeriak utzi dio arazo pribatua izateari herritarren arazo bihurtzeko erabat; izan ere, gizarteari osoari dagokio, egunero eta sistematikoki munduko emakumeek pairatzen duten diskriminazioaren adierazpen ankerrena da eta, beraz, beste terrorismo-mota bat dela irizten dio.

Konparazio horren xedea ez da beste indarkeria-motei garrantzia kentzea, baizik eta instituzioek eta gizarteak arazo handi honen aurrean arreta eta gaitzespen bera ager dezaten eskatzea; hain zuzen, indarkeria-mota honek eragindako biktimak gehiago dira beste terrorismo-ekintza batzuen biktimak baino, baina azken horiek oihartzun handiagoa dute komunikabideetan, eta gizartean ere alarma nahiz erantzun handiagoa eragiten dute.

Genero-indarkeria beste terrorismo motatzat hartzea gero eta iritzi sendoagoa da, horren larritasuna nabarmentzeko eta garrantzia azpimarratzeko asmoz, baita, orain arte, erakundeek aldetik eman zaion arreta gutxi ere, terrorismo politikoaren aurrean.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza genero-indarkeriaren edozein adierazpenetako biktimei laguntzeko politikak zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen den organoa da, etxeko tratatu txarretara eta sexu-erasoetara soilik mugatu gabe.

Horrenbestez, Zuzendaritza honen xedea da indarkeriazko edozein adierazpen jasaten duten emakume biktima guztiei laguntzea; genero-indarkeria, zehazki, honela defini daiteke: “emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten duten indarkeria, emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desberdinen baitan. Indarkeria-mota ugari daude gizon edo emakume izatearekin inolako loturarik ez dutenak; kasu honetan, aldiz, gizonak erabiltzen duten indarkeriaz ari gara, emakumeak kontrolatzeko eta horien gainetik egoteko erabiltzen duten indarkeriaz”.²

Beraz, bikotekideak edo bikotekide ohiak erabilitako indarkeriaz gain, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eskumen-esparruan sartzen dira eta, horrenbestez, txosten honen xede dira familia barnean gertatzen diren indarkeria-kasuak (bikotekidearena

¹ López Zafra, E. (Koord.). *Emakumeen aurkako indarkeria: Deskripzio eta esku-hartze biopsikosoziala*. Miguel Lorente Acostaren sarrera. Jaengo unibertsitatea. Jaen 2010. 11. orr.

² Alberdi, I eta Matas, N. *Etxeko indarkeria. Espainiako emakumeek eragindako tratatu txarren gaineko txostena*. La Caixa Fundazioa. Ikertze sozialak Bilduma, 10. zk., 2020, 23. orr.

edo bikotekide ohiarena salbu) eta sexu-askatasunaren aurkako delituak ere: besteak beste: sexu-gehegikeria, sexu-erasoa, sexu-jazarpena eta laneko, hezkuntza-zentroetako edo beste leku batzuetako larderia-kasuak, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeen galbideratzea, behartutako prostituzioa eta emakumeen nahiz neska txikien salerosketa, eta adingabeen pornografia.

Abiapuntutzat hartuta, kontuan hartu behar dugu emakumeen kontrako genero-indarkeria *egitura*-fenomenoa dela, modu arruntean *patriarkatua* izendatuta: genero-arau eta balioetan oinarritzen da eta gizarteak naturalizatu du.

Patriarkatuaren egonkortasuna posible izan da gizonezkoen menderatzeak jasotako justifikazioagatik. Aplikatu den biko logikak (gizonezkoa/emakumezkoa) kontzepzio asimetrikoa justifikatzen du; izan ere, hierarkia batean maskulinitatea hobea baita eta emetasuna mende baitago. Prozesu honi deitzen zaio genero-sozializazioa.

Gizonek egindako munduaren kontzeptualizazioari emandako lehentasuna da oinarria eta Pierre Bourdieu frantses soziologoak dioenaren funtsa, gizonen nagusitasuna edo indarkeria sinbolikoa izenekoa. Oso indarkeria eraginkorraz ari gara, biktimentzat beraientzat ikustezina: horiek bereganatzen baitute antzemateko eta ezagutzeko eskema eta tresna sinboliko kodetuta, inposatu zaien menderatze-harremanarekin bat datozena; horrela, ezagutzaekintzak, halabeharrez, aitortzeko ekintzak dira, mendekotasun-ekintzak. Gauzak horrela, indarkeria sinbolikoaren kontzeptua pertsona baten gainean gauzatzen da bere onespenearekin, onespentzat ez ezagutza ulertuz; hortaz, gizarte-ordena mantentzeko oso tresna boteretsua da, norbanakoak bizi baitu “jokabide naturaleko” eta “mundu osoko” egoera; esaterako, maitasun erromantikoaren mitoa, jeloskortasuna, etab. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak jardunaldi batzuk antolatu zituen, Bilbaon, 2010eko irailaren 29 eta 30ean, “Genero-indarkerian hain agerikoak ez diren moldeak” izenekoa. Jardunaldien amaieran Victoria Sendón andreak hauxe adierazi zuen: “Ezinezkoa da indarkeria esplizituekin amaitu, ez bada lehenago egiten indarkeria sinbolikoarekin”.

Emakumeen aurkako indarkeria mota askotakoa da, eta agertu ere era askotara agertzen da; hala ere, arazoaren jatorria da emakumeak, gure gizartean, ezberdintasun-egoeran egotea gizonekin alderatuta, eta haien mende egotea. Baina, emakumeak, oro har, gizonezkoen aldera, bizi diren bereizkeria egoerez gain, horietako asko bestelako egoera batzuetan murgilduta daude, oraindik ere ahulago bihurtzen dituenak, besteak beste: dibertsitate funtzionala; immigrazioa; etnia, kultura eta abar berezi baten parte izatea. Biktimentzan “bazterketa bikoitza” gertatzen da.

1. taula. Emakumeen kontrako indarkeria bizitzaren zikloan zehar

AROA	INDARKERIA-MOTA
Jaio aurrekoa	Sexuaren araberako hautazko abortua; haurdunaldian zehar kolpeak ematea.
Hautzaroa	Neskato-hilketa; abusu fisikoa eta emozionala; urtebetetik beherako neskatoek jakiak eta tratamendu medikua eskuratzeko modu bereizgarria, sexu-abusua, bortxaketa.
Umetasuna	Neskatoen ezkontza; mutilatze genitala; senideek eta arrotzek eragindako sexu-abusuak; jakiak eta tratamendu medikua eskuratzeko modu bereizgarria; haur-prostituzioa.
Nerabezaroa	Ikaskideek eta ezkongaien eragindako indarkeria, diru-arrazoiek eragindako sexu-harremana; laneko sexu-abusuak; bortxaketa; sexu-jazarpena; behartutako prostituzioa.
Heldua	Bikotekide maskulino edo lagun minak emakumeari eragindako abusua; ezkontidearen bortxaketa; ezkonsariarekin lotutako abusua eta hilketak; sexu-jazarpena; bortxaketa; emakume ezinduen abusua; bortxaketa "gerrako armatzat".
Zahartzaroa	Alargun eta atsoek eragindako abusua; bortxaketa; bikotekideak eragindako tratatu txarrak.

Iturria: Heise, Lori, Pitanguy, Germain, Adrienne (1994)

Testuinguru horretan, Gobernuak uste du emakumeen aurkako indarkeriak beste edozein indarkeria-motari ematen zaion arreta bera merezi duela instituzioen aldetik; horrek, hain zuzen, isla izan zuen Patxi Lopez lehendakariaren inbestidura-saioan, genero-indarkeriaren aurkako borroka Gobernuaren lehentasunezko helburutzat hartu baitzuen. Hala, aurreratu zuen zeregin hori betetzeko zuzendaritza espezifiko bat sortuko zutela Herrizaingo Sailaren baitan.

Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak zuzentzen eta koordinatzen ditu genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politikak. Hain zuzen, Herrizaingoko sailburuak aurkeztu zuen Legebiltzarraren egoitzan eta gauzatu egin da Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuan (2009ko irailaren 7ko EHAA, 171. zk.).

Hurrengo lerroetan, 2010 urteari buruzko datuak aurkeztuko dira, eta horiek lagungarri izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) genero-indarkeriaren arazoaren neurria eta larritasuna ulertzeko.

Nolanahi ere, adierazi behar da datu horiek ez direla errealitatearen adierazgarri zehatza, ondo dakigunez; hain zuzen, gizarte-arazo honi buruz hitz egitean aditu askok adierazi duten bezala, egoera hau "icebergaren tontorra" da eta, beraz, ezin dugu arazo horren argazki finkoa atera. Izan ere, salaketa jartzea aukeratzen duten emakume horien errealitatea soilik ezagutzen dugu, modu batean edo bestean indarkeria-egoera horrekin amaitzea erabakitzen duten emakumeen errealitatea. Oraindik ere, asko dira ezagutzera ematen ez diren kasuak.

Dokumentu honek, lehenengo, genero-indarkeriari lotutako terminoen hurbilketa aurkezten du (definizioak, motak, indarkeriaren zikloa, azalpen-modeloak, etab.), txosten honek heldutako arazoa ulertzeko kontzeptu-esparru gisa.


Jarraian, EAEn izan diren genero-indarkeriaren emakume-biktimizazioen gaineko datuak aurkeztuko dira, baita 2002. urtetik izandako bilakaera ere.

Segidan, erakundeen esku hartzeko mekanismoak aurkeztuko dira: plangintza, sentsibilizazioa, prebentzioa, prestakuntza, aholkularitza, informazioa, edota genero-indarkeriaren emakume-biktimei laguntzeko baliabideak, erakundeen arteko koordinazioa eta polizia-jarduera.

Berrikuntza moduan, aipatu behar da asko aurreratu dela 2010. urteko datuak biltzen, aurreko urteen aldera, informazioa banatu ahal izan delako, biktimak eta biktimizazioak bereiziz, erasoak eta erasoaldiak; horrek dakar informazio zehatzagoa eta EAEko arazo honen errealitatearen ezagutza sakonagoa.

Gainera, salaketa jarri duten emakume-kopurua zabaltzen saiatu da, horrelakorik egin ez dutenen aldera; izan ere, datu garrantzitsutzat ematen baita, gai horri buruz jarduteko eta esku-hartzeko ildoak bideratzeko.

Amaitzeko, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak etorkizuneko erronkatzat hartu dituen eta aurrerantzean ere bere hiru jarduera-ardatzetako bakoitzean landuko dituen funtsezko zenbait gai aurkeztuko dira: laguntza osoa, erakundeen koordinazioa eta genero-indarkeriaren inguruan sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa



EAE-KO GENERO INDARKERIA AZTERTZEA
ETA HORREN LARRITASUNA-2010

2.1. GENERO INDARKERIA MOTA GUZTIEN KONTZEPTUALIZAZIOA

2.1.1. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

2.1.1.1. Definizioa

Genero-indarkeriak askatasunen garapena hondatzen edo ezeztatzen du eta arriskuan jartzen ditu emakumeen giza eskubideak, gizabanakoaren askatasuna eta emakumeen osotasun fisikoa.

Nazio Batuetako Asanblada Orokorra (1993)

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaz hitz egiten dugu emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten dien edo diezaioketen indarkeriazko ekintza bati erreferentzia egiteko, betiere erasotzailearen eta biktimaren arteko egun-go edo aurretiazko harreman afektiboan oinarritzen denean. Emakumea kontrolatzeko, azpian hartzeko eta mendean izateko nahiz afektibitate-harremanari dagokionez agintezko eta bosterezeko egoera batean jarraitzeko gizon batek eragiten duen indarkeriari egiten diogu beti erreferentzia.

Arazo horri buruzko ikerkuntzen arabera, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako emakumeen kontrako indarkeria mota asko dago eta, aztertzeari begira, tratatu txarren bost mota bereiz ditzakegu; hots:

- *Fisikoa*: min fisikoa eragiten duen edo eragin dezakeen eta istripuz gertatu ez den edozein ekintzatzat definitu izan da. Besteak beste, multzo honetan sartzen dira ekintza hauek: bultza egitea, kolpatzea, objektuak botatzea, tratamendu medikurkirurgikoa behar duten lesioak eragitea, ospitaleratu ez arren lesioak eragitea, edota emakumea heriotzara eraman dezaketen lesio larriak sortzen dituzten edo sor ditzaketen ekintzak egitea. Halaber, tratatu txartzat hartzen da erasoek eragindako gaixotasunak edo lesioak izanda laguntzarik ez ematea.

Tratatu txar mota hori da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-modurik ezagunena, horren inpaktua emakumeen gorputzean nabaritzen baita askotan; beraz, gainerakoek begiraturaz gero, tratatu txarren beste moduak baino agerikoagoa da.

- *Psikologikoa*: “Hitzezko portaera hertsagarriak (adibidez, irainak) eta hitzezkoak ez diren portaera hertsagarriak, bikotekidearen gorputza helburu ez dutenak (esate baterako, ateei kolpeak ematea edo gauzak hondatzea)”³. Tratatu txar psikologikoak nahita egindakoak dira eta kalte psikologikoa, balio-galera edo oinazea eragiten dute, baita hauek ere: irainak, laidoak, garrasiak, isilaldiak, mehatxuak, salaketak, bestearen ideiak kritikatzeko... Portaera horiek jendaurrean edo pribatuan gerta daitezke. Tratatu txarra

³ Jiménez Casado, C. Ezkontideen tratatu txarrak Sevillako areako emakumeei. Emakumearen Andaluziako Institutua, Sevilla/Málaga, 1995, 20. orr.

ematen duenak jokabide hori pribatuan soilik adierazten badu, oso zaila da indarkeria hori detektatzea. Egile batzuk, esate baterako Washingtongo *Center for Women Policy Studies* ikerkuntza-zentroko Ganley doktoreak, beharrezkotzat jotzen dute abusu psikologikoa eta abusu emozionala bereiztea. Portaerak berdin-berdinak dira, baina indarkeria psikologikoa gertatzen da testuinguru horretan indarkeria fisikoa ere noizbait gertatu denean; horrenbestez, mehatxuek, irainek, beldurrazteak eta abarrek kalte handiagoa eragin dezakete, abusu fisikoa gogorarazteaz gain berriz ere gertatuko den beldurra sentiarazten dutelako. Aldiz, gehiegikeria emozionala gehiegikeria-modu soila da, gehiegikeria fisikoaren aurrekaririk gabea; burutsuagoa da, baina min edo egonezin emozional handia eragiten du hainbat jokabideren ondorioz: irainak, axolagabetasun-jarrerak, maitasun ezaren adierazpenak, etab. Graciela Ferreira⁴ aditua da genero-indarkerian eta tratu txar psikologikoen artean “inguruneko tratu txarrak” sartzen ditu, esaterako hauek: objektuak apurtzea edo kolpatzea, tresnak suntsitzea, gauzak botatzea, etab. Ez dira gutxietsi behar indarkeria psikologikoaren kexak. Eragindako ezinegon eta pilatutako mina indarkeria fisikoa baino kaltegarriagoak izan daitezke.

- *Sexuala*: Sexu-indarkeria emakumearen nahiaren aurka izandako edozein sexu-harreman da. Besteak beste, praktika hauek ditu barruan: sexu-harremana eskatzea edo izatera behartzea (ezezagun batek eginez gero, bortxaketatzat hartuko litzakete, dudarik gabe); biktima behartzea mina eragiten dioten, desatseginak zaizkion edo, besterik gabe, egin nahi ez dituen jarduerak egitera; sexualki iraintzea; sexu-harremanak izateko bere modua kritikatzeko; sexu-objektutzat hartzea... Horretaz hitz egiten denean, bikotean, sexu-indarkeria naturalizatu egin da eta, beraz, ez da indarkeriatzat hartzen; izan ere, gizonezkoek eta emakumezkoek onartu dute ezkontzaren barruko sexu-harremana senarraren eskubidea dela eta emaztearen beharra. Oro har, emakumeek ez dute onartzen sexualitate behartua bortxaketa bat denik, eta ekintza horrek dakarren tratu txar fisikoa eta emozionala ukatzen dute. Horrela gertatzen da gizarte androzentrikoaren baitan eraikitako sexualitateak balio kulturala hartu duelako.⁵
- *Soziala*: Tratu txar mota hau emakumea isolatzen denean gertatzen da; hau da, bere senideengandik eta lagunengandik urrunarazi, jendaurrean gaizki utzi edo baztertu, etab. Jokaera horiek guztiek kalte psikologikoa eragiten dute. Batzuek ez dute beharrezkotzat hartzen tratu txar sozialen kategoria egotea, era horretako jokaera edo jarrerak tratu txar psikologikoen baitan sartzen baitituzte. Nolanahi ere, eta nahiz jakin tratu txar sozialaren baitan sartzen diren jokabide guztiek sufrimendu psikologikoa eragiten dutela, uste dugu egokia dela tratu txar berezi eta espezifiktzat hartzea; izan ere, era horretako jokabideak maiz agertzen dira bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuetan, eta, horrez gain, garrantzi berezia dute, biktimarentzat zailagoa baita tratu txarren egoera batetik irtetea isolatuta egonda.

⁴ Ruiz, C.; Quemada, J. eta Blanco Prieto, P. *Emakumezkoen kontrako indarkeria. Prebentzioa eta antzematea*. Díez de Santos argitaletxea. Madril. 2006. 41. orr.

⁵ Osborne, R. *Genero-indarkeriaren gaineko oharra*. Ediciones Bellaterra.artzelona. 2009. 70. orr.

- *Ekonomikoa edo finantzarioa*: Berri-berria da indarkeriatzat hartzea baliabide ekonomikoen kontrola eta kontrol horren mende egotea. Tratu txar mota hau “diruari buruzko informazioa edukitzeko eskubidea edo dirua bera erabiltzekoa ukatzean datza”⁶. Tratu txar ekonomikoak lotura handiagoa du baliabide ekonomikoak erabiltzeko lehentasunekin, baliabiderik ez izatearekin baino. Tratu txar ekonomikoa gizarte-maila guztietan gertatzen da; modu zehatzak aldatu egiten dira, baina biktima kontrolatzeko eta lotzeko jarrerak ez dute loturarik baliabideen guztizkoarekin eta aberastasun-mailarekin.⁷ Tratu txar ekonomikoaren bidez, gizonek zorrotz kontrolatzen dute emazteak dirua erabiltzeko baliabidea. Kontrol-egoera hori berdin gertatzen da emazteak diruz ordaindutako lana izan ala ez izan.

Dena den, ohikoena da harreman batean tratu txar mota guztiak aldi berean edo hurrenez hurren izatea.

2.1.1.2. Kausak

O’Neil eta Harway (1999) jaunen arabera, hainbat faktore elkartzen dira emakumeen aurkako gizonetzkoen indarkeria-arriskua handitzen duena, esaterako⁸:

- *Harreman-faktoreak*: bikoteak mantentzen dituen elkarren arteko patroiak dira eta gizonetzkoaren indarkeria alde aurretik prestatzen dituzte eta sortu egiten dute.
- *Faktore biologikoak*: hormona- eta anatomia-faktoreak dira eta gizonetzkoek oldarkortasun gehiago izateari eragiten dio; dena dela, horiek ez dira bikotekidearen kontrako indarkeriaren faktore espezifikoak. Beraz, horien eraginak mugak ditu; izan ere, faktore horien arteko lotura, kultura- eta gizarte-faktoreei gehituta, genero-indarkeria eragiteko arriskua handitzen dute.
- *Faktore psikologikoak*: ideologia matxistak eragiten ditu eta komunikazioan defizita sortzen dute, baita arazoak egoki konpontzeko behar diren baliabideetan ere.
- *Faktore psikosozialak*: paragrafo honetan sartzen dira gizonen eta emakumeen identitateari eragiten dioten aldagaiak; horien artean aipa daitezke genero-estereotipoekin eta ideologiarekin lotutako guztiak. estatus eta botere desberdinak, jarrera sexistak, misoginoak edota paternalistak⁹.
- *Sozializazio-faktoreak*: genero-rolen bidez emakumeen eta gizonen arteko estereotipo bereziak eta hierarkizatuak sortzen dituztenak dira. Hori horrela, emakumearen estereotipo sexistak indarkeria jasotzeko prestatzen du alde aurretik eta ezaugarri

⁶ Emakunde. *Emakumeen aurkako indarkeria*. Emakunde, Vitoria-Gasteiz, 2001. 9. orr.

⁷ Sanmartín, J.(Koordinatzailea). *Indarkeriaren labirintoa. Arrazoiak, motak eta ondorioak*. Ariel argitaletxea. Reina Sofia zentroa. Bartzelona. 2004. 83. orr.

⁸ López Zafra, E. Op. cit., 45. orr.

⁹ López Zafra, E. Op. cit., 45. orr.

hauek ditu: itxurari eta menpeko pertsonak zaintzeari neurriz kanpoko balioa ematea, gizarte-balorazio handiagoa gizonaren esanak betetzeagatik, boterea izateko motibazio baxua, etab.

- *Faktore makrosozialak*: horietan egiturazko alderdiak sartzen dira; hain zuzen, legeei, ekonomiari edo erakundeei loturikoak, baita kultura- eta erlijio-eragileak edo ohiturak ere. Horiek guztiak gizartearen barruan dira, emakumeen bereizkeria eragiten dute eta egiturazko indarkeria deritza.

Horrenbestez, baieztatu dezakegu emakumeen aurkako indarkeria gizartearen bidez transmititzen den gaixotasuna dugula. Desberdintasun-egoeretan sortzen da eta ardatz ideologikoa du. Ardatz horrek sostengua ematen dio eta, emakumeen ingurune pertsonalean zein sozialean, bere mendekotasunarekin loturiko ideia sexistak ditu ezaugarri.

Azken batean, Esperanza Boschek eta Victoria Ferrerek adierazten duten bezala, emakumea mendeko gizakitzat hartzen duten gizon guztiak erasotzaileak izan daitezke, eta, beraz, tratatu txarren emakumeak eta gaizkileak¹⁰.

2.1.1.3. Etxeko indarkeriaren zikloa¹¹

Indarkeria-ziklo horrek etxeko indarkeriaren prozesua deskribatzen duten fase nagusiei egiten die erreferentzia; era berean, azaltzen du zergatik den hain zaila biktima batzuentzat jasaten duten indarkeriari aurre egitea eta indarkeria hori sortzen duen pertsonarengandik urruntzea, erasoaren fasea amaitu eta gero. Aitzitik, kontuan izan behar da indarkeriak ez duela nahitaez ziklikoa izan behar, askotan bat-batean agertzen baita eta ez baitu ez justifikaziorik ez erritmorik behar. Indarkeria-ziklo hori Walker doktoreak deskribatu du, jarraian aurkeztuko diren fase guztiak:


- *Tentsioa pilatzen joaten den edo tentsioak gora egiten duen fasea*: tentsioa liskar txikien eraginez sortzen da. Egoera horren aurrean, emakumeak frustrazioa sentitzen du eta, horrez gain, egoera nahasi batean bizi da, une oro. Emakumea kexatzen denean, gizonak ukatu egiten du: “guztia arazo bihurtzen duzu”. Azkenean, emakumeak bere izatea zalantzan jartzen du eta gertatzen den ororen errudun sentitzen da. Mirariak egiten ditu hazten doan tentsioa arintzeko, bere burua lasaitzeko gizona arriskutsuago bihurtu baino lehen; baina beti esaten edo egiten du zerbait gaizki, edo beti dago egin behar duen baina egiten ez duen zerbait... Egin dituen “akatsak” direla-eta barkamena zenbat eta gehiago eskatu, are eta gehiago haserretzen da hura. Azkenean, indarkeriazko gertaera arinak gertatzen dira: irainak, gutxiespenak, sarkasmoak, axolagabekeria...; hots, tratatu txar psikologikoak.

¹⁰ Bosch, E. eta Ferrer, V., Op. cit., 225. orr.

¹¹ Walker, L. *The Battered Woman*, Harper and Row, New York, 1979.

- *Indarkeriak edo eraso fisikoak eztanda egiten duen fasea:* fase honetan, kontrola guztiz galtzen da, eta tratatu txarrak hasten dira, ez hitzezkoak eta psikologikoak soilik, baita fisiko eta sexualak ere. Emakumea ez da erreakzionatzeko gai, denbora pasa ahala bikotekideen artean sortu den balantza-egoera desberdinak geldiarazi egiten du. Erasotzaileak du botere guztia eta biktima ahul eta indargabe sentitzen da. Zehazki, une horretan bizi du biktimak Walker doktoreak “ikasitako babesgabetasun-egoera” izendatzen duena; horren arabera, indarkeria-ekintzak jasaten dituzten pertsonengan sentimendu berezi bat sortzen da, edozer gauza egin arren emaitza berdina izango delakoa, alegia.
- *Damua edo barealdiaren fasea:* fase hau “eztei-bidaia” edo “maitasun-interludioa” izendatzen dute modu arruntan, eta, bertan, erasotzaileak indarra ematen dio biktimari bere ondoan jarrai dezan. Horretarako, erasotzailea damututa agertzen da, barkamena eskatzen du, negar egiten du, eta zin egiten du eraso ez dela sekula berriro gertatuko eta aldatu egingo dela. Azken batean, biktima konpentsatzea da, zenbait neurri hartu ez ditzan, gizona salatzea edo uztea, esaterako; horrela, emakumeak bere erasotzailearekiko duen mendekotasun emozionala areagotu egiten da, eta erasotzaileak lortzen du emakumeak itxaropena berreskuratzea, bai harremanari dagokionez, bai erasotzaileak aldatzeko duen aukerari dagokionez. Horrez gain, gertaerak minimizatzen, zurrizera edo ukatzera irits daiteke biktima. Erasotzaileak damua agertzean, biktima maitemindu zen gizonaz gogoratzen da, eta, orduan, zenbait adituk (Dutton eta Painter) “batasun traumatikoa” izendatu dutena gertatzen da; izan ere, biktimaren beldurra gutxitzean maitasuna agertzen da berriro, eta biktimak gezurrezko “boterea” lortzen du harremanean¹².

1. irudia. Etzeko indarkeriaren zikloa



Iturria: Geuk egina

¹² Dutton, D.G eta Painter, S.L (1981). "Traumatic bonding: The development of emotional attachment in battered women and other relationships of intermittent abuse". *Victimology: An International Journal*, 6, 139-155.

Ziklo horrek azal dezake zergatik emakume askok kentzen duten salaketa (eraso-fasean jarri ohi da); izan ere, topatzen baitute aldatzeko agindua ematen duen damututako gizona, hau da eztei-bidaia fase betean murgilduta. Emakumeek une horretan gizonen portaera bortitza barkatu eta zuritzen dute eta garrantzia kentzen diote, nahiz eta lehenago tratatu txarrak jasaten ari direla esan duten, eta berriro aurreko egoerara itzultzen dira.

Denbora aurrera joan ahala, erasoen garaia sarriago gertatzen da eta “eztei-bidaia” fasea ere desager daiteke. Hori gertatzen denean, emakumeek errazago erabaki dezakete laguntza eskatzea. Baina une hori iritsi arte urte asko igaro daitezke. Ziklo hori garaiz apurtzen ez bada, erasoen maiztasuna eta intentsitatea handitu egingo dira, ziur asko, eta, aldi berean, erasoak emakumeentzat larriagoak eta arriskutsuagoak izango dira.

Azpimarratu behar da, kasu gehienetan, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima diren emakumeak ez direla ohartzen ziklo horren barruan daudenik; indarkeriazko gertaerak ukatu edo minimizatu egiten dituzte, eta uste dute gertaera isolatuak direla. Gainera, uste dute beren jokabidearekin bikotekidearen alderdi positiboak indartu behar dituztela; horrenbestez, askotan, emakumeek beren burua egiten dute jasaten duten tratatu txarren erantzule. Noski, indarkeria kontrolatzeko egiten dituzten saiakerek fruiturik ematen ez dutenean, erruduntasun-sentimendua eta auto-estimua baxua agertzen dira.

Jarraian ikusi bezala, indarkeria-ziklo hori bizi duten emakume biktimek zailtasun ugari izaten dituzte bertatik irteten saiatzea erabakitzen dutenean:

- Zailtasun *afektiboak*, biktimei pena ematen baitie erasotzaileak, oraindik maite dituela uzte baitute eta emozionalki haren menpe egotera iristen dira.
- *Biktimek jasotako sozializazioarekin* lotutako zailtasunak; izan ere, ezkontzari edo bikote-harremanari gehiegizko balioa ematen diote, eta, beraz, ez dute onartzen “beren” harremanaren porrot gisa bizi izaten duten egoera.
- *Jasotako tratatu txar psikologikoen ondorio* diren zailtasunak, emakumeek beren buruarengan zuten konfiantza eta auto-estimua suntsituta izaten baitute, baita bere identitate bera ere.
- *Lan-arazoekin* lotutako zailtasunak; hau da, biktimak lanik gabe daudenean edo prestakuntza baxua dutenean.
- Zailtasun *ekonomikoak*, emakume batzuek beren erasotzaileekiko izan dezaketen mendekotasun ekonomikoari lotuta edota harremana eteteak eragin diezaikeen status-galerarekin lotuta.
- *Ezinean sentitzearekin* lotutako zailtasunak, besteak beste, salaketaren eraginkortasunean konfiantzarik ez dutelako.
- Zailtasunak, tratatu txarrak *justifikatzeagatik* eta *errudun sentitzeko joeragatik*.
- *Ikasitako babesgabetasun-sentimenduarekin* lotutako zailtasunak; horren arabera, edozer gauza egin arren, erasotzaileak jarraituko du indarkeriazko jokabideak errepikatzen.

- Beldurraren ondoriozko zailtasunak, askotan erasotzailearekiko izua izatera heltzen dena.
- *Sineste tradizionalen* ondoriozko zailtasunak, familia-batasunaren garrantzia azpimarratzen dutena.

2.1.2. Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa salbu)

Txosten honetan, familia barruko indarkeriaz hitz egitean, emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten dien edo diezaiekeen eta familia-harreman baten baitan (bikote-harremana edo bikote ohien harremana salbu) gertatzen den indarkeriazko edozein ekintzari egingo diogu erreferentzia.

Beraz, familia barruko genero-indarkeria terminoa erabiliko dugu familia-harremanen testuinguruan gertatzen diren eta biktimengan hainbat mailatako kalteak eragiten dituzten botere-abusuaren modu guztiei erreferentzia egiteko.

Indarkeria-mota hori gehien jasan dezaketen taldeei dagokienez, neska txikiak eta adineko emakumeak azpimarratu behar dira.

Familia barruko indarkeriaren (bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria salbu) biktima diren emakumeek hiru indarkeria-mota jasan dezakete funtsean:

- *Fisikoa*: biktimaren segurtasun fisikoa arriskuan jarri edo kaltetu eta istripu ez den egintza da.
- *Psikologikoa*: ezbeharrezkoak ez diren ekintzak, biktimaren osotasun psikikoa kaltetzea edo arriskuan jartzea eragiten dutenak.
- *Sexuala*: emakumearen adostasunik gabe egindako sexu-jokaera oro.

2.1.3. Sexu-askatasunaren aurkako delituak

Sexu-askatasunaren aurkako delituen baitan, familiaz kanpo eta/edo eremu afektibotik kanpo, gizon batek emakume baten aurka egiten duen indarkeriazko edozein ekintza sexuarekin lotzen diren delituak sartzen dira. Horien artean, indarkeria-mota hauek daude sartuta:

- *Sexu-erasoa* (Zigor Kodearen 178-180 artikulua): onartu ez den sexu-harremana da, indarkeriaren edo larderiaren bidez lortzen dena. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak, hain zuzen.
- *Sexu-abusua* (Zigor Kodearen 181-183 artikulua): horren barruan sartzen dira sexu-educia duten jokabideak, indarkeria edo larderia erabili gabe. Zigor Kodeak bereizten

ditu baimenik gabeko abusuak eta gezurren edo nagusitasunaren bidezkoak (horietan baimena badago ere, biziatura dago).

- *Sexu-jazarpena (Zigor Kodearen 184. artikulua)*: lan-harremaneko, irakaskuntza-harremaneko edo zerbitzuak emateko esparru batean, norberarentzat edo beste pertsona batentzat usu eta modu jarraitu batean sexu-mesedeak egiteko eskatzea da; horren ondorioz, biktima larderia larriko egoera iraingarri edo umilgarrian aurkitzen da. Horrek eragin dezake hainbat aldaketa biktimaren laneko jokabidean, esaterako: bakarrik dagoela, jazarlearekin topatzea saihestu, esaten duena zaindu, modu zehatz batean jantzi, hainbat ekitaldi edo bileretara joateari uko egin, etab. Gainera, lan-eremuan biktima kalera dezakete edo ezin igo mailaz edo horrelako ekintzekin mehatxuak eragin. Bukatzeko, psikologikoki, biktimak izan ditzake nahasketa psikosomatikoak.
- *Exhibizionismoa (Zigor Kodearen 185. art.)*: adingabeen edo urritasunen bat duten pertsonen aurrean, erakustaldi lizunak egiten direnean edo beste pertsona bat horretara behartzen denean izaten da.
- *Sexu-probokazioa (Zigor Kodearen 186. art.)*: adingabeen edo urritasunen bat duten pertsonen artean material pornografikoa saltzea, zabaltzea edo erakustea, zuzeneko edozein bitarteko erabiliz.
- *Adingabeen galbideratzea (Zigor Kodearen 187, 188.3, 189.4-5-7 art.)*: delitugilea pertsona hau izango da: ekintza hori eginarazten, sustatzen, bultzatzen edo laguntzen duena; adingabe bat edo urritasuna duen pertsona bat beraren bilakaera edo garapena kaltetu dezakeen sexu-portaera egitera behartzen duena; edota bere ahalean, tutoretzan edo zaintzan adingabe bat edo urritasuna duen pertsona bat izanik eta horren prostituzio-egoera ezagututa, egoera horretan jarraitu ez dezan ahaleginik egiten ez duena.
- *Prostituzio behartua (Zigor Kodearen 188.1-2 art.)*: indarkeria, larderia edo gezurra erabiliz nahiz nagusitasun-, premia- edo ahultasun-egoeraz baliatuz, pertsona adinduna prostituzioan jardutera edo jarduera horretan jarraitzera behartzea.
- *Adingabeen pornografia (Zigor Kodearen 189.1-2-3 art.)*: adingabeak edo urritasunen bat duten pertsonak helburu exhibizionistekin edo pornografikoekin erabiltzea, eta era horretako ikuskizunetan (jendaurrekoak nahiz pribatuak) edo edonolako material pornografikoetan (horien euskarria zeinahi izanda ere) agertzera behartzea, bai eta jarduera horiek finantzatzea ere. Halaber, delitu hori egingo da adingabeak edo gutxitasuna duten pertsonak erabiliz egin diren material pornografikoak saldu, banatu edo erakusten direnean, horiek edonolako euskarritan sortzea, saltzea, banatzea edo erakustea errazten denean, edota helburu horietarako materialak izatean, nahiz eta materialak atzerrikoak edo ezezagunak izan. Azkenik, multzo honen baitan sartuko da nork bere erabilerarako material pornografikoa izatea, baldin eta hori egiteko adingabeak edo urritasunen bat duten pertsonak erabili badira.
- *Gizaki-salerosketa (ZK.aren 177.bis artikulua)*: Zigor Kodearen erreforma berriak, 2010eko abenduan indarrean sartu zenak, handitu egin du 177. artikulua, gizaki-salerosketari buruzko atal berezia gehitu duena, honela: "Gizakien salerosketaren akusatua bost urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorrarekin zigortuko da baldin eta bereganatzen,

eramaten, lekualdatzen, hartzen, jasotzen edo ostatatzen badu, Espainiako lurraldean, Espainiatik edota Espainia iraganbide zein muga izanik, indarkeria, larderia edo gezurra erabiliz, nagusitasun edo nazio- edo atzerriko biktimaren beharrizan egoeraz edo ahuleziaz abusatuz, helburu hauetakoren bat izanik:

- a) Lan edo zerbitzu behartuak inposatzea, esklabotasuna edo esklabotzaren, mirabetzaren edo eskaletasunaren antzeko praktikak.
- b) Sexu-esplotazioa, pornografia barne.
- c) Gorputzeko organoak ateratzea.”

2.2. GENERO INDARKERIAREN ONDORIOZ EAE-KO EMAKUMEEN BIKTIMIZAZIOAK

Hurrengo orrietan aurkeztuko diren datuen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutako genero-indarkeriari buruzko informazio estatistiko garrantzitsuena jaso da, Ertzaintzak bere jarduera- eta eskumen-esparruan duena, hain zuzen.

Oro har, 2009ko datu horiek erreferentzia egiten diete genero-indarkeriak eragindako emakume-biktimizazioei. Aurten, datu horien zati handia aurkezten da biktimizazio eta biktima kontzeptuen arabera bereizita, biktimizazioek gertaerak adierazten baitituzte eta biktimek pertsonak.

- *Biktimizazioak*: pertsona bat zenbat aldiz izan den lege-hauste baten helburu, epe jakin batean, Ertzaintzaren dokumentuetan horrela azaltzen delarik. Adibide hau argigarria izan daiteke: pertsona batek zenbait mehatxu pairatu eta dagozkion salaketak jarri ditu; salaketa bakoitzak biktimizazio bat dakar.
- *Biktimak*: lege-hauste baten helburu izan diren pertsonak, epe jakin batean, Ertzaintzaren dokumentuetan biktima bezala azaltzen direlarik. Aurreko adibidean, biktima bakar bat izango genuke.

Aurreko paragrafoan adierazi bezala, genero-indarkeriaren oinarritzko hiru mota bereizi ditugu:

- 1) Bikote-harremanetan edo bikotekide ohien arteko harremanetan emakumeen aurka eragindako indarkeria.
- 2) Familia barruan, emakumearen aurka gizonak gauzatzen duen indarkeria (aitek, semeek, nebek...).
- 3) Aipatutako eremu horietatik kanpo, emakumeen aurka eragiten duten sexu-indarkeria (hezkuntzan, lanean, auzoan, aurretiko harremanik gabe...).

Zehazki, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkerian eta familia barruko indarkerian askotariko arau-hauste penalak sartzen dira; horiek, egungo Zigor Kodean daude zehaztuta:

erailketa eta gizahilketa delituak, askatasunaren aurkako delituak (legez kontrako atxilotetak, bahiketak, mehatxuak, derrigortzeak), tortura eta osotasun moralaren aurkako erasoak (horien artean daude familian ohiko diren tratu txarrak), sexu-askatasunaren eta sexu-kalterik ezaren aurkako delituak, sorosteko betebeharra haustea, intimitatearen aurkako delituak, ohorearen aurkako delituak, segurtasun- eta kautela-neurriak ez betetzea, familia-harremanekin lotutako delituak, eta lotutako hutsegiteak. Aipatzekoa da sexu-askatasunaren aurkako delituak bi eremutan gerta daitezkeela: bikote-harremanetan edo bikotekide ohien arteko harremanetan, eta familia barruko harremanetan (bikote-harremanak eta bikotekide ohien arteko harremanak sartu gabe).

2.2.1. Genero-indarkeriaren ondorioz EAEn eraildako emakumeak

Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioei buruz hitz egitean, lehenik eta behin indarkeria-mota horrek EAEn eragindako hildakoen kopurua azpimarratu behar da, noski; 2010ean, zehazki, 5 emakume izan ziren. Bost emakume horiek genero-indarkeriaren ondorioz hildako biktimak izan dira: urtarrelean, 45 urteko andrea erail zuten Tolosan, otsailaren 8an eta 19an bi emakume hil ziren semeek eraginda, Bilbaon 36 urteko emakumea erail zuen bere bikotekideak udalerrri horretan eta, abenduan, 25eko gaztea erail zuen bikotekide ohiak Barakaldon.

Behean dago zoritxarreko datu horrek azken urteetan izan duen bilakaera jasotzen duen taula.

2. taula. Genero-indarkeriaren ondorioz EAEn eraildako emakumeak (2002-10)

URTEA	HILA	GERTAERA-EGUNA	ERAILKETA GERTATU ZEN UDALERRIA	ADINA	JAIO TERRIA	ERASOTZAILEA-REKIKO HARREMANA	EGILEAREKIKO BIZIKIDETZA-HARREMANA
2002	ABUZTUA	02/08/23	BASAURI	33	BILBAO	BIKOTEKIDEA	BAI
	OTSAILA	04/02/03	BILBAO	33	NIGERIA	BIKOTEKIDEA	BAI
	IRAILA	04/09/27	BILBAO	27	GUINEA BISSAU	BIKOTEKIDE OHIA	BAI
2004	URRIA	04/10/10	BARAKALDO	34	BARAKALDO	ARREBA	EZ
	AZAROA	04/11/23	SANTURTZI	16	BARTZELONA	BIKOTEKIDE OHIA	BAI
	ABENDUA	04/12/12	BASAURI	54	BURGOS	BIKOTEKIDEA	EZ
2005	URTARRILA	05/01/15	DURANGO	32	GUATEMALA	BIKOTEKIDE OHIA	EZ
	URRIA	05/10/04	BILBAO	68	VALLADOLID	AMA	BAI
		05/10/12	BARAKALDO	38	EIBAR	BIKOTEKIDEA	BAI
		05/10/15	BAKIO	26	BARAKALDO	BIKOTEKIDE OHIA	EZ

URTEA	HILA	GERTAERA-EGUNA	ERAILKETA GERTATU ZEN UDALERRIA	ADINA	JAIOTERRIA	ERASOTZAILEA-REKIKO HARREMANA	EGILEAREKIKO BIZIKIDETZA-HARREMANA
2006	MAIATZA	06/05/28	BARAKALDO	39	BILBAO	BIKOTEKIDEA	BAI
	UZTAILA	06/07/03	BASAURI	23	ERRUMANIA	BIKOTEKIDEA	BAI
		06/07/07	GETXO	87	KANTABRIA	AMA	BAI
	ABUZTUA	06/08/06	VITORIA-GASTEIZ	76	VITORIA-GASTEIZ	AMAGINARREBA	EZ
2007	MARTXOA	07/03/23	BILBAO	74	KANTABRIA	BIKOTEKIDEA	BAI
	EKAINA	07/06/02	VITORIA-GASTEIZ	35	VITORIA-GASTEIZ	BIKOTEKIDEA	BAI
	ABENDUA	07/12/13	ETXEBARRI	80	PONTEVEDRA	AMONA	EZ
2008	ABUZTUA	08/08/15	MAÑUETA	72	MAÑUETA	BIKOTEKIDEA	BAI
	URRIA	08/10/05	SANTURTZI	26	NIGERIA	BIKOTEKIDEA	BAI
	ABENDUA	08/12/29	ERREENTERIA	35	VENEZUELA	BIKOTEKIDEA	BAI
2009	MARTXOA	09/03/23	GERNIKA-LUMO	44	TOLOSA	BIKOTEKIDEA	BAI
	MAIATZA	09/05/09	IRUN	37	KOLONBIA	BIKOTEKIDE OHIA	EZ
2010	URTARRILA	10/01/17	TOLOSA	45	PONTEVEDRA	BESTE SENIDE BAT	BAI
	OTSAILA	10/02/08	BARAKALDO	65	SALAMANCA	AMA	BAI
		10/02/19	LASARTE-ORIA	48	BADAJOS	AMA	EZ
	UZTAILA	10/07/25	BILBAO	36	BILBAO	BIKOTEKIDEA	BAI
	ABENDUA	10/12/06	BARAKALDO	25	BARAKALDO	BIKOTEKIDE OHIA	EZ

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ (Kabineteko eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritza). Herrizaingo Saila

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, azken bederatzi urteetan 27 emakume erail dituzte guztira, gure autonomia-erkidegoan; datu horrek adierazten digu zenbaterainokoa den arazoaren garrantzia eta larritasuna. Bereziki odoltsuak izan ziren 2004. eta 2010 urteak, bietan, bost emakume hil baitzituzten guztira genero-indarkeriaren ondorioz; 2004an hildako horietako lau bikotekideak edo bikotekide ohiak hil zituzten eta bestea senide batek.

Hildako biktimen adinari dagokionez, azpimarratu behar da batez besteko adina 44 urtekoa dela. Halaber, azpimarragarria iruditu zaigu 2002 eta 2010 urteen artean genero-indarkeriaren ondorioz EAEn eraildako emakumeen erdiek 35 urte edo gutxiago zituztela; horrek adierazten du gazteek jarraitzen dutela sexu izaerako patroia afektiboak erabiltzen. Horregatik, gaztetasunean indarkeria-mota horien prebentzioan lanean jarraitu behar da, generoari lotutako rolak eta estereotipoak gainditzeko asmoz.

Nazionalitateari dagokionez, azken bederatzi urteetan gure autonomia-erkidegoan eraildako emakumeen % 26, bakarrik, etorkinak ziren. Horrek adierazten du burutik kendu behar dugula biktima gehienak atzerrikoak direnik.


Era berean, genero-indarkeriaren ondorioz hil diren emakume gehientsuenak bikotekideek edo bikotekide ohiak erail dituzte; zehazki, EAEn 2002tik 2010era bitartean eraildako emakumeen %71. Eta garrantzi bereko datua da biktimen %29 senideren batek erail dituela, bikotekidea edota bikotekide ohia izan ez dena.

Azkenik, aurreko datuei esker haxe ondorioztatu da: genero-indarkeriaren ondorioz eraildako emakumeen %66,6 beren hiltzailearekin bizi zirela, alegia; egoera hori oso larria iruditzen zaigu eta horrek adierazten dizkigu indarkeriaren ziklotik ateratzeko zailtasunak.

2.2.2. Genero-indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioei buruzko EAEko datu orokorrak-2010

EAEn, 4.285 biktimizazio erregistratu dira guztira 2010ean eta grafiko honek (1. grafikoa) jasotzen duen bezala banatu dira, lehen bereizitako genero-indarkeriaren hiru adierazpenen arabera: bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu) eta sexu-askatasunaren kontrako delituak.

1. grafikoa. Genero-indarkeriak eragindako emakume-biktimizazioak EAEn, motaren arabera (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Emakumeen aurkako EAEko indarkeria-kasu gehienetan egiaztatu da, erasotzailea eta biktima sentimenduzko lotura batek elkartuta daudela edo egon direla (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria: lautik hiru kasu).

Lurralde historikoen arabera banaketari dagokionez, biktimizazioen ehunekoak biztanleria-bolumenarekin proportzionalak dira: Bizkaia, %55; Gipuzkoa, %30; eta Araba, %15.

Segidan, 3. taula egin da; horretan jaso da, EAEn, 2010ean izandako genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen kopurua, indarkeria-motaren eta lurralde historikoaren arabera, baita biktimizazio horiek erreferentzian hartutako emakume-kopurua ere.

Txostenean zehar, bi kontzeptuak desberdintzen dituen jarraibidea mantenduko da, orain dela gutxi sartu dena. Hori da azken urteetako ahalegin sendoaren emaitza, Herrizaingo Saileko estatistikak berrantolatzea, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren sustapenaren menpe dagoena eta funtsezkoa dena, arazoaren ikuspegi osatuagoa izaten eta zuzendaritzaren funtsezko helburu hori lortzen uzten baitu: indarkeriaren kiribiletik ihes egitea erabakitzen duten emakumeen kopuruak gora egitea.

3. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, motaren eta lurralde historikoaren arabera (2010)

	LURRALDE HISTORIKOA							
	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		GUZTIRA	
	Biktimiz.	Emakum.	Biktimiz.	Emakum.	Biktimiz.	Emakum.	Biktimiz.	Emakum.
Bikotekideak /bikotekide ohiak egindako indarkeria	471	390	1.762	1.383	1.005	792	3.238	2.565
Familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)	106	93	485	414	244	225	835	732
Sexu-askatasuna	35	35	119	117	58	58	212	210
GUZTIRA	612	518	2.366	1.914	1.307	1.075	4.285	3.507

Iturria: Azterketa Arloa; KBTZ. Herrizaingo Saila

Bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeen aurka eragindako indarkeriarekin¹³ espezifikoki lotutako arau-hauste mota nagusiei dagokienez (4. taula), nabarmendu behar da hiru lurralde historikoetan indarkeriak eragindako biktimizazioak delitutzat sailkatu direla batez ere, eta ez hutsegitetzat (%91,6 eta %8,4, hurrenez hurren); funtsean, bi delitu-mota nabarmendu dira:

- “Tortura-delituak eta segurtasunaren aurkakoak”: guztiak “familiako ohiko tratatu txarrak” izeneko epigrafearen baitan sartzen dira ea, eta, gutxi gorabehera, aztertutako delitu eta hutsegite guztien %59,54 dira.
- “Justizia Administrazioaren aurkako delituak”: delitu eta hutsegite guztien %15,71 dira, gutxi gorabehera, eta hainbat neurri ez hausteari egiten diete erreferentzia: kondena, segurtasun-neurria, presoaldia, kautela-neurria, eramatea edo zainketa.

¹³ Sailkapena dagokio Ertzaintzak egindako egitateen sailkapenari. Giza hilketa eta bere motak, lesioak, askatasunaren kontrako delituak, tortura eta segurtasunaren aurkakoak, sorosteko betebeharra haustea, intimitatearen eta nor bere irudia izateko eskubidearen aurkako delituak...; Sexu-askatasunaren aurkako delituak, ohorearen kontrako delituak, familia-harremanen kontra, Justizia administrazioaren kontra, pertsonen kontrako hutsegiteak eta ordena publikoaren kontrako hutsegiteak.

4. taula. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, arau-haustearen eta lurralde historikoaren arabera (2010)

ARAU-HAUSTE MOTA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Giza hilketa eta bere motak	1	4	3	8
Giza hilketa / erailketa saiakera	1	2	2	5
Giza hilketa / erailketa burutzea	-	2	1	3
Lesioak	65	192	83	340
Arduragabekeriagatik egindako lesioak	-	-	-	-
Familia barruko tratu txarrak	61	181	75	317
Lesioak	4	11	8	23
Askatasunaren aurkakoak	18	38	41	97
Mehatxuak	10	28	22	60
Hertsapenak	8	8	15	31
Bahiketa	-	2	4	6
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak	304	1.064	562	1.930
Familia barruko tratu txar ohikoak	303	1.063	562	1.928
Beste batzuei eragindako tratu txarrak	1	-	-	1
Tratu iraingarria	-	1	-	1
Intimitatearen kontra, norberaren irudia edukitzeko eskubidearen kontra, etab.	1	1	-	2
Sexu-askatasunaren aurka	1	5	1	7
Sexu-erasoa	1	5	1	7
Sexu-abusua	-	-	-	-
Ohorearen aurkakoa	-	-	1	1
Kalumniak	-	-	-	-
Irainak	-	-	1	1
Familia-harremanen aurkakoak	2	42	27	71
Zaintza-eginbeharra ez betetzea	-	10	3	13
Adingabea etxea uztera bultzatzea	-	-	-	-
Adingabeari zainketa-araubidea haustea eragitea	-	-	-	-
Adingabea bahitzea	-	2	1	3
Familia uztea	-	15	4	19
Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea	1	14	18	33
Adingabea bertan behera uztea	1	1	-	2
Eskerako erabiltzea	-	-	1	1
Justizia Administrazioaren aurkakoak (neurriak ez betetzea...)	56	264	189	509
DELITUAK, GUZTIRA	448	1.610	907	2.965
Pertsonen aurkako hutsegiteak	23	152	98	273
Iseken hutsegitea	-	4	1	5
Mehatxuen hutsegitea	1	7	8	16
Derrigortzeen hutsegitea	1	4	6	11
Irainen hutsegitea	2	7	5	14
Sorospen-eginbeharra ez betetzeagatik egindako hutsegitea	-	-	-	-
Gurasoek adingabearen zainketa ez betetzeagatik egindako hutsegitea	12	48	16	76
Dibortzioan edo banatzean hitzarmen/ebazpen judiziala ez betetzeagatik egindako hutsegitea	7	82	62	151
Lesioen hutsegitea	-	-	-	-
Ordena publikoaren hutsegitea	-	-	-	-
HUTSEGITEAK, GUZTIRA	23	152	98	273
GUZTIRA	471	1.762	1.005	3.238

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Familia barruko genero-indarkeriarekin (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)¹⁴ espezifikoki lotutako arau-hauste mota nagusiei dagokienez (5. taula), ikus daiteke indarkeria-mota horren ondoriozko biktimizazio gehienak delitutzat jaso direla (%80,12) eta gainerako % 19,88 hutsegitetzat; hala gertatu da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktimizazioekin ere, baina indarkeria-mota horrekin baino neurri txikiagoan.

5. taula. Familia barruko indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak salbu), arau-haustearen eta lurralde historikoaren arabera (2010)

ARAU-HAUSTE MOTA	LURRALDE HISTORIKOA			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Giza hilketa eta bere motak	-	1	2	3
Giza hilketa / erailketa saiakera	-	-	1	1
Giza hilketa / erailketa burutzea	-	1	1	2
Lesioak	15	52	22	89
Familia barruko tratatu txarrak	15	50	15	80
Lesioak	-	2	7	9
Askatasunaren aurkakoak	8	14	11	33
Bahiketa	-	1	-	1
Mehatxuak	7	13	10	30
Hertsapenak	1	-	1	2
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak	50	242	129	421
Familia barruko tratatu txar ohikoak	50	242	129	421
Intimidadearen kontra, norberaren irudia edukitzeko eskubidearen kontra, etab.	-	1	-	1
Etxean indarrez sartzea eta abar	-	1	-	1
Sexu-askatasunaren aurka	5	14	6	25
Sexu-erasoa	5	5	3	13
Sexu-abusua	-	9	3	12
Adingabeen galbideratzea	-	-	-	-
Ohorearen aurkakoak	-	1	-	1
Kalumniak	-	-	-	-
Irainak	-	1	-	1
Familia-harremanen aurkakoak	-	11	5	16
Adingabea bahitzea	-	3	-	3
Familia uztea	-	5	-	5
Adingabea bertan behera uztea	-	3	5	8

.../...

¹⁴ Saillkapena dagokio Ertzaintzak egindako egitateen saillkapenari. Giza hilketa eta bere motak, lesioak, askatasunaren kontrako delituak, tortura eta segurtasunaren aurkakoak, intimidadearen eta nor bere irudia izateko eskubidearen aurkako delituak...; Sexu-askatasunaren aurkako delituak, ohorearen kontrako delituak, familia-harremanen kontra, Justizia administrazioaren kontra, pertsonen kontrako hutsegiteak.

.../...

ARAU-HAUSTE MOTA	LURRALDE HISTORIKOA			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Justizia Administrazioaren aurkakoak	6	49	25	80
Segurtasun-neurria, kautelazko neurria, zigorrak eta abar haustea.	6	49	25	80
DELITUAK GUZTIRA	84	385	200	669
Pertsonen aurkako hutsegiteak	22	100	44	166
Lesioen hutsegitea	8	27	19	54
Iseken hutsegitea	2	3	-	5
Mehatxuen hutsegitea	6	46	17	69
Derrigortzeen hutsegitea	2	9	4	15
Irainen hutsegitea	3	8	3	14
Sorospen-eginbearra ez betetzeagatik egindako hutsegitea	-	-	-	-
Gurasoek adingabearen zainketa ez betetzeagatik egindako hutsegitea	1	4	-	5
Dibortzioan, banatzean, ... hitzarmen/ebazpen judiziala ez betetzeagatik egindako hutsegitea	-	3	1	4
HUTSEGITEAK, GUZTIRA	22	100	44	166
GUZTIRA	106	485	244	835

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, familia barruko genero-indarkeriatik emakume-biktimizazioen artean (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak salbu), hauek nabarmendu behar dira:

- “Tortura-delituak eta segurtasunaren aurkakoak”: guztiak “familiako ohiko tratatu txarrak” izeneko epigrafearen baitan sartutako kasuak dira; gutxi gorabehera, aztertutako delitu eta hutsegite guztien %50,41 dira, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin gertatzen dena baino apur bat gutxiago.
- Lesiotzat hartutako delituen barruan, esan dezakegu, 2010ean, aurreko urtearen aldera, bikoiztu egin direla eta gauza bera gertatu dela familia barruko tratatu txarren kasuan.
- “Pertsonen aurkako hutsegiteak” (% 20, gutxi gorabehera): bereziki, lesioen hutsegitea eta mehatxuen hutsegitea aipatu behar dira, delitu eta hutsegite guztien %32,5 eta %41,5 baitute, hurrenez hurren.
- “Justizia Administrazioaren aurkako delituak”: delitu eta hutsegite guztien %9,6 dira eta hainbat neurri ez betetzeari egiten diete erreferentzia: kondena, segurtasun-neurria, presoaldia, kautela-neurria, eramatea edo zainketa.

Azkenik, segidako taulan (6. taula), *sexu-askatasunaren aurkako delituak*¹⁵ jaso dira, arau-hauste motaren arabera. Hain zuzen, joera bera hauteman dugu hiru lurralde historikoetan; hau da, biktimizazio gehienak “sexu-erasotzat” sailkatu dira (%48), eta atzetik “sexu-gehiiegikeriatzat” jasotakoak daude (ea %43).

6. taula. Sexu-askatasunaren aurkako delituen emakumeen biktimizazioak EAEn

ARAU-HAUSTE MOTA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Sexu-erasoa	16	55	31	102
Sexu-abusua	19	50	22	91
Sexu-jazarpena	-	3	2	5
Exhibizionismoa	-	7	3	10
Sexu-probokazioa	-	3	-	3
Adingabeen galbideratzea	-	-	-	-
Prostituzioa	-	-	-	-
Adingabeen pornografia	-	1	-	1
GUZTIRA	35	119	58	212

Iturria: Azterketa Arloa; KBTZ. Herrizaingo Saila

Nabarmentzekoa da, *sexu-askatasunaren kontrako delitu gisa*, exhibizionismoa jaitsi egin dela, 2009. urtearen aldera; 2010ean, guztira, 10 kasu egon dira, 2009. urtean, berriz, 45 kasu.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu *sexu-askatasunaren aurkako delitutzat* sailkatu ditugun 10 kasutik 9 sexu-erasoak (ia erdia multzo honetan sailkatu da) edo sexu-gehiiegikeriak izan direla.

Bestalde, eta berriro genero-indarkeriari buruz bere osotasunean hitz eginez, larritasun-mailan jarriko dugu arreta, genero-indarkerian hasieratik bereizi ditugun hiru adierazpenen arabera: bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu) eta sexu-askatasunaren aurkako delituak; horrez gain, aipatu behar da, erasoen %7,18n ez dela kaltegarritasun-maila zehaztu. Horri dagokionez, hauxe azpimarra dezakegu:

¹⁵ Sailkapena dagokio Ertzaintzak egindako egitateen sailkapenari. Sexu-erasoa (Zigor Kodearen 178-180 artikulua); Sexu-abusua (Zigor Kodearen 181-183 artikulua); Sexu-jazarpena (Zigor Kodearen 184. artikulua); Exhibizionismoa (Zigor Kodearen 185. artikulua); Sexu-probokazioa (Zigor Kodearen 186. artikulua); Adingabeen galbideratzea (Zigor Kodearen 187, 188.3, 189.4-5-7 artikulua); Prostituzioa (ZK-aren 188.1-2 artikulua); eta adingabekoen pornografia (ZK-aren 189.1-2-3 artikulua).

- Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria: indarkeria-mota hori jasan duten emakume gehienek (%62,7) ez dute kalterik izan eraso horien ondorioz eta %29,8 “arin zauritu” da.
- Familia barruko indarkeria: %67,9k ez du minik izan, eta %23,9k “zauri arinak” izan ditu.
- Sexu-askatasunaren aurkako delituak: emakumeen %65,6k ez du kalterik izan eta beste %21,7k kaltegarritasun-maila “arina” izan du.

Datu horien arabera, eta beheko taulan ikus daitekeen bezala (7. taula), kaltegarritasun-tasari dagokionez ez da alderik aurkitu genero-indarkeriaren hiru adierazpen hauen artean (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena, familia barrukoa eta sexu-askatasunaren aurkakoa); hain zuzen, kasu gehienetan (%63,8), emakumeek “ez dute kalterik izan” (kalte fisikoei dagokienez), eta beste batzuetan (%28,3) zauri arinak izan dituzte. “Zauri larriak” izan dituzten emakumeak %6ra soilik iritsi dira (24 kasu).

7. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, kaltegarritasunaren eta lurralde historikoen arabera (2010)

KALTEGARritasuna	GERTAERA-LURRALDEA			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Hila	–	3	2	5
Larri zauritua	3	14	7	24
Arin zauritua	172	687	353	1.212
Kalterik gabea	394	1.496	846	2.736
Ez dakigu	43	166	99	308
GUZTIRA	612	2.366	1.307	4.285

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Segidan, 8. taula eta 2. grafikoa aurkeztuko dira eta, horietan, iaz EAEn genero-indarkeriaren ondorioz izan ziren emakume-biktimizazioei buruzko informazioa jaso da, erasotzailearekiko harremanaren arabera.

8. taula. Genero-indarkeriak eragindako emakume-biktimizazioak EAEn, motaren, lurralde historikoen eta erasotzailearekiko harremanaren arabera (2010)


ERASOTZAILEAREKIKO HARREMANA	LURRALDEA			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	471	1.762	1.005	3.238
Ezkontideak	127	435	258	820
Ezkontide ohiak	122	464	254	840
Neska-laguna / bikotekidea	71	324	200	595
Neska-lagun ohia / bikotekide ohia	146	494	257	897
Emaztegaia	–	19	18	37
Emaztegai ohia	5	26	18	49
Familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)	106	485	244	835
Alaba adingabea	10	53	38	101
Ama	46	225	95	366
Gainerako senideak	50	207	111	368
Sexu askatasuna	35	119	58	212
Bestelako harremana	35	119	58	212
GUZTIRA	612	2.366	1.307	4.285

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Ikus daitekeen bezala, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaz hitz egitean, ez dago halako alderik erasotzailea mutil-lagun ohia (% 27,7), mutil-laguna (% 18,37), ezkontidea (% 25,32) edo ezkontide ohia (% 25,94) izatearen artean, bai ordea senargaiak edo senargai ohiek osatutako taldearekiko (% 1,14 eta % 1,51 hurrenez hurren). Horrek adieraztera ematen duenez, bizikidetzak indar gehiagoz abiaraz dezake indarkeriaren zikloa. Horren ondorioz, erasotzailearekin apurtzea korapilatsuagoa gerta daiteke.

Familia barruko genero-indarkeriari dagokionez, azpimarratu behar da erasotzailea semea izan dela kasuen % 43,8an; beste % 12,1 aita izan da eta, gertaeren gainerako % 44,1ean, erasotzailea familiako beste kideren bat izan da.

2. grafikoa. Genero-indarkeriaren ondorioz, EAEn izandako emakume-biktimizazioak, eraso-tzailearekin duen harremanaren arabera (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

2.2.3. Genero-indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioei buruzko EAEko lurralde-datuak-2010

Atal honetan, genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen lurralde-banaketari buruz hausnartuko da, 2010. urtea oinarri hartuta; lehenik eta behin, udalerrien arabera banaketa egingo da eta, gero, azterketa zehatzago bat, lurralde historikoen arabera.

Hurrengo orrietan, hainbat irudi sartu da (mapak); bertan, genero-indarkeriak 2010ean EAEn eragindako emakume-biktimizazioen tasak ikus daitezke, udalerrien arabera banatuta.

Ikus daitekeenez, desberdintasun handiak daude genero-indarkeriak eragindako emakume-biktimizazioen bolumenari dagokionez, baita genero-indarkeriaren hiru adierazpenak banan-banan aztertzen baditugu: bikotekideak edo bikotekideak ohiak eragindako genero-indarkeria, familia barruko genero-indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu) eta sexu-askatasunaren kontrako delituak.

Udalerrien arteko alderaketak egiteko, adierazle jakin bat erabiltzen da, udalerriko emakumeen kopurua eta jazotako biktimizazioak lotzen dituen, hain zuzen: biktimizazio-kopurua hamar mila emakumeko.

Noski, hamar mila emakumeko biktimizazio-tasa horri dagokionez, hainbat zehaztasun egin behar dira:

- Tasak kalkulatzeko, Estatistika Institutu Nazionalak aurkeztutako datuak izan dira biztanleria-kopuruen iturria, hain zuzen, 2008ko urtarrilaren 1eko datuak.
- Zenbaitetan, hauteman dugu biztanle gutxiko udalerrietan tasa handia dagoela; hori, hain zuzen, faktore horren ondorio da, eta ez du adierazten genero-indarkeriagatiko biktimizazio-kopuru handia izan dela. Horri dagokionez, gogorarazi behar da askotan nahikoa dela udalerri batean biktimizazio bakarra gertatzea bertako tasak gora egiteko; nolanahi ere, datu hori tentu handiz interpretatu beharko da.
- Azkenik, azpimarratu behar da tasa altua duen udalerri bat izateak ez duela beti adierazten leku horretan genero-indarkeriaren erasoak ugariagoak direnik. Tasa altua izateak lotura izan dezake, besteak beste, udalerri horrek era horretako gertaerak poliziari jakinarazteko joera handiagoa izatearekin edota poliziak berak esku hartu behar izanarekin; hau da, baliteke udalerri horretan herritarrei oro har informazio egokia eta ugaria ematea izan daitezkeen baliabideei buruz, edota bertan baliabide horiek esku-eskura izatea.


Hurrengo orrietan ikus daitezkeen irudian (2. irudia) sei udalerri-maila bereizi dira, genero-indarkeriak oro har eragindako biktimizazio-tasaren arabera:

- Biktimizaziorik izan ez duten udalerriak: mapan zuriz adierazi dira, eta, gutxi gorabehera, EAE osatzen duten udalerri guztien %33,4 dira. Horien artean, Arabako udalerrien %47 daude, esaterako: Erriberagoitia, Añana, Okondo, Zigoitia, Barrundia, Donemiliaga, Zaldondo, Bernedo, Arraia-Maeztu, Zabrana, Berantevilla, Peñacerrada-Urizaharra, Lagrán, Leza, Navaridas, Samaniego, Eltziego, Eskuernaga, Mañueta, Kripan, Iekora, Moreda Araba; Bizkaiko udalerrien %26, besteak beste, Arrankudiaga, Zeberio, Zaratamo, Dima, Artea, Areatza, Morga, Meñaka, Maruri-Jatabe, Otxandio eta Ea; eta Gipuzkoako udalerrien %31 eta horien artetik aipa ditzakegu Gaintza, Abaltzisketa, Berastegi, Gaztelu, Alkiza, Albiztur, Beizama edo Zerain.
- Biktimizazio-tasa txikia duten udalerriak, 0,1 eta 14,9 artean daude eta guztiaren %6 dira, gutxi gorabehera; batez ere, Gipuzkoakoak dira (%10,2): Aretxabaleta, Mendaro, Aia, eta Idiazabal. Araban, berriz, ez dago biktimizazio-tasa hori duten udalerririk. Azkenik, Bizkaian (%5,3) hauek aipa ditzakegu: Gatika, Berango, Gordexola eta Orozko.
- Biktimizazio-tasa baxua duten udalerriak (15 eta 29,9 artekoak) EAEko udalerri guztien %20,3 dira, gutxi gorabehera. Horien artean, gutxi gorabehera, Arabako udalerrien %15,7 dago: Guardia, Oion, Arrazua-Ubarrundia, Kanpezu edo Dulantzi; Bizkaiko udalerrien %19, gutxi gorabehera; besteak beste: Zeanuri, Igorre, Ondarroa, Loiu, Amorebieta-Etxano, Barrika, Gorliz, Laukiz, Leioa, Galdames, Larrabetzu, Mundaka,

Ermua, Abadiño eta Elorrio; eta Gipuzkoako udalerrien %24, gutxi gorabehera, esaterako: Eibar, Bergara, Oñati, Azkoitia, Azpeitia, Oiartzun, Usurbil, Tolosa, Legazpi eta Hondarribia.

- Biktimizazio-tasa ertaina duten udalerriak, 30 eta 44,9 artekoak: talde honetan daude EAEko udalerrien %19,1, EAEko lurralde historikoetako hiru hiriburuak hartzen ditu eta lurraldez lurralde honela banatzen dira: Arabako udalerrien %19,6: Vitoria-Gasteiz, Gaubea, Lantziego, Agurain, Legutio, Audio, Zuia edo Aramaio; Bizkaiko udalerrien %18,7, besteak beste: Bilbao, Basauri, Galdakao, Getxo, Sondika eta Lemoa; eta Gipuzkoako udalerrien %19,3, esaterako, Donostia-San Sebastián, Hernani, Beasain, Deba, Elgoibar, Andoain edo Lizartza.
- Genero-indarkeriagatik biktimizazio-tasa altua duten udalerriak, 45 eta 59,9 arteko tasa dutenak; multzo honetan sartuta daude EAEko udalerri guztien %12,7. Horiek lurraldeen arabera bereiziz, banaketa hau izango litzateke: Arabako udalerrien %11,7, esaterako: Lantarón, Asparrena, Bastida eta Bilar; Bizkaiko udalerrien %16,1, besteak beste, Erandio, Bermeo, Balmaseda, Mungia, Bakio, Lezama eta Barakaldo; eta Gipuzkoako udalerrien %9,1, esaterako: Zumarraga, Zarautz, Errenteria, Irun, Pasaia edo Arrasate.
- Biktimizazio-tasa oso altua duten udalerriak (60 edo gehiago); horiek EAEko udalerri guztien %8,3 dira. Arabari dagokionez, multzo honetan %7,8 izango lirateke, gutxi gorabehera, zehazki: Lapuebla de Labarca, Kuartango, Harana eta Erribera Beitia. Bizkaian, udalerrien %8,9 dago biktimizazio-maila oso altua duen multzoan sartuta, besteak beste hauek aipa daitezke: Muskiz, Arantzazu, Durango, Mendieta, Ortuella, Artzentales, Sestao edo Sukarrieta. Eta Gipuzkoan, berriz, lurralde honetako udalerrien %8 ordezkatzeko du biktimizazio-tasa altua duen multzoa, besteak beste: Zegama, Astigarraga, Getaria eta Altzaga.

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila




Segidan, mapa bat ezarri da (3. irudia), eta, bertan ikus daiteke, EAEn, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak bereziki eragindako biktimizazioen udalerri-banaketa, hamar mila emakumeko biktimizazio-tasaren arabera.

Mapa honetan (3. irudia), EAEko udalerri-banaketa ikus daiteke, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktimizazio-tasaren arabera; sei udalerri-maila bereizi dira:

- Indarkeria mota berezi honen eraginez, biktimizaziorik gertatu ez den udalerriak: mapan zuriz adierazi dira, eta EAE osatzen duten udalerri guztien %38,2 dira. Multzo honetan, beraz, aurrez aipatutakoez gain (2. irudian ikus daitezkeenak) beste udalerriren batzuk ere aipa daitezke, esaterako: Araban Kripan; Bizkaian Kortezubi, Amoroto, Laukiz edo EA; eta Gipuzkoan Errezil, Berrobi eta Gaztelu. Gai honi dagokionez, azpimarratu behar da ez dela arraroa gun txikienetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak eragindako biktimizaziorik ez izatea edo biktimizazio-tasa baxuenak izatea; gun horietako asko, gainera, landa-eremuak dira (hurrengo lerroetan ikusiko dugu). Izan ere, udalerri horietan oztopo handiak egon daitezke indarkeria-mota horren biktimizazio baliabideak izateari dagokionez; halaber, “guztiak ezagunak izanik” maiz sortzen diren oztopo psikologikoak aipatu behar dira, horien eraginez zailagoa izan baitaiteke emakumeak indarkeria-egoera hori salatze edo egoera horrekin amaitzeko erabakia hartzea.
- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatik oso biktimizazio-tasa baxuko udalerriak, hau da, 0,1 eta 14,9 arteko tasa duten udalerriak dira, EAEko udalerri guztien %13,6, zehazki: Guardia, Aiara eta Aramaio, Araban; Gordexola, Gatika, Gorliz, Mundaka, Igorre, Berango, Lekeitio, Orozko, Etxebarri eta Miraballes, Bizkaian; Aretxabaleta, Oñati, Legazpi, Zegama, Idiazabal, Ataun, Mutriku, Mendaro eta Zumaia, Gipuzkoan.
- Biktimizazio-tasa baxuko udalerriak: 15 eta 29,9 arteko tasa dute, eta EAEko udalerri gehienak sartzen dira multzo honetan, %22,3 zehazki. Horien artean hauek daude: Araban Amurrio, Agurain, Oion, Gaubea, Dulantzi edo Zuia; Bizkaian Galdakao, Bilbao, Getxo, Larrabetzu, Sondika, Loiu edo Leioa; eta Gipuzkoan, Eibar, Bergara, Beasain, Tolosa, Oiartzun edo Hondarribia.
- Biktimizazio-tasa ertaineko udalerriak, 30 eta 44,9 arteko tasa dute, %16,7 sartzen da multzo honetan. Maila honetan sartzen dira, batzuk aipatu nahi izanez gero, biztanleria handiko udalerriak, Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián, Barakaldo edo Irun bezalakoak; bitxia bada ere, genero-indarkeriaren kontzeptu zabalaz, oro har, hitz egitean, hurrengo mailan zeuden udalerri horiek, biktimizazio-tasa altuko udalerrien mailan sartzen dira.

3. irudia. Bikotekideak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren biktimizazio-tasa (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila


- Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriagatik emakume-biktimizazioen tasa altua duten udalerriak, 45 eta 59,9 arteko tasa dute eta EAEko udalerri guztien % 4,8 osatzen duten; maila honetan hauek nabarmendu behar dira: Bilar, Urkabustaiz eta Asparrena, Araban; Muskiz, Ortuella, Berriz edo Bakio, Bizkaian; edo Arrasate, Astigarraga eta Aizarnazabal, Gipuzkoan.
- Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik emakume-biktimizazioaren tasa oso altua (60 edo gehiago) duten udalerriak: EAEko udalerri guztien % 4,4 dira. Azken maila honetan sartzen dira Armiñon, Harana eta Lapuebla de Labarca, Araban; Arantzazu, Artzentales, Mendata, Sukarrieta eta Zierbena, Bizkaian; eta Getaria, Altzaga eta Hernialde, Gipuzkoan.

Segidan, mapa bat ezarri da (4. irudia), eta, bertan, EAEn, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak bereziki eragindako biktimizazioen udalerri-banaketa ikus daiteke, hamar mila emakumeko biktimizazio-tasaren arabera.

Mapa honetan (4. irudia), EAEko udalerri-banaketa ikus daiteke, familia barruko (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu) genero-indarkeriaren biktimizazio-tasaren arabera; sei udalerri-maila bereizi dira:

- Indarkeria mota berezi honen eraginez, biktimizaziorik gertatu ez den udalerriak: mapan zuriz adierazi dira, eta EAE osatzen duten udalerri guztien % 57,6 dira. Horien artean hauek daude: Guardia, Zigoitia, Barrundia, Legutio, Lantarón edo Samaniego, Araban; Gordexola, Orozko, Abadiño, Atxondo, Bakio, Gatika edo Amoroto, Bizkaian; edo Getaria, Aretxabaleta, Idiazabal, Ataun, Gaintza edo Alkiza, Gipuzkoan.
- Familia barruko genero-indarkeriagatik biktimizazio-tasa oso baxuko udalerriak, hau da, 1 eta 9 arteko tasa duten udalerriak dira, EAEko udalerri guztien % 35,9, zehazki: Agurain, Kuartango, Amurrio, Audio, Alegría-Dulantzi edo Bastida, Araban; Balmaseda, Berango, Mungia, Igorre, Zaia, Bermeo edo Gorliz, Bizkaian; Zarautz, Hernani, Azkoitia, Azpeitia, Eibar, Bergara, Beasain edo Tolosa, Gipuzkoan.
- Biktimizazio-tasa txikiko udalerriak, 10 eta 19 artekoak, % 2,8 dira, hau da, EAEko zazpi udalerri dira: Erandio, Ortuella, Basauri, Galdakao, Durango, Pasaia eta Errenteria.
- Biktimizazio-tasa ertaineko udalerriak: 20 eta 29 arteko tasa dute eta EAEko udalerri guztien % 0,8 sartzen da multzo honetan, hau da bi udalerri: Santurtzi eta Sestao.
- Biktimizazio-tasa altua duten udalerriak, 30 eta 39 artekoak, udalerri guztien % 1,2 dira, hau da EAEko hiru udalerri hauek: Getxo, Irun eta Portugalete.
- Familia barruko indarkeriaren emakume-biktimizazioaren tasa oso altuko udalerriak (40 edo gehiago), % 1,6 dira eta lau hauek dira: Bilbao, Barakaldo, Vitoria-Gasteiz eta Donostia-San Sebastián; hots, hiru hiriburuak eta Barakaldo, EAEko gainerako udalerrien biztanle kopuru handiagoa duena.

4. irudia. Familia barruko indarkeriatik emakume-biktimizazioak (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu) (2010)



Iurria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila


Hurrengo mapan (5. irudia), EAEko udalerri-banaketa ikus daiteke, sexu-askatasunaren kontrako delituengatik biktimizazio-tasaren arabera; sei udalerri-maila bereizi dira:

- Indarkeria mota berezi honen eraginez, biktimizaziorik gertatu ez den udalerriak: mapan zuriz adierazi dira eta gehienak dira (% 77,3). Horien artean daude Amurrio, Zigoitia, Agurain, Barrundia eta Legutio, Araban; Balmaseda, Dima, Bakio, Erandio eta Ondarroa, Bizkaian; edo Zumarraga, Azkoitia, Azpeitia edo Usurbil, Gipuzkoan.
- Sexu-askatasunaren kontrako delituengatik biktimizazio-tasa oso baxuko udalerriak, hau da, 1 eta 2 arteko tasa duten udalerriak dira, EAEko udalerri guztien % 20,3, zehazki: Guardia, Laudio, Lantarón, Bastida edo Arrazua-Ubarrundia, Araban; Muskiz, Bermeo, Basauri, Galdakao, Gernika, Leioa edo Santurtzi, Bizkaian; Eibar, Bergara, Beasain, Tolosa, Zarautz, Hernani edo Errenteria, Gipuzkoan, esaterako.
- Biktimizazio-tasa baxuko udalerriak, 3 eta 4 artekoak, % 1,6 dira lau udalerri hauek: Donostia-San Sebastián, Durango, Barakaldo eta Getxo.
- Biktimizazio-tasa ertaineko udalerriak (5-6), ez dago maila honetan sartzen den udalerririk.
- Biktimizazio-tasa altua duten udalerriak, 7 eta 8 artekoak, udalerri guztien % 0,4 dira, hau da EAEko udalerri bakarra, Vitoria-Gasteiz.
- Oso biktimizazio-tasa altuko udalerriak (9 edo gehiago): Bilbao da hain tasa altua duen EAEko udalerri bakarra, EAEko udalerri guztien % 0,4.

Hurrengo lerroetan, hiru lurralde historikoetako bakoitza xeheago aztertuko dugu.

Bereziki Arabako lurralde historikoan oinarrituz (9. taula), azpimarratu behar da lurralde horretan gertatu diren biktimizazioen ea % 90 hiru udalerritara mugatzen direla: Vitoria-Gasteiz (% 79,6), Laudio (% 6,7) eta Amurrio (% 2), lurralde osoko biztanleria-bolumen handiena baitago.

5. irudia. Sexu-askatasunaren aurkako delituei dagozkien biktimizazioak (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

9. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak Arabako udalerrietan (2010)

UDALERRIA	EMAKUM- BIZTANLE	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.	BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.
ALEGRIA -DULATZI	1.319	2	15,16	1	-	3	22,74
AMURRIO	5.003	10	19,99	2	-	12	23,99
ARAMAIO	707	1	14,14	2	-	3	42,43
ARBIÑON	113	1	88,50	-	-	1	88,50
ARRAZUA-UBARRUNDIA	428	-	-	-	1	1	23,36
ARTZINIEGA	909	3	33,00	-	-	3	33,00
ASPARRENA	836	4	47,85	-	-	4	47,85
AYALA/AIARA	1.402	2	14,27	2	-	4	28,53
CAMPEZO/KANPEZU	537	-	-	1	-	1	18,62
ELBURGO/BURGELU	280	1	35,71	-	-	1	35,61
ELVILLAR	183	1	54,64	-	-	1	54,64
HARANA	123	1	81,3	-	-	1	81,30
IRUÑA OKA	1.444	3	20,78	-	-	3	20,78
IRUZAIZ-GAUNA	229	1	43,67	-	-	1	43,67
KOARTANGO	153	-	-	1	-	1	65,36
LABASTIDA	691	2	28,94	1	1	4	57,89
LAGUARDIA	734	1	13,62	-	1	2	27,25
LANCIEGO-LANTZEGO	321	-	-	-	1	1	31,15
LANTARÓN	427	1	23,42	-	1	2	46,84
LA PUEBLA DE LABARCA	421	6	142,52	-	-	6	142,00
LLAUDIO/LLODIO	9.297	31	33,34	9	1	41	44,10
LEGUTIANO	779	3	38,51	-	-	3	38,51
OYÓN-OION	1.591	4	25,14	-	-	4	25,14
RIBERA BAJA	601	2	33,28	1	1	4	66,56
SALVATIERRA/AGURAIN	2.397	7	29,20	2	-	9	37,55
URKABUSTAIZ	594	3	50,51	-	-	3	50,51
VALDEGOVÍA	500	1	20,00	1	-	2	40,00
VITORIA-GASTEIZ	120.593	378	31,35	81	28	487	40,38
ZUIA	1.162	2	17,21	2	-	4	34,42
GUZTIRA	159.030	471	29,62	106	35	612	38,48

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Bizkaian, biktimizazioak udalerrien arabera aztertuz (10. taula), hauek dira kopuru handiena duten Bizkaiko udalerriak: Bilbao (% 28,7), Barakaldo (% 12,3), Getxo (% 5,8) Portugalete, Santurtzi eta Sestao (azken hiru horietako bakoitzean, Bizkaiko genero-indarkeriatatik emakume-biktimizazio guztiaren % 4 baino apur bat gehiago izan da).

Beraz, Arabako lurralde historikoan gertatu bezala, eta logikoa nahiz espero izatekoa zenez, biztanle gehien dituzten Bizkaiko udalerriak dira indarkeria-mota horretako biktimizazio-kopuru handiena dutenak.

Estatistikako Institutu Nazionalen 2008ko urtarrilaren 1ean jasotako biztanleria-kopuruaren arabera, 10.000 emakumeren arabera tasak kalkulatu dira eta, tasa horiek oinarri hartuta, genero-indarkeriatik emakume-biktimizazioen kopurua aztertu da udalerriko emakume guztien kopuruarekiko; zehazki, udalerri hauetan daude tasa altuenak: Mendata, Sukarrieta, Turtzioz eta Zierbena.

Ikus daitekeen bezala, gehienak biztanle gutxiko udalerriak dira, eta, beraz, gogorarazi behar da ezaugarri hori kontu handiz interpretatu behar dela, udalerri horien neurri txikia izan baitaiteke tasa altua izateko arrazoia; izan ere, udalerri txikiak izatean, nahikoa da biktimizazio-kasu bat edo bi izatea bertako tasak gora egiteko.

10. taula. Genero-indarkeriatik emakume-biktimizazioak Bizkaiko udalerrietan (2010)

UDALERRIA	EMAKUM-BIZTANLE	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		BIKTIMIZAZIO-KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.	BIKTIMIZAZIO-KOPURUA	BIKTIMIZAZIO-KOPURUA	BIKTIMIZAZIO-KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.
ABADIÑO	3.657	7	19,14	-	-	7	19,14
ABANTO-ZIERBENA	4.901	22	44,89	5	1	28	57,13
AJANGIZ	225	-	-	1	-	1	44,44
ALONSOTEGI	1.434	4	27,89	-	-	4	27,89
AMOREBIETA-ETXANO	9.092	21	23,10	6	-	27	29,70
ARANTZAZU	165	1	60,61	-	-	1	60,61
ARRATZU	188	-	-	1	-	1	53,19
ARRIGORRIAGA	6.259	11	17,57	7	1	19	30,36
ARTZENTALES	322	2	62,11	-	-	2	62,11
ATXONDO	701	3	42,80	-	-	3	42,80
BAKIO	1.222	6	49,10	-	-	6	49,10
BALMASEDA	3.787	12	31,69	7	-	19	50,17
BARAKALDO	51.105	220	43,05	54	18	292	57,14
BARRIKA	747	2	26,77	-	-	2	26,77

.../...

UDALERRIA	EMAKUM-BIZTANLE	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.			BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.
BASAURI	21.681	66	30,44	19	4	89	41,05
BERANGO	3.454	3	8,69	1	-	4	11,58
BERMEO	8.649	31	35,84	8	2	41	47,40
BERRIZ	2.405	11	45,74	-	1	12	49,90
BILBAO	186.168	531	28,52	108	39	678	36,42
BUSTURIA	878	2	22,78	2	-	4	45,56
DERIO	2.744	7	25,51	1	2	10	36,44
DURANGO	14.398	47	32,64	16	10	73	50,70
ELORRIO	3.683	7	19,01	4	-	11	29,87
ERANDIO	12.340	55	44,57	11	-	66	53,48
ERMUA	8.041	13	16,17	6	-	19	23,63
ERRIGOITI	253	-	-	1	-	1	39,53
ETXEBARRI	4.786	6	12,54	8	-	14	29,25
GALDAKAO	14.809	42	28,36	10	3	55	37,14
GALDAMES	401	1	24,94	-	-	1	24,94
GAMIZ-FIKA	648	1	15,43	-	-	1	15,43
GATIKA	762	1	13,12	-	-	1	13,12
GAUTEGIZ ARTEAGA	428	1	23,36	2	-	3	70,09
GERNIKA-LUMO	8.407	32	38,06	8	1	41	48,77
GETXO	42.438	90	21,21	35	12	137	32,28
GORDEXOLA	873	1	11,45	-	-	1	11,45
GORLIZ	2.784	2	7,18	4	-	6	21,55
GUEÑES	3.291	11	33,42	3	-	14	42,54
IBARRANGELU	303	-	-	1	-	1	33,00
IGORRE	2.152	3	13,94	2	-	5	23,23
IURRETA	1.890	4	21,16	1	1	6	31,75
KARRANTZA HARANA	1.333	1	7,50	2	-	3	22,51
LARRABETZU	978	2	20,45	-	-	2	20,45
LAUKIZ	543	-	-	1	-	1	18,42
LEIOA	15.486	32	20,66	8	3	43	27,77
LEKEITIO	3.797	4	10,53	4	-	8	21,07
LEMOA	1.631	5	30,66	-	1	6	36,79
LEMOIZ	485	2	41,24	1	-	3	61,86
LEZAMA	1.255	-	-	5	1	6	47,81

UDALERRIA	EMAKUM- BIZTANLE	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.	BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.
LOIU	1.239	2	16,14	1	-	3	24,21
MALLABIA	583	1	17,15	-	-	1	17,15
MAÑARIA	236	1	42,37	-	-	1	42,37
MARKINA-XEMEIN	2.349	6	25,54	-	-	6	25,54
MENDATA	180	2	111,11	1	-	3	166,67
MENDEXA	208	-	-	1	-	1	48,08
MUNDAKA	985	1	10,15	-	-	1	10,15
MUNGIA	8.428	36	42,71	5	-	41	48,65
MUSKIZ	3.655	19	51,98	2	4	25	68,40
MUXIKA	712	2	28,09	2	-	4	56,18
ONDARROA	4.380	10	22,83	3	-	13	29,68
OROZKO	1.198	1	8,35	-	-	1	8,35
ORTUELLA	4.344	20	46,04	10	-	30	69,06
PLENTZIA	2.209	6	27,16	1	1	8	36,22
PORTUGALETE	24.808	67	27,01	32	2	101	40,71
SANTURTZI	24.175	86	35,57	27	1	114	47,16
SESTAO	15.024	78	51,92	20	2	100	66,56
SONDIKA	2.334	4	17,14	3	1	8	34,28
SOPELANA	6.343	15	23,65	5	-	20	31,53
SOPUERTA	1.258	2	15,90	1	1	4	31,80
SUKARRIETA	165	2	121,21	-	-	2	121,21
TRUCIOS-TURTZIOZ	264	1	37,88	2	-	3	113,64
UGAO-MIRABALLES	2.007	1	4,98	2	-	3	14,95
URDULIZ	1.720	5	29,07	1	1	7	40,70
URDUÑA	2.067	8	38,70	2	-	10	48,38
VALLE DE TRÁPAGA- TRAPAGARAN	6.260	32	51,12	2	2	36	57,51
ZALDIBAR	1.542	1	6,49	-	3	4	25,94
ZALLA	4.155	17	40,91	4	-	21	50,54
ZAMUDIO	1.602	5	31,21	2	-	7	43,70
ZEANURI	632	1	15,82	-	-	1	15,82
ZIERBENA	646	4	61,92	2	-	6	92,88
GUZTIRA	594.365	1.761	29,65	484	118	2.363	39,81

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Azkenik, Gipuzkoako lurralde historikoari dagokionez (11. taula), eta Araban nahiz Bizkaian gertatu bezala, biktimizazio-kopuru handieneko udalerriek dute biztanleria-dentsitate handiena; hau da, Donostia hiriburuak eta, atzetik, Irunek eta Errenteriak.

Bestalde, 10.000 emakumeren arabera tasari dagokionez, hauek dira tasarik altuena duten udalerriak: Altzaga, Hernialde eta Getaria; Aretxabaleta eta Idiazabalen, aldiz, daude tasarik baxuenak 10.000 emakumeko.

11. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak Gipuzkoako udalerrietan

UDALERRIA	EMAKUM-BIZTANLE	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		BIKTIMIZAZIO-KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.			BIKTIMIZAZIO-KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.
AIA	909	1	11,00	-	-	1	11,00
AIZARNAZABAL	335	2	59,70	-	-	2	59,70
ALEGIA	855	2	23,39	-	-	2	23,39
ALTZAGA	76	1	131,58	-	-	1	131,58
ANDOAIN	7.310	25	34,20	3	2	30	41,04
ANOETA	894	1	11,19	-	-	1	11,19
ARETXABALETA	3.282	3	9,14	-	-	3	9,14
ARRASATE/ MONDRAGÓN	11.078	55	49,65	9	1	65	58,67
ASTEASU	683	1	14,64	-	-	1	14,64
ASTIGARRAGA	2.297	11	47,89	3	-	14	60,95
ATAUN	783	1	12,77	-	-	1	12,77
AZKOITIA	5.640	8	14,18	2	-	10	17,73
AZPEITIA	7.121	7	9,83	7	-	14	19,66
BEASAIN	6.779	15	22,13	7	1	23	33,93
BERGARA	7.364	13	17,65	6	2	21	28,52
DEBA	2.674	8	29,92	2	-	10	37,40
DONOSTIA- SAN SEBASTIÁN	98.463	298	30,27	60	14	372	37,78
EIBAR	14.099	23	16,31	5	1	29	20,57
ELGETA	527	2	37,95	-	-	2	37,95
ELGOIBAR	5.667	15	26,47	6	2	23	40,59
ERRETERIA	19.951	74	37,09	15	3	92	46,11
ESKORIATZA	1.981	-	-	2	1	3	15,14
EZKIO-ITSASO	293	1	34,13	-	-	1	34,13
GETARIA	1.335	13	97,38	-	-	13	97,38
HERNANI	9.795	28	28,59	8	1	37	37,77
HERNIALDE	162	1	61,73	-	1	2	123,46

UDALERRIA	EMAKUM- BIZTANLE	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.	BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	BIKTIMIZAZIO- KOPURUA	TASA, 10.000 EMAKUM.
HONDARRIBIA	8.204	18	21,94	5	1	24	29,25
IBARRA	2.096	4	19,08	2	-	6	28,63
IDIAZABAL	1.115	1	8,97	-	-	1	8,97
IRUN	31.134	125	40,15	35	6	166	53,32
ITSASONDO	333	1	30,03	-	-	1	30,03
LASARTE-ORIA	9.034	30	33,21	3	3	36	39,85
LAZKAO	2.607	6	23,01	2	-	8	30,69
LEGAZPI	4.222	6	14,21	2	-	8	18,95
LEGORRETA	729	1	13,72	-	-	1	13,72
LEZO	3.008	8	26,60	4	1	13	43,22
LIZARTZA	307	1	32,57	-	-	1	32,57
MENDARO	916	1	10,92	-	-	1	10,92
MUTRIKU	2.492	3	12,04	3	-	6	24,08
OIARTZUN	4.956	8	16,14	1	2	11	22,20
OLABERRIA	459	2	43,57	-	-	2	43,57
OÑATI	5.497	7	12,73	2	-	9	16,37
ORDIZIA	4.900	11	22,45	1	2	14	28,57
ORIO	2.540	8	31,50	1	1	10	39,37
ORMAIZTEGI	638	1	15,67	-	-	1	15,67
PASAIA	8.287	31	37,41	12	3	46	55,51
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	1.994	7	35,11	2	-	9	45,14
TOLOSA	9.375	23	24,53	3	1	27	28,80
URNIETA	3.045	12	39,41	-	1	13	42,69
URRETXU	3.460	4	11,56	2	-	6	17,34
USURBIL	2.933	6	20,46	2	-	8	27,28
VILLABONA	2.874	4	13,92	-	2	6	20,88
ZALDIBIA	702	2	28,49	-	-	2	28,49
ZARAUTZ	11.521	38	32,98	8	6	52	45,13
ZEGAMA	736	1	13,59	4	-	5	67,93
ZESTOA	1.688	2	11,85	2	-	4	23,70
ZIZURKIL	1.365	2	14,65	-	-	2	14,65
ZUMAIA	4.689	6	12,80	5	-	11	23,46
ZUMARRAGA	5.029	16	31,82	8	-	24	47,72
GUZTIRA	360.236	1.005	27,90	244	58	1.307	36,28


Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

2.2.4. Denbora-ezaugarriak

Atal honetan, urteko hilen, asteko egunen eta eguneko orduen arabera biktimizazioetan izaten diren desberdintasunei egingo diegu erreferentzia.

Hilabeteari dagokionez, 3. grafikoak ondorioztatzen duenez, biktimizazio-kopuru handiena udaldian (ekaina eta uztaila) izaten da, eta horien atzetik urria, abendua eta urtarrila; beraz, biktimizazio gehiago dago oporrak izaten diren hiletan (uda eta Gabonak). Datu hori askoz handiagoa da, nabarmenki, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria kasuetan, hain zuzen; izan ere, hilabete horietan biktimak eta erasotzaileak denbora gehiago eta biziago pasatzen dute elkarrekin bizitzen, familia eta gizartearen ekintzengatik.

3. grafikoa. Genero-indarkeriagatik emakume-biktimizazioak, EAEn, hilaren arabera (2010)




Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Joera bera hauteman da asteko egunei dagokienez ere (4. grafikoa), asteburuetan (larunbatak eta igandeak) indarkeria-kasu gehiago gertatu baitira; izan ere, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuei dagokienez, egun horietan bizikidetza indartsuagoa eta ohikoagoa izaten da.

Halaber, nabarmena da asteburuetan sexu-indarkeria gehiago dagoela, aisialdiaz hobeto gozatzearekin erlazioa duena.


4. grafikoa. Genero-indarkeriak eragindako emakume-biktimizazioak EAEn, asteko egunaren arabera (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Berriz ere, biktimizazio-indize handiena duten eguneko orduak (5. grafikoa) bat datoz erasotzaileak eta emakumeak aisialdiaz gozatzeke dituzten orduekin, hau da 19:00etatik 23:00etara.

5. grafikoa. Genero-indarkeriak eragindako emakume-biktimizazioak, EAEn, eguneko orduen arabera (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Datu horiek kontuan hartuta, kausalitate-lotura ezar dezakegu genero-indarkeria jasateko aukeraren (bereziki, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa) eta erasoak gertatzen den eguneko orduaren, asteko egunaren edota urteko hilaren artean: oporraldietan, asteburuetan eta egunaren azken orduetan. Sexu-askatasunaren aurkako delituak egunaren eta gauaren edozein ordutan gerta daitezke, nabarmenenak 5:00etan eta 19:00etan badira ere.

2.2.5. Ezaugarri sozio-demografikoak

2.2.5.1. Biktimak

a) Adinaren arabera

Beheko taulak jasotzen du (12. taula, 4 azpitaulatan banatuta), biktimizazio-kopurua eta genero-indarkeria sufritzen duten emakumeen kopurua, betiere genero-indarkeriaren hiru adierazpenen eta hiru Lurralde Historikoen artean bereizketa eginez.

12. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak eta biktimak EAEn, adin-taldean, motaren eta lurralde historikoen arabera (2010)

BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA

ADINA	LURRALDE HISTORIKOA							
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.
<18	8	4	28	22	14	11	50	37
18-30	166	140	554	456	339	287	1.059	883
31-40	175	146	638	485	366	266	1.179	897
41-50	95	75	393	293	214	165	702	533
51-60	20	18	94	78	48	43	162	139
>60	6	6	51	45	21	17	78	68
EZEZAGUNA	1	1	4	4	3	3	8	8
GUZTIRA	471	390	1.762	1.383	1.005	792	3.238	2.565

FAMILIA BARRUKO GENERO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA SALBU)

ADINA	LURRALDE HISTORIKOA							
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.
<18	18	17	69	65	48	48	135	130
18-30	16	15	58	54	35	34	109	103
31-40	19	15	58	52	27	25	104	92
41-50	20	16	109	86	49	46	178	148
51-60	11	10	81	66	39	33	131	109
>60	22	20	108	89	45	38	175	147
EZEZAGUNA	-	-	2	2	1	1	3	3
GUZTIRA	106	93	485	414	244	225	835	732

SEXU ASKATASUNA

ADINA	LURRALDE HISTORIKOA							
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.
<18	8	8	39	39	20	20	67	67
18-30	14	14	45	44	25	25	84	83
31-40	10	10	15	15	6	6	31	31
41-50	1	1	10	9	5	5	16	15
51-60	1	1	8	8	2	2	11	11
>60	1	1	1	1	-	-	2	2
EZEZAGUNA	-	-	1	1	-	-	1	1
GUZTIRA	35	35	119	117	58	58	212	210

GUZTIRA

ADINA	LURRALDE HISTORIKOA							
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.	BIKTIMIZ.	EMAKUM.
<18	34	29	136	126	82	79	252	234
18-30	196	169	657	554	399	346	1.252	1.069
31-40	204	171	711	552	399	297	1.314	1.020
41-50	116	92	512	388	268	216	896	696
51-60	32	29	183	152	89	78	304	259
>60	29	27	160	135	66	55	255	217
EZEZAGUNA	1	1	7	7	4	4	12	12
GUZTIRA	612	518	2.366	1.914	1.307	1.075	4.285	3.507

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Horri dagokionez, esan daiteke biktimen adin-taldeak aldatu egiten direla erreferentzia egiten diogun genero-indarkeriaren adierazpenaren arabera.


Hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaz hitz egiten dugunean (6. grafkkoa), biktima eta biktimizazio kopuru handiena dago 18-40 urteen artean, hots, biktimen %69,4.

Familia barruko indarkeriari dagokionez, adinean ea ez dago ezberdintasunik, nahiz eta 41 eta 50 urte arteko eta 60 urte baino gehiagoko adin tarteetan pixka bat handiagoa izan, bai biktimaz bai biktimizazioaz hitz eginez gero.

Bukatzeko, sexu-askatasunaren kontrako delituei dagokionez eta datuek islatzen dutenez, sexu-askatasunaren kontrako delituen hamar emakume-biktimetatik zazpi 30 urte baino gutxiagokoak dira.

Hiru lurrealde historikoetan mantentzen da joera bera, adin-tarteari dagokionez.


6. grafikoa: Bikotekideak edo bikotekide ohiak EAEn eragindako indarkeriaren biktimizazioak eta biktimak, biktimaren adin-taldearen arabera



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Familia barruko genero-indarkeriaren dagokionez, emakumeak nahiko modu paretsuan banatu dira adin-talde desberdinen artean; hala ikus daiteke 7. grafikoan. Dena den, biktima-kopuru handiagoa hautematen da 41-50 urteko adin-taldean (%20,21) eta 2 adin-talde muturrenekoetan eta ahulenetan: 18 urtez azpikoa eta 60 urtetik gorakoa (% 17,8 eta % 20,1, hurrenez hurren).

7. grafikoa. Familia barruko indarkeriak EAEn eragindako biktimizazioak eta biktimak, biktimaren adin-taldearen arabera (2010)




Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Amaitzeko, sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokienez, 8. grafikoan ikus dezakegu emakumeak zenbat eta gazteago izan orduan eta aukera gehiago dituztela era horretako erasoak jasateko.

Zehazki, 2010eko datuei dagokienez, adin-talde guztien ehunekoez erakusten dute biktimen ea % 72 30 urtetik beherako emakumeak direla (% 32 18tik beherakoak eta % 39,5 18-30 urtekoak). Gainerako % 28 gutxituz doa, poliki-poliki, adinak aurrera egin ahala.

8. grafikoa. Sexu-askatasunaren aurkako delituek EAEn eragindako biktimizazioak eta biktimak, biktimaren adin-taldearen arabera (2010)




Iturria: Azterketa Arloa; KBTZ. Herrizaingo Saila

b) Jaioterriaren arabera

Segidan, genero-indarkeriatik emakume-biktimizazioen eta biktimen taula ezarri da biktimen jaioterriaren arabera (13. taula), eta horiek indarkeria-motaren/moduaren eta lurralde historikoen arabera bereizi dira; horrez gain, taula hori laburtzen duen grafikoa erantsi da (9. grafikoa).

9. grafikoan ikus daitekeenez, EAEko genero-indarkeriaren biktimen %33,45 atzerrian jaio diren emakumeei dagokie, gainerako %66,55 Espainian jaio da eta, zehazki, %52,1 EAEn, honela banatuta: Bizkaia (%31), Gipuzkoa (%15,5) eta Araba (%5,6).

9. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko biktimizazioak eta biktimak EAEn, biktimaren jaioterriaren arabera (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Jatorria eta jasandako indarkeria-mota (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa, familia barrukoa eta sexu-askatasunaren aurkakoa) aintzat hartuta, zenbait desberdintasun hauteman dira. Hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria espezifikoan, biktimizazioen %39,22, gutxi gorabehera, atzerrian jaiotako emakumeei dagokie (2009. urtean, berriz, %38, beraz hazkuntza txikia antzematen da); ehuneko hori %16,8ra jaitsi da familia barruko biktimei dagokienez (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak salbu), eta, sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokienez, berriz, %22,38ra igo da kopurua berriro, 2009ko joera mantenduz.

13. taula. Genero-indarkeriatiko emakume-biktimizazioak eta biktimak EAEn, motaren, lurralde historikoaren eta biktimen jaioterriaren arabera (2010)

JAIOTERRIA	BIKOTEKIDEA/ BI-KOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA		SEXU ASKATASUNA		GUZTIRA	
	Biktimiz.	Emak.	Biktimiz. Emakum.	Biktimiz. Emakum.	Biktimiz.	Emak	Victimizac.	Mujeres
EAE	1.675	1.250	507	435	145	143	2.327	1.828
Araba	171	139	48	42	15	15	234	196
Bizkaia	987	721	322	279	88	86	1397	1086
Gipuzkoa	517	390	137	114	42	42	696	546
BESTE AAEE	379	309	200	174	19	19	598	502
EAE + beste AAEE	2.054	1.559	707	609	164	162	2.925	2.330
ATZERRIA	1.182	1.004	127	122	47	47	1.356	1.173
EUROPA	205	166	36	36	6	6	247	208
EB 27	175	142	32	32	6	6	213	180
Alemania	4	3	1	1	-	-	5	4
Belgika	1	1	-	-	1	1	2	2
Bulgaria	2	2	-	-	-	-	2	2
Frantzia	11	10	1	1	-	-	12	11
Italia	-	-	1	1	-	-	1	1
Letonia	-	-	-	-	1	1	1	1
Lituania	1	1	-	-	-	-	1	1
Herbehereak	2	2	-	-	1	1	3	3
Polonia	2	2	-	-	-	-	2	2
Portugal	35	24	10	10	1	1	46	35
Erresuma Batua	3	2	-	-	-	-	3	2
Txekiar Errepublika	3	3	-	-	-	-	3	3
Errumania	111	92	19	19	2	2	132	113
EUROPAKO BESTE BATZUK	30	24	4	4	-	-	34	28
Bielorrusia	1	1	-	-	-	-	1	1
Moldavia	4	3	1	1	-	-	5	4
Errusia	8	6	2	2	-	-	10	8
Suitza	1	1	-	-	-	-	1	1
Ukraina	16	13	1	1	-	-	17	14
AFRIKA	165	136	15	15	5	5	185	156
MAGREB	91	73	11	11	2	2	104	86
Aljeria	8	8	-	-	-	-	8	8
Maroko	82	64	11	11	2	2	95	77
Tunisia	1	1	-	-	-	-	1	1

	BIKOTEKIDEA/ BI-KOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA		SEXU ASKATASUNA		GUZTIRA	
JAIO TERRIA	Biktimiz.	Emak.	Biktimiz. Emakum.	Biktimiz. Emakum.	Biktimiz.	Emak	Victimizac.	Mujeres
AFRIKAKO GAINERAKOAK	74	63	4	4	3	3	81	70
Angola	3	2	-	-	-	-	3	2
Kamerun	7	7	-	-	1	1	8	8
Boli Kosta	3	3	-	-	-	-	3	3
Ghana	1	1	-	-	-	-	1	1
Ginea Bissau	2	2	-	-	-	-	2	2
Ekuatore Ginea	30	24	2	2	-	-	32	26
Mali	-	-	1	1	-	-	1	1
Mozambique	1	1	1	1	-	-	2	2
Nigeria	26	22	-	-	2	2	28	24
Sudan	1	1	-	-	-	-	1	1
AMERIKA	769	666	73	68	36	36	878	770
LATINOAMERIKA	769	666	73	68	35	35	877	769
Argentina	23	21	4	3	1	1	28	25
Bolivia	183	156	7	7	5	5	195	168
Brasil	128	108	14	13	6	6	148	127
Txile	8	8	-	-	-	-	8	8
Kolonbia	134	122	19	17	9	9	162	148
Kuba	20	17	1	1	1	1	22	19
Ekuador	84	78	9	9	5	5	98	92
El Salvador	2	1	-	-	-	-	2	1
Guatemala	1	1	-	-	1	1	2	2
Haiti	1	1	-	-	-	-	1	1
Honduras	20	15	-	-	-	-	20	16
Mexiko	2	2	-	-	1	1	3	3
Nikaragua	20	20	2	2	2	2	24	24
Panama	-	-	-	-	1	1	1	1
Paraguai	57	46	2	2	2	2	61	50
Peru	31	24	6	6	1	1	38	31
Dominikar Errepublikak	26	24	5	5	-	-	31	29
Uruguai	6	3	-	-	-	-	6	3
Venezuela	23	18	4	3	-	-	27	21
AEB eta KANADA	-	-	-	-	1	1	1	1
Estatu Batuak	-	-	-	-	1	1	1	1

JAIOTERRIA	BIKOTEKIDEA/ BI-KOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA		SEXU ASKATASUNA		GUZTIRA	
	Biktimiz.	Emak.	Biktimiz. Emakum.	Biktimiz. Emakum.	Biktimiz.	Emak.	Victimizac.	Mujeres
ASIA	16	15	1	1	-	-	17	16
Armenia	1	1	-	-	-	-	1	1
Txina	5	5	-	-	-	-	5	5
Filipinak	1	1	-	-	-	-	1	1
Georgia	2	2	-	-	-	-	2	2
Mongolia	3	3	-	-	-	-	3	3
Pakistan	4	3	-	-	-	-	4	3
Hego Korea	-	-	1	1	-	-	1	1
OZEANIA	1	1	-	-	-	-	1	1
Australia	1	1	-	-	-	-	1	1
ZEHAZTU GABEKO ATZERRITARRA	26	20	2	2	-	-	28	22
EZEZAGUNA	2	2	1	1	1	1	4	4
GUZTIRA	3.238	2.565	835	732	212	210	4.285	3.507

Iturria: Azterketa Arloa; KBTZ. Herrizaingo Saila

Atzerrian jaiotako emakumeen taldean, ea %70 (%65,4) latinoamerikar jatorriko emakumeak dira, Boliviakoak, Brasilekoak eta Kolonbiakoak, batez ere. Bigarren talde handiena Europatik etorritako emakumeek osatzen dute (%17,7), gehienak errumaniarrak dira; horien atzetik, Afrikatik etorritakoak (%13,3), nagusiki, Magrebeko herrialdeetatik (Maroko, Kamerun eta Aljeriatik) eta Ekuatore Ginea eta Nigeriatik. Kide gutxien duen kontinentea Asia da (%1,4).

Azpirarratzekoa da biktimen jatorriak ez duela eragiten biktimizazio eta biktimen arteko harremana; izan ere, zenbatekoen ratioak oso antzekoak baitira bertako eta atzerriko emakumeen artean. Are gehiago, baieztatu dezakegu biktimizazio-kopurua dela biktimak baino %8,2 gehiago, Asiako kontinentean jaiotako emakumeak salbu, non biktimizazio eta biktimen datuak antzekoak baitira bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuetan. Aipatzekoa da emakume-talde honetan ez dagoela beste indarkeria mota bati buruzko daturik.

2.2.5.2. Erasotzaileak


Atal honetan, genero-indarkeriazko ekintzak burutzeagatik Ertzaintzak identifikatutako eta polizia-dokumentuetan erregistratutako erasotzaile guztiak jaso dira. Delitu-tipologia desberdinen artean homogeneouski banatutako ehunekoa dago eta bertan ezin izan dira berreskuratu, estatistikoki, erasotzailearen datuak. Dena den, horrek ez lioke garrantzirik kendu behar adinari buruzko datu fidagarriak izateak duen balio erantsi handiari.

a) Adinaren arabera

Emakumeen kasuetan gertatu bezala, erasotzaile eta eraso gehienak ere bi adin-talde gazteenetan sartu dira: 31-40 urteko taldea (%34) eta 18-30 urtekoa (%26,63); eta adinaren kopurua murriztuz doa aipatutakoaren azpitik eta gainetik (10. grafikoa).

Joera mantendu egin da 2009. urtearen aldera.

10. grafikoa. Genero-indarkeriaren erasoaldiak eta erasotzaileak, EAEn, erasotzailearen adin-taldearen arabera (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Edonolako indarkeria-motaren arabera aldaketak izateari dagokionez, zenbait desberdintasun hauteman dira, hurrengo orrietan dauden grafikoetan ikus daitekeen bezala (11., 12. eta 13. grafikoak); hau da:


- Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriari dagokionez, gizon gehien bildu dituen adin-taldea 31-40 urtekoa da (%37); sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokienez, berriz, 18-30 urteko taldean dago erasotzaile gehien (%37), eta erasotzaileen %22k 31-40 urte ditu. Familia barruko genero-indarkeria kasuetan, bi adin-talde horiek dira ugariak; biek dute erasotzaileen ehuneko bera, adin-talde bakoitzean indarkeria-mota horretako erasotzaileen %28 eta %25,4 baitago, hurrenez hurren, 18-30 eta 31-40 adin-tarteetan.
- Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria kasuetan, 18 urtez beherako erasotzaileen ehunekoa txikiagoa da (%0,4) erasotzaileena baino familia barruko

indarkeria-kasuetan (%9) edota sexu-askatasunaren (%7) aurkako delituak baino. Ehuneko bi horiek hazkunde txikia izan dute, 2009. urtearen aldera.

- Halaber, 60 urtetik gorako erasotzaileen artean, aldea aurki dezakegu, ehuneko hori txikiagoa baita bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriazko gertaeretan (%4), aurreko urtearen aldera pixka bat igo dena. Familia-barruko genero-indarkeria kasuak %5 dira, 2009. urtearen aldera arin murriztu dena (%8); azken batean, sexu-askatasunaren aurkako delituen kasuetan, 60 urte baino gehiagoko adin-tarteko erasotzaileen ehunekoa %6 da, iaz baino zerbait gehiago (%5).


Azpinarratzekoa da, 13. grafikoari dagokionez, sexu-askatasunaren aurkako erasoaldi asko dagoela; izan ere, erasotzailea ezezaguna denez, ezin baitzaio kokatu dagokion adin-tartean.

11. grafikoa. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik emakumeen erasoaldiak eta erasotzaileak, EAEn, erasotzailearen adin-taldean arabera (2010)




Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

12. grafikoa. Familia barruko indarkeriatik emakumeen erasoaldiak eta erasotzaileak, EAEn, erasotzailearen adin-taldearen arabera (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

13. grafikoa. Sexu-askatasunaren aurkako delituengatik emakumeen erasoaldiak eta erasotzaileak, EAEn, erasotzailearen adin-taldearen arabera (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

14. taula. Genero-indarkeriaren erasoaldiak eta erasotzaileak, gertaeren lurraldearen arabera (2010)

ADINA	LURRALDE HISTORIKOA							
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	ERASOAK	ERASOTZAIL.	ERASOAK	ERASOTZAIL.	ERASOAK	ERASOTZAIL.	ERASOAK	ERASOTZ.
<18	19	17	50	37	41	29	110	83
18-30	181	141	610	482	348	279	1.139	902
31-40	209	180	792	617	457	355	1.458	1.152
41-50	145	112	577	444	298	245	1.020	801
51-60	38	35	204	166	113	85	355	286
>60	18	15	103	93	43	37	164	145
EZEZ.	11	2	52	10	24	6	87	18
GUZTIRA	621	502	2.388	1.849	1.324	1.036	4.333	3.387

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Lurralde Historikoari (14. taula) dagokionez, Bizkaiak erasoaldi eta erasotzaile gehiago ditu, Arabak eta Gipuzkoak baino, lurralde bakoitzaren biztanleria kontuan hartu behar bada ere.

Hiru lurraldeetako erasotzaileen adin-tartea ez da aldatzen nabarmenki. Hala ere, harritu egiten du erasotzaileen ea %30 hogeita hamar urte beherakoak direla. Horrek agerian uzten du testuinguru demokratikoan hazi direla, baina indarkeria sinbolikoa eta egiturazkoa duena. Are gehiago, datuek adierazten dutenez, gazte horiek, aurreko belaunaldiek bezala, harreman-patroi sexistek gidatuta jarduten dute, nahitaez indarkeria dakarrena, ea.

2.2.6. Salaketak eta salatzaileak

16. taulak erakusten du salaketak eta salatzaileen arteko aldea nabarmena dela, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkerian; Bizkaia da aldea handiagoa duen lurraldea. Horrek esan nahi du emakume berak salaketa bat baino gehiago jar dezakeela.

Bestalde, familia barruko genero-indarkeria kasuan (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu) salaketen eta salatzaileen arteko aldea txikiagoa da eta, berriz ere, Bizkaia da alde handiena duen lurraldea.

Sexu-askatasunaren kasuan, salatzaileen eta salaketen kopurua bat datozela espero da, bai Araban bai Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, 2 kasuen aldea dago.

15. taula. Genero-indarkeriaren salaketak eta salatzaileak, lurraldearen arabera (2010)

	LURRALDE HISTORIKOA							
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	Salaketak	Emakume salatzaileak	Salaketak	Emakume salatzaileak	Salaketak	Emakume salatzaileak	Salaketak	Emakume salatzaileak
Bikotekideak / bikotekide ohiak egindako indarkeria	336	272	1.212	918	665	513	2.213	1.703
Familia barruko indarkeria	79	71	325	285	171	159	575	515
Sexu-askatasunaren aurkako delituak	35	35	108	106	53	53	196	194
GUZTIRA	450	378	1.645	1.309	889	725	2.984	2.412

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Lurralde historikoa kontuan hartu gabe, aipatzekoa da, salaketa gehiago dagoela salatzen duten emakumeak baino gehiago, batez ere bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriari dagokionez. Sexu-askatasunaren kontrako eta familia barruko genero-indarkeriaren delituen kasuan, salaketen eta salatzaileen arteko aldea oso txikia da, baina horrek ez du esan nahi delitu horiek ez daudenik, baizik eta, ziur asko, icebergaren tontorraren fenomenoaren ondorioz.

Datuen mapak adierazten duenez, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria salatzen da gehiago genero-indarkeriaren gainontzeko adierazpenak baino. Modu askotara azal daiteke, batetik, komunikabideek hornitzen dute genero-indarkeria = bikotekidea edo bikotekide ohi izeneko binomioa eta, beraz, emakumeek argiago aitortzen dute bere egoera eta salatzen dute. Eta, bestetik, familia barruan eragindako indarkeria ikusezin mantentzen da, jasaten duten emakumeek zailago identifikatzea baitakar, horregatik biktima horien salaketa gutxiago dago. Gainera, lotsa, beldurra, errua, ... bezalako emozio-faktoreek zailago egiten dute emakumeek salaketa aurkeztea, erasotzaileak familia barrukoak baitira.

Salaketek laguntzen dute genero-indarkeriaren errealitate gordina ikusten. Beraz, funtsezkoa da emakumeak sentibilizatzea, salaketa aurkez dezaten, baina estrategia zein izan daiteke? Emakumearen gaineko Munduko IV. Konferentzia izan zenetik (Beijing, 1995), ahalduztzea bihurtzen da tresnarik eraginkorrena emakumeen kontrako indarkerian laguntzen duten egitura-patroiak apurtzeko. Horren ondorioz, salaketa gehiago aurkeztuko lirarteke eta horrek zehatz-mehatz islatuko luke orain ikusezina den errealitatea (familia barruko genero-indarkeria, sexu-askatasunaren aurkako hainbat delitu, etab.).

2.2.7. Babes-aginduak

2.2.7.1. Eskatutako babes-aginduak

Epigrafe honen baitan, Ertzaintzak epaitegietara bidalitako babes-agindu guztiei buruzko informazioa jaso da.

16. taulan, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eskatutako babes-aginduen kopurua zehaztu da, erasotzailearekiko harremanaren eta lurralde historikoen arabera.

16. taula. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eskatutako babes-aginduak, erasotzailearekiko harremanaren eta gertaeren lurraldearen arabera (2010)

ERASOTZAILEAREKIKO HARREMANA	LURRALDE HISTORIKOA			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	199	604	325	1.128
Ezkontideak	53	193	109	355
Ezkontide ohiak	22	62	43	127
Neska-laguna / bikotekidea	55	158	79	292
Neska-lagun ohia / bikotekide ohia	65	175	85	325
Emaztegaia	-	7	5	12
Emaztegai ohia	4	9	4	17
Familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)	14	81	36	131
Alaba adingabea	-	8	7	15
Ama	9	58	19	86
Gainerako senideak	5	15	10	30
Sexu askatasuna	-	-	1	1
Bestelako harremana	-	-	1	1
GUZTIRA	213	685	362	1.260

Oharra: Abenduaren 31n, urtean eskatutako babes-agindu guztietatik %57,2 eman ziren

Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Taula honetan ikus daitekeen bezala, Bizkaian eskatu dira babes-agindu gehien (%54), baina kontuan izan behar da lurralde horretako biztanleria-kopuru orokorra ere nabarmen handiagoa dela. Bizkaiaren atzetik Gipuzkoa dago, babes-aginduen % 29 baitu eta Arabak % 17.

Indarkeria-mota aztertuz gero, nabarmendu behar da babes-aginduen %89,5 eskatu direla bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-egoera baten ondorioz (2009

urteari dagokionez, 3 puntu baino zerbait gehiago igo da); eskaeren gainerako % 10,4 familia barruko indarkeria-egoeren ondorio izan dira. Hots, babes-agindu guztien erdia baino gehiago oraindik (%58,4) erasotzailearen bikotekide diren emakumeek eskatu dituzte (ezkontidea, neska-laguna/bikotekidea), eta % 41,6 beren bikotekide ohientzat eskatu dituzte emakumeek (ezkontide ohiak, neska-lagun ohiak edo emaztegai ohiak).


2.2.7.2. Epaitegiek emandako babes-aginduak

Atal honetan, epaitegiek emandako eta Ertzaintzan jasotako babes-agindu guztiak kontatu dira; beraz, Ertzaintzak izapidetutako aginduez gain, udaltzainek izapidetutakoak eta epaitegietan eskatutakoak ere sartu dira.

Dena den, ez dira kontuan hartu neurri zibilak soilik dituzten babes-aginduak, ez eta arma-debekuaren neurria soilik duten babes-aginduak ere, azken hori Guardia Zibilaren eskumenekoa baita. Neurri penalak dituzten gainerako babes-agindu guztiak jaso dira (komunikazio-debekua, hurbiltze-debekua...).

Guztira, 2010ean, 1.745 babes-agindu eman ziren, hau da, 2009an baino 305 gutxiago; honela banatu dira geografiari dagokionez (14. grafikoa): erdia Bizkaian eman da (% 48) eta gainerakoa Gipuzkoan (% 30) eta Araban (% 15); beraz, emakumeek eskatutako babes-aginduen araberakoak izan dira.

14. grafikoa. Genero-indarkeriagatik epaitegiek emandako babes-aginduak, lurralde historikoen arabera (2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

2.2.8. Beste datu batzuk

2.2.8.1. EAEn eskoltatutako emakumeak, 2010ean

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimak eskoltatzeko zerbitzua 2004ko azaroaren 29an jarri zen abian, eta Ertzaintzak kudeatzen du.

2010eko abenduaren 31n, hemeretzi emakumek zuten etengabeko zaintza, eskolten bidez, haien babesak bermatzeko, honela banatuta: Araba hiru, Bizkaia hamabi eta Gipuzkoa lau.

2010. urtean zehar, hogeita hamasei emakumek, guztira, eskolta eramanez inoiz.

2009. urtearekin konparatuz gero, urte horren bukaeran, guztira, eskolta zeramatenez hamalau emakume zeuden: bederatzi Gipuzkoan eta bost Bizkaian. 2009. urtean zehar, 26 emakumek eramanez zuten eskolta, inoiz.

2.2.8.2. Eskumuturreko bilatzaileak

GPS sistema zuten erasotzaile eta biktimen kopurua, 2010eko abenduaren 31n, hamar zen (eskumuturreko bilatzaileak) eta honela zeuden banatuta lurraldeen arabera: Bizkaia zortzi eta Gipuzkoa bi.

2.2.8.3. Sakelako telefonoak

Guztira, ehun eta hogeita sei emakumek zuten, 2010eko abenduaren 31n, Ertzaintzak emandako babes-telefono mugikorra (Bortxa telefonona) eta honela zeuden banatuta: Araban hogeita hamaika bizi ziren, Bizkaian hirurogeita hamalau eta Gipuzkoan hirurogeita bat.

2.2.8.4. El/GI espedienteak

Epigrafe honen baitan jasotzen ditugu genero-indarkeriari buruzko espediente-kopurua nahiz espediente horietan agertzen diren emakume biktimen kopurua.

“Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espedienteak” izendatutako aplikazio informatikoa ezarri zen, 2005. urtean, “etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren gertaeretan Ertzaintzak egiten dituen jardueren kalitatearen kudeaketa-sistema” burutzeko funtsezko tresnatzat.

Aplikazio horretan, hain zuzen, genero-indarkeriaren biktimei babes osoa emateko ezinbestekoak diren datu polizialak jasotzen dira. Aplikazio dinamiko eta bizia da, helburua gauzatzeko beharrezko bizkortasuna eta malgutasuna dituen.

Hori dela-eta, aplikazio horren bidez lortutako datu estatistikoetatik ateratako ondorioak zuhurtziaz erabili behar dira, horien balio ukaezina ahaztu gabe; aurreko adierazle-zerrendaren osagarritzat aztertu behar dira.

Zehazki, 2010ean, etxeko eta genero-indarkeriaren 3.071 espediente ireki dira, hain zuzen 2.928 emakumeri. Lehengo 2.928 emakume horietatik, 2.738 sartu dira lehenengoz sisteman.

Abenduaren 31n, 4.293 espediente zeuden indarrean eta, guztira, 4.709 emakumek zuten poliziaren babes-neurriren bat.


2.3. 2002-2010eko BILAKAERA

Gure erkidegoan, genero-indarkeriaren kasuak gupidagabe ugarituz joan dira azken urteetan, ea bider bi biderkatzera iritsi baitira: 2002an 2.477 kasu izatetik 2009an 4.660 kasuetara; dena dela, garrantzitsua da aipatzea 2010ean beherakada txikia egon dela, guztira 4.285 kasu izanik, 15. grafikoan adierazi bezala¹⁶.

Hiru indarkeria-motak bereiziz gero, salbu sexu-askatasunaren aurkako delituen kopurua bederatzi urteotan berdintsua izan baita (2002an 203 kasu izatetik 2010ean 212 izatera), genero-indarkeriaren beste bi moten biktimizazio kopurua ea bikoiztu egin da, nahiz eta bi kasuetan, azken bi urte hauetan beherakada txikia izan. Horri dagokionez, nabarmendu behar da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuetan 2002an izandako 1.711 biktimizazio izatetik 2010ean 3.238 izatera pasa direla; familia barruko indarkeria-kasuei dagokionez, berriz, igoera 2002an 563 biktimizazio izatetik 2010ean 835 biktimizazio izatera pasa da.

¹⁶ 2008 urteera arte, hori barne, familia barruko indarkeria-datuak emakume erasotzaileak (alabak amei, ahizpak,...) ere hartzen zituzten; beraz, familia barruko indarkeriaz ari ginenean ez zen bakarrik jasotzen generoaren familia barruko indarkeria, logikoa denez Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eskumenekoa dena. Horregatik eta datuak ustiatzeko hobeak diren esker (2010ean inplementatuta), 2009ko eta 2010eko datuak zuzendu dira, hain zuzen, familia barruko genero indarkeria hutsari buruzko datuak soilik, baina ezinezkoa izan da hobeak diren horiek aurreko urteetara zabaltzea. Gauzak horrela, ez da benetakoa 2008 eta 2009 urteen arteko jaitsiera. Alegia, aurreko metodologiari erreparatuz gero, Zuzendaritzaren 2009. urteko txostenean jaso zen bezala, %3ko hazkundea egon zen. Beraz, urte horietan benetan egon den jaitsiera 2009tik 2010era gertatu da.

15. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen bilakaera EAEn, indarkeria-motaren/moduaren arabera (2002-2010)




Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila

Amaitzeko, lurralde historikoen bilakaerari buruzko grafikoa egin da (16. grafikoa) eta, bertan, funtsezko bi gai ikus daitezke:

- Alde batetik, azpimarratu behar da Bizkaia Gipuzkoa baino askoz ere gorago dagoela genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen kopuruari dagokionez, aztertutako ea urte guztietan azken horretako kopurua bikoiztu baitu; era berean, indarkeria-mota horrek Gipuzkoan azken urteetan eragin duen biktimizazio-kopuruak Arabakoa bikoiztu du kasik.
- Eta, bestetik, grafikoak islatzen du hiru lurralde historikoetako hazkunde-joerak gora jarraitu duela azken urteetan; dena den, azken bi urteetan (2009 eta 2010), beherakada txiki bat hauteman da hiru lurraldeetan (Gipuzkoan izan ezik). Hala ere, datu hori tentu logikoaz interpretatu behar da; izan ere, ez baitu derrigorrez esan nahi emakumeen kontrako indarkeria gutxiago dagoenik, kasu gutxiago antzeman direla baizik.

16. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioen bilakaera EAEn, lurraldeen arabera (2002- 2010)



Iturria: Azterketa Arloa: KBTZ. Herrizaingo Saila



3.1. PLANGINTZA

Azken urteetan, plan eta estrategia ugari onartu dira genero-indarkeriaren alorrean, eremu eta instituzio desberdinek bultzatuta, esaterako euskal administrazioaren hiru mailatako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Planak, baita genero-indarkeriaren emakume biktimekin jarduteko hainbat protokolo edo tokiko plan.

2011 urtean aurreikusita dago onartzea Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren I. Jarduteko Plana. Jaurlaritzaren Jarduteko Plana hiru ardatzetan egituratzen da: Genero-indarkeriaren biktimei laguntzea, erakundeen koordinazioa eta lankidetza eta sentsibilizazioa, genero-indarkeria prebenitzea eta aztertzea.

Ardatz horietako bakoitza helburu estrategiko batzuen bidez zehazten da eta helburu estrategiko horiek, aldi berean, helburu operatiboen eta jarduketa batzuen bidez gauzatzen dira. Herrizaingo Sailak du haien ardura, eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bidez kudeatzen dira, Eusko Jaurlaritzako zenbait sail eta erakunde autonomo tartean izanik.

Bestalde, 2010ean amaitu da Emakundek proposatutako “Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko V. Plana, IX. Legegintzaldia”, Sortzeko Legeak agindutakoa betetzeko asmoz; izan ere, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, ekintza-plana onartzera behartzen baitu Eusko Jaurlaritza; ekintza-planak emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra oztopatzen edo zailtzen duten trabak ezabatzeko neurriak izango ditu, EAEn aplikatu ahal izateko. V. Plan horrek 3 ardatz ditu: emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea, gizarte-antolaketa erantzunkidea eta emakumeen kontrako indarkeria.

Azken ardatz hori egiteko prozesuan, gobernu-egitura berria dela-eta, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Emakunderekin elkarlanean aritu da aktiboki; izan ere, zuzendaritza horrek du genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politikaren jarraibideak ezartzeko ardura.

Aurtengo plangintzen artean, Gobernuaren leihatila bakarra sortzeko lan egiten ari gara, genero-indarkeriarekin lotutako gaiak kudeatzeko eta jorratzeko eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak izango du horren ardura.

Horretaz gain, genero-indarkeriaren biktimen babesa hobetu nahi da, baita arreta osoa eman ere, emakumeen kontrako indarkeria arautzen duen legea sortuz, dauden baliabideak era koherentean ordenatzeko asmoz eta oneratze osoa bermatzeko, oneratze pertsonala, emozionala, lanekoa eta gizartekoa.

3.2. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak gizartea sentsibilizatzeko lan egiten jarraitu du 2010. urtean, jarduera hauen bidez.

3.2.1. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren komunikazio-kanpaina

“Tratu txarretatik irten daiteke” goiburua hartuta, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak 2010ean genero-indarkeria mota bakar batean oinarritutako kanpaina egin zuen, estatistiken arabera, horrek eragiten baitzion emakume gehiagori: bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeria jasatea.

“Emakumea gaizki tratatzen duena gaizkilea da” zioen goiburupean, 2009ko kanpainak tratu txarren emaila biltzen zuen, hain zuzen genero-indarkeria mota horren errudun bakarrak erasotzaileak beraiek baitira. Kanpaina horren aurrean 2010eko kanpainak azpimarratu nahi izan ditu indarkeria atzean uztea lortu duten emakume horiek.

2010eko kanpaina har daiteke Zuzendaritzak egingo dituen kanpainen atarikotzat, herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko asmoz, emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dituzten indarkeria-mota desberdinei dagokienez. Horri dagokionez, hurrengo kanpainetan indarkeria matxista bezain agerian ez dauden beste indarkeria-mota batzuetan ezarriko dugu arreta, esaterako: sexu-erasoak, prostituzio behartua eta sexu-esplotaziorako emakume nahiz neskatoen salerosketa edo familia barruko indarkeria, besteak beste.

Jakin badakigu zaila dela arazo honi bere osotasunean heltzea; horregatik, 2010eko kanpainan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak erabaki du indarkeria ziklo horretatik ateratzeko aukera bera izatea kanpainaren helburua, ustez maite eta errespetatu behar zituzten pertsonen eskuetan dagoena. Gainera, beharrezkotzat jo da mezu hau transmititzea: horretatik irten daiteke eta bizitza normalizatua eta duina berriro errekuperatu, hots, beldurra, amesgaiztoak, kolpeak, ... gaindi daitezke.

Kanpaina honen azken xedea izan da mezu positiboa zabaltzea, komunikabideetan ikusi ohi dugunaren aurkakoa, neurri batean. Nahi baino gehiagotan, genero-indarkeria komunikabideetan irudikatzen da biktima erdian jarritz, baita horren inguruan dagoen kasuistika pertsonalean ere; horrela, itxaropena galdu duten emakumeen lekukotasunetan islatzen den dramatismoa edo biktimismoa bultzatu egiten da; izan ere, ez baitakite nola irten indarkeriazko zirkulu horretatik, berri horiek islatzen baitituzte indarkeria-mota horren muturreko ondorioak: erailketak, etab.

Horregatik, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak ulertzen duenez, tarte txikia eman ohi zaie funtsezkoak eta beharrezkoak diren iritziei, gizartearen gaitza ezabatzen aurrera egiteko; hala nola, adituen informazioa gizartearen arazo larri horren benetako arrazoiak herritarrei argi baitzitzaketan eta, horrela, iritzi publikoak ulertuko luke zergatik bikotekideak eragindako genero-indarkeriaren biktima den emakume heldu eta nagusi batek ez du logikaz hartzen banantzeko erabakia. Bereziki azken puntu honi eragin nahi dio 2010eko kanpainak.

Genero-indarkeriaren biktimentzat autoestimua berreskuratzea ia ezinezkoa da, baina bere bizitza berregiteko lehenengo pausua da.

Kontuan hartuz genero-indarkeriaren emakume biktimek hasitako bidea, egoera horretatik ateratzea erabakitzen duten momentuan, luzea eta zaila dela, beraiek jakin egin behar baitute, 2010eko urtean bultzatutako kanpaina honen bidez, azpimarratu zaie instituzio guztien laguntza eta ahalegina dutela, izan ere:

BERRIZ ERE NORMALTASUNEZ BIZI DAITEKE,
LAGUNTZA ESKATU ETA BERRIRO HAS DAITEKE,
TRATU TXARRETATIK IRTEN BAITAITEKE.

3.2.2. Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eta Immigrazio Zuzendaritzaren kanpaina

Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Immigrazio Zuzendaritzak, batera, lan-prozesua eta diagnostikoa bultzatu dute EAEko emakume etorkinen kontrako genero-indarkeriari aurre hartu eta erantzuteko arloan, ekintzarako orientabideak ezartzeko asmoz. Lan-prozesu hori, dagoeneko, 2009an hasi zen.

Bi zuzendaritzak jabetzen dira sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak bultzatzeko beharraz, bereziki zuzendu badira atzerriko emakumeei informatzera bizi duten indarkeria-egoerarekin apurtzearen inportantzia; hortaz, 2010ean Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Immigrazio Zuzendaritzak batera jarri dute abian kanpaina hau: “Kontrola, larderia eta isolatzea: hori ere genero-indarkeria da. Seinaleak sumatuz gero. Aurre egin”.

Kanpaina honen bidez identifikatu nahi izan dira emakumeen kontrako indarkeria-mota sotilenak, sufrimendua eta horien mendekotasuna iraunarazten dutenak. Era berean, interes berezia eskaini zaio Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren Genero-

indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko Arreta-zerbitzua (900 840 111) ezagutzera emateari; izan ere, horren bidez kontsulta egin daiteke, modu anonimoan eta dohainik, honi buruzko zalantzak: genero-indarkeriaren egoera jasaten ari denentz; nahi izanez gero, emozioei atxikitzea eta laguntza jasotzea eta, hala egokituz gero, dagokion baliabideari desbideratzea.

3.2.3. Azaroaren 25eko kanpaina

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna denez, 2009an bezalaxe, Berdinsareak (Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Elkartea) sentsibilizazio-kanpaina sustatu zuen; kanpaina horretan, Eudel, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hartu zuten parte, elkarlanean. 2010ean, hiru Foru Aldundiak ere gehitu dira.

Kanpainan parte hartzen duten erakunde guztien apustua da aurreko urteetako bidea jarraitzea eta indarrak batzea gazteei zuzendutako eta emakume gazteen kontrako indarkeria prebenitzeari bideratutako kanpainan, lema honen mende: Beldur Barik.

Aurtengo kanpaina ekintza hauetan egituratu da:

- Esan Beldur barik! izeneko lehiaketa: emakumeen kontrako indarkeriaren aurka jarrerak eta proposamenak sustatu nahi du.
- Esan Beldur barik! izeneko I. lehiaketa: beldur barik! jaia plataforma bat da Esan Beldur barik! lehiaketako partehartzaileen lana eta horren ikuspena handitzeko.
- Puntu lila erabiltzea: azken bi kanpainetan bezala, aurten ere berririo erabili dugu puntu lilaren irudia, emakumearen kontrako indarkeria ez onartzearen sinbolo gisa.
- Heziketa-kita: aurreko kanpainetako tresna guztiak sistematizatu dira gazteekin lan egiteko tresna-multzoa diseinatzeko, indarkeria kasuak prebenitzeko eta antzemateko helburua duena. Heziketa-tika eskura daiteke hemen: www.berdinsarea.net
- Adierazpen instituzionala: Berdisareak, aurten, aurreko urteetan bezala, adierazpen instituzionala proposatu du, udalbatzarretan irakurtzeko eta onartua izan dadin, baita kanpainan parte hartzen duten erakundeen ganbarek ere.

Eusko Legebiltzarrak babestu zuen adierazpena eta, egun horretan eta lehenengoz, deialdi isila deitu zuen Lakuan, indarkeria mota horri gaitzespena adierazteko.

3.2.4. Hitzaldiak eta hainbat eremutako nahiz komunikabideetako esku-hartzeak azaltzea

Genero-indarkeriaren gainean hausnarketa eta sentsibilizazioa errazteko erabilitako beste baliabideetako bat izan da hainbat forotan hitzaldiak ematea, hainbat erakundek eta instituzio publikok nahiz pribatuk eskatuta 2010ean zehar.

Jarduera ildo horretan, 2010eko irailaren 29 eta 30ean, *Hain bistakoak ez diren genero-indarkeriaren moduak* izeneko jardunaldiak burutu ziren eta horien helburua izan zen genero-indarkeriaren azterketa osoa egitea, haren adierazpide guztiak begien bistan jartzeko ahaleginetan, gizarte-arazo larri hori desagerrarazteko prozesuan aurrera egitearren, esku hartzeko jarraibideak emateko.

Bestalde, azaroaren 5ean izan zen *Genero-indarkeriako Erasotzaileen Berreziketan Esku hartzeko Programen gainen Nazioarteko Jardunaldia*; horrek ikuspegi orokorra eskaini zuen, hain zuzen gizon erasotzaileen portaeratik indarkeria ezabatzeko programak diseinatzeko laguntzarik handiena eman duten ikusmolde eta esperientziei buruz.

Bestalde, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak elkarrizketa ugari egin ditu hainbat komunikabideetan bere jardueren berri emateko; baina, horrez gain, baita herritarrak sentsibilizatu eta gizarteko arazo larri hori ezagutarazteko ere.

3.3. PROFESIONALAK PRESTATZEA

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren helburuen artean dago genero-indarkeriaren arazoan inplikaturikotako sektore profesionalen berriazko prestakuntza bultzatzea. Horren adibide dira Ertzaintzako langileekin egindako prestakuntza-jarduerak eta udaltzain nahiz gizarte-langileentzat diren prestakuntza-jarduerak.

Horrez gain, parte-hartze aktiboa izan du, Deustuko Unibertsitateak antolatutako “Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko masterrean” eskolak eman baititu; master hori, hain zuzen, diziplina anitzeko ikuspegian oinarrituta arazo horretan esku hartzeko prestatu nahi duten pertsonentzat da.

Azken urtean, master hori bultzatu du Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta, horretarako, Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmena sinatu du; horrek ere aukera ematen die ikasleei bekak eskuratzeko.

3.4. INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA

3.4.1. Instituzio, talde eta erakundeentzako laguntza

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren asmoa ez da soilik indarkeria-mota horren biktimei laguntzea, entzutea eta, hala badagokio, beharrezkoa den baliabidera bideratzea, baizik eta “laguntzen duenari laguntzea”; horrela, egunero, arazoa bertatik bertara konpontzen saiatzen direnek gainditu beharreko oztopoen berri izango dugu, eta, horrela, horiek konpontzen saiatuko gara.

Hori dela-eta, zuzendaritza hau, eratu zen unetik beretik, lan handia egiten ari da hainbat eta hainbat erakunde, talde eta instituzio informatzeko eta aholkatzeko. Horri esker, biktimekin zuzenean lan egiten dutenek askotan aurrez aurre izaten dituzten arazoak ezagutu ahal izan ditugu, bai eta aurre egin beharreko erronka berriak ere. Gauzak horrela, aurreko 2010ean, Zuzendaritzaren bulegoetan, gutxi gora behera, informatzeko eta aholkatzeko 715 jarduera burutu ziren.

Gainera, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bi jarduera jarri zituen abian 2009an eta, egun, indarrean jarraitzen dute hainbat instituziok egindako eskaera batzuei erantzuteko.

- 1) *Elkarte, erakunde eta entitateentzako laguntzen deialdia*: genero-indarkeriaren biktimei arreta ematearekin, elkartasuna adieraztearekin eta laguntzearekin lotutako zerbitzuak emateko erakunde horiek dituzten behar ekonomikoez jabetuta, Herrizaingoko sailburuaren 2010eko martxoaren 17ko Aginduaren bidez zerbitzu horiek ematen dituzten erakundeentzat laguntzak arautu eta horien deialdia egin da. Laguntza-ildo honek 400.000 €ko aurrekontua zuen, 2010ean, 2009ko aurrekontuetan eta helburu bererako eman zen kantitate bera.

Guztira, 56 proiektu jaso ziren, baina entitate horietako batek ebatzi aurretiko prozeduran atzera egin zuen; beraz, azkenean, 55 proiektu onartu ziren, 44 erakunde eta elkartek aurkeztuta. 55 proiektu horietatik, 44 diruz lagundu ziren eta 11 ukatu. 2009an, 19 proiektu aurkeztu ziren eta 14 diruz lagundu ziren; horrek ekarri du Zuzendaritza honek finantzatutako proiektu-kopurua nabarmen hastea; izan ere, horien helburua baita genero-indarkeriaren edozein adierazpenaren biktimen arreta hobetzea.

- 2) 2009an hasitako lanarekin jarraituko da, horretarako sortutako *lan-talde* desberdinetan, aurkitutako arazoei aurre egiteko edo etorkizuneko erronka berriak lantzeko asmoz. Ildo horri jarraituz eta 2010ean burututako ekintza esanguratsu gisa, ekintza hauek aipatu nahi ditugu, lan-talde hauetan:

- Emakume etorkinenganako genero-indarkeriaren arazoa aztertzeko lan-taldea: gai honetan ordezkaritza handiena duten erakunde eta elkarteek osatu dute lan-talde honen esparrua eta, horien bidez, lan-dokumentua landu dute, EAEko emakume etorkinen kontrako genero-indarkeriari aurrea hartu eta erantzuteko arloan diagnostikoa handitzeko, baita ekintzarako orientabideak ezartzeko ere. Gainera, eta diagnostiko hau abiapuntu izanik, hainbat gomendio egitea erabaki da, genero-indarkeriaren biktimak diren emakume etorkinei laguntzen dieten langileentzat.
- Prostituzio behartuaren eta emakumeen salerosketaren biktimen premiak aztertzeko lan-taldea: 2009. urtearen bukaeran, Genero-indarkeriaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bultzatu zuen prostituzio behartuaren arazoei heltzeko lan-taldea sortzea, sexu-esplotazioko helburua duten salerosketen emakumeak genero-indarkeriaren biktimatzat hartzeko asmoz. Lan-talde honen partaide dira hainbat instituziotako ordezkariak, eta hainbat jarduera-eremutakoak ere badira, publikoak eta pribatuak, genero-indarkeriaren biktimak babestearekin eta laguntzarekin arduratuak edota lotuta daudenak, esaterako: Ertzaintza, Polizia Nazionalea, Guardia Zibila, Gobernuaren Ordezkaritza, HIESaren aurkako Arabako Batzordeak, Munduko Medikuek eta lurralde historiko bakoitzean prostituzioaren eremuan lan egiten duten elkarteak: Gizarterako, Aukera eta Askabide; geroago sartu dira Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza.

Jakin badakigu desberdintasunaren eta gizakiaren esklabotasunaren adierazpen ankerrari heltzea zaila dela; hortaz, lan honekin hasi ginen jakin gabe gure erkidegoan fenomenoak duen errealitateari buruzko irudiaren datu fidagarriarik izan gabe eta beharrak (biktimak babestea eta laguntza osoa ematea) lehentasunezko ardatz bihurtu genuen.

2010. urtean garatutako ekintza handiaren fruitu nagusia izan da sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen biktimei berrezartze- eta hausnartze-aldian laguntzeko koordinazio protokoloaren itxura duen dokumentua. Horrela, gure autonomia erkidegoan bete egin da atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta haien gizarteratzeari buruzko legedia.

Identifikatzeko, laguntza bideratzeko eta legean ezarritako eskubideak emateko prozesuan parte hartzen duen instituzio bakoitzari emandako eskumenak kontuan hartuta, protokoloak ezartzen du koordinazio eta funtzionamendu zirkuitua, emakumeei biktimizazio bikoitza jasatea saihesteko eta laguntza eta babes egokia emateko asmoz, aldi horretan zehar eta salaketa jartzea ala ez erabaki bitartean. Jakina, emakume horiek bereganatzen dituzten mafien atzetik joaten dira, salatzen ez badituzte ere.

Nolanahi ere, emakume horiek justiziarekin lankidetzan aritzeak errazten du bizitokia eta lana baimentzea bezalako eskubideak izatea, aparteko gorabeherak edo integrazio sozialarekin lotutako bestelako eskubideak izan.

Protokoloak zehazten du zein baldintza bete behar duen harrera-baliabidea eta laguntza osoa, sexu-esplotazioko helburuekin pertsonak salerostearen biktimentzat, ingurune segurua eskaintzeko helburu nagusia duena, emakumeari arreta berezitua emateko eta emakumea oneratu ahal izateko eta bere etorkizunari buruzko erabakiak hartzeko. Emakume bakoitzaren egoerari eta beharrei egokitutako Ertzaintzaren babesaz gain, protokolo honek aurreikusten duen eta atzerritarren Lege Organikoak ezartzen duen hausnarketa-aldian, sexu-esplotazioko helburuekin pertsonak salerostearen emakume biktimei bermatzen zaie beharrezko laguntza psikologikoa eta juridikoa.

Bestalde, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak web-orria sortu du: www.euskadi.net/violenciadegenero izeneko web guneak zuzendaritzak berak dituen helburuen, funtzioen eta jarduera-ildoen berri eman nahi du, baita hausnartzeko gunea ere izan.

Web-orrian gai hauei buruzko informazioa lor daiteke:

- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren jardura-ardatzak.
- EAEn aplikatzen den genero-indarkeriaren alorreko legedia.
- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari dagozkion eginkizunak, gobernu-egitura berriaren arabera.
- Arazoari buruzko *estatistika eguneratuak*, errealitate horren benetako larritasuna ulertzen lagunduko dutenak.
- *Laguntzen eta diru-laguntzen deialdiak*: horretan jaso da Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egindako bi deialdiri buruzko informazio osoa: elkarte eta erakundeentzako laguntzen deialdia eta Genero-indarkeriaren biktimentzako diru-laguntzen deialdia.
- *Helbide eta telefono interesgarriak*.
- Genero-indarkeriaren biktimentzako 24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzua (900 840 111): zerbitzu honen funtzioak eta ematen dituen laguntzak xehetasunez azaltzen dira.
- *Sentsibilizazio-kanpainak*.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza emateko baliabideak: atal honetan, gai hauei buruzko informazio zabala aurki daiteke: diru-laguntza ekonomikoak, etxebizitza-baliabideak, programa espezifikoak, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako beste baliabide eta programa batzuk.
- *Gaitzespen-taula*: atal honetan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak EAEn gertatzen diren genero-indarkeriazko ekintzak gaitzesten ditu.

- Arazo horri buruzko albisteak eta genero-indarkeriazko delituei buruz prentsan agertzen den informazioa aztertzen duten txostenak.
- *Iradokizunen postontzia*: bertan, edozein pertsonak edo erakundek eman dezake arazo honi buruzko iritzia, bai eta horri aurre egiteko jarduerak proposatu ere.
- *Genero-indarkeriaren apologiaren salaketa komunikabideetan eta publizitate-bideetan*: honetan, “emakumeen aurkako indarkeriaren apologiatzat” har daitekeen edozein egoera salatu daiteke; horretarako, inprimaki bat bete behar da, hainbat daturekin: kexaren zergatia, inplikaturako komunikabidea...

Amaitzeko, web-orri honen bidez, “on-line” aholkularitza-zerbitzua ere ematen da, arazo horri buruz edonork izan ditzakeen galderei edo zalantzei ahalik eta modurik azkarrenean erantzuten saiatzeko; hau da, biktimek edo edozein motatako genero-indarkeriaren biktimen familiarrek nahiz hurbilekoek.

3.4.2. Genero-indarkeriaren emakume biktimei laguntzeko telefono bidezko 24 orduko arreta-zerbitzua (900 840 111)

3.4.2.1. Ezaugarriak eta funtzioak

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren erkidego-mailako baliabidea da; doakoa da, eta, horren bidez, 24 orduko arreta-zerbitzua ematen diete genero-indarkeriaren biktimei.

24 orduko arreta-zerbitzua telefono bidez da eta laguntza psikologikoa nahiz informazioa ematen diete indarkeria-ekintzak jasaten dituzten eta horien ondorioz biktimizazio- edo ahultasun-egoeran dauden emakumei, bai eta zer egin dezaketen azaldu ere. Zehazki, zerbitzu honen bidez, informazioa eman, orientatu, lagun egin, bideratu nahiz entzutean oinarritutako arreta psikologikoa, emozioei eusteko laguntza eta orientazioa emango dira, bai krisi- edo larrialdi-egoeretan, bai egoera kritiko zorrotzean egon ez arren emakumeak genero-indarkeriaren biktima sentitzen diren unean.

Abian jarri zenetik, zerbitzu hori erabili duten emakumeen kopuruak igoera handia izan du eta 2010ean ere horrela jarraitu du; izan ere, guztira 3.466 dei egon dira, 2009an egondako 2.874 deiren aurrean. Ikus daitekeenez, urtetik urtera, gainera, bitarteko hau finkatu egin da genero-indarkeriaren edozein adierazpeni egunero aurre egin behar izaten dioten emakumeentzat EAEn dauden baliabide koordinatuen sarearen baitan.

Era berean, zerbitzu horren erabiltzaile izan daitezke biktimen familiarrak edo horien sostengu diren hurbileko pertsonak; hau da, beren inguruan egon daitezkeen biktimei laguntzeko nahia dutenak.

Zerbitzua, halaber, babes-baliabideen sarean, elkarteetan eta GKEtan lan egiten duten profesionalentzat da, genero-indarkeriaren alorrean, bereziki, eta/edo emakumeen alorrean, oro har, lan egiten baitute, eta biktimari laguntza psikosoziala emateko informazioa eta aholkularitza ematen diete.

Biktima gure hizkuntza hitz egiteko zailtasunak dituen etorkina bada, pertsona horri berehala lagunduko zaio, protokolo honek 51 hizkuntzaren aldibereko itzulpen-zerbitzua baitu. Era berean, arreta espezifiko emango zaie atzerritartasun-egoerak berak dituen berezitasunei, eskubideei, deserrotze-egoerari edo gizarte-babesaren gabeziari dagokienez.

Azpmarratu behar da kontaktu edo harreman fisikorik gabeko telefono bidezko laguntzak beste zerbitzu batzuen osagarri bihurtzen dela eta, aldi berean, hainbat elementu bereizgarri ditu, esaterako:

- Eskuragarritasuna eta bizkortasuna, fisikoki urrun egon arren, norbaitek berehala entzuten eta erantzuten du, eta, horrela, oztopo handiak gainditzen dira biktimekiko lehen harremanari dagokionez. Aldi berean, bitarteko eskuragarria da ia biztanleria guztiarentzat eta, gainera, handitzen doa erabiltzaileentzat doakoa delako.
- Deitzen duten pertsonen isilekotasuna eta anonimotasuna; horrela, errazagoa da emakumeek zerbitzu horiek erabiltzea.
- Entzute-prozesuari ematen dio balioa; hori, hain zuzen, funtsezkoa da beren buruarengan berriro konfiantza hartzeko, eta, aldi berean, barrua husteko aukera ematen die.
- Segurtasun-eremua, indarkeria jasaten duen emakumeak bizi duen edozein unetan erabil daitekeena.
- Zentraltasuna, baliabide publiko bakarra baita EAE osorako.
- Laguntza-homogenotasuna; izan ere, EAEko emakume guztiek laguntza bera jasotzen dute baliabide honen bidez, deitzen duten edo bizi diren lekua zeinahi izanda ere.
- Behatokiaren funtzioa: Genero-indarkeria mota horren bilakaera aztertzea baimentzen du, zerbitzua erabiltzen duen kasuistikak mugatuta, nolabait.
- Emakume erabiltzaileen gogobetetzea du xede.
- Beste baliabide batzuen osagarria da, betiere aintzat hartuta emakumeei eman beharreko laguntza diziplina anitzekoa izan behar dela eta ez du beste baliabide batzuk ordezkatzeko asmorik. Nolanahi ere, bigarren mailako biktimizazioa saihestu nahi da.

Aurreko urtean zehar, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hainbat hobekuntza sartu ditu zerbitzu honetan, biktimari ematen zaion laguntza hobetzeko irizpideari jarraituz; besteak beste, alderdi hauek aipatu behar dira:


- Zentzumen-urritasuna duten pertsonentzat eskuragarria.
- Aholkularitza juridikoa: Zerbitzuan egindako hobekuntza honek erabiltzaileen eta, zenbaitetan, profesionalen premiei erantzuten die, baldin eta zalantza- eta ezjakintasun-egoeran badaude, ondorioen beldur badira, sistemarekiko konfiantzarik ez badute, prozesuak duen zailtasuna hautematen badute, etab. Zalantzak argitzen dituen aholkularitza juridikoaren zerbitzu espezializatua erabiltzaileari eskaintzeak beldurrak gutxitzen ditu eta eman beharreko urratsei buruzko informazio operatiboa ekartzen du; hau da, erabiltzailea harremanetan jarritz behar diren baliabideekin, erantzunaren osotasuna handituz eta arretaren diziiplina anitzeko ikuspegi handiagoa emanez.
- Indarkeria-gertaerak errepikatzeko arriskua aztertzeko protokolo bat egitea, telefono bidezko arretaren profesionalentzat.
- Zerbitzu hori etengabe ebaluatzea, hori hobetzeko prozesuaren baitan.
- Generoaren edozein motatako indarkeriaren biktimei laguntzea. Zerbitzua oinarritu da, 2009ra arte, familian eta/edo eremu afektiboan emakumeek jasaten duten indarkeria-egoeretan. Modu espezifikoan, etxeko tratatu txarrak ditu xede. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarentzat funtsezkoa da beste mota bateko genero-indarkeriaren biktimek ere zerbitzu hori erabili ahal izatea. Halaber, garrantzitsua da esatea zerbitzu hori ematen duten profesionalak gaituta daudela lan-esparruan nahiz beste esparru batzuetan jazarpen sexista jasaten ari diren emakumeei babes emozionala, aholkularitza juridikoa eta informazioa emateko; izan ere, biktima horiek errudun eta lotsatuta sentitzeko joera dute, eta horrek oztopatu egiten die askotan laguntza egokia eman diezaioketen lekuetara gerturatzea. Bukatzeko, zerbitzu honetatik bertatik, sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen biktima diren emakumeei laguntzeko eta orientatzeko ekintzetan lan egiten jarraitzen dela nabarmendu behar dugu.
- Ertzaintzaren bortxa telefonoak konektatu dira 900 840 111 zenbakiarekin; horrela, telefono hori duten emakumeek, Ertzaintzarekin eta 112 telefono zenbakiarekin zuzenean komunikatzeaz gain, 24 orduko Telefono Bidezko Arreta Zerbitzuarekin ere bai.

3.4.2.2. Egindako dei guztiak

Aurreko 2010. urtean, zerbitzu honek 3.466 dei jaso ditu, guztira, hilean batez beste 288 dei izanik.

Horrenbestez, abian jarri zutenetik, zerbitzu honek hazkunde handia izan du jasotako dei-kopuruari dagokionez; hain zuzen, hala ikus daiteke 17. grafikoan.

17. irudia. Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko telefono bidezko zerbitzuan jasotako deiak (2006-2010)



Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Hortaz, aipatzekoa da jasotako dei-kopuruak hazkunde handia jaso duela, 2009. urtearen aldera (% 17 baino zerbait gehiago) eta zerbitzu hori abian jarri zenetik, 2006tik, jasotako dei-kopuruaren bilakaera ea hirukoiztu dela.

3.4.2.3. Datu soziologikoak


a) Sexuaren eta adin-taldearen arabera banaketa

Deien %93,71 emakumeek egindakoak dira; izan ere, gehienetan, gertuko emakumeren batek bizi duen edo dezakeen indarkeria-egoeraren kezka adierazteko edo zerbitzuari buruzko informazio orokorra eskatzeko deitzen dute eta inoiz tratatu txarren biktimatzat identifikatzen

dute bere burua. Egindako deien %6,29 gizonetakoak egindakoak dira, hurbileko emakumeren batek jasaten dituen edo jasan ditzakeen tratatu txarren egoeraz kezkatuta, edota zerbitzuari buruzko informazio orokorra eskatzeko.

Deitu duten pertsona guztiak bana daitezke grafiko honetan ikus daitekeen moduan, biktima bera den, senide edo gertuko pertsona den, edota profesionalak diren aintzat hartuta.

18. grafikoa. Dei-banaketa, deitzen duen pertsonaren arabera (2010)



Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Aurreko irudiak (18. grafikoa) dituen datuak 2009. urtekoen aldera konparatzen baditugu, erabiltzaileek zerbitzuari egindako deiek behera egin dute apur batean, 2009. urtearen aldera (% 75,85). Hala ere, senideek eta hurbilekoek egindako deiek, berriz, gora egin dute; 2009an, % 19,84 baziren, orain, berriz, % 20,52. Profesionalek egindakoetan ere bi puntuko igoera egon dela aipatu behar dugu; izan ere, 2009an, % 4,31koa izan zen eta 2010ean % 6,14koa.

Gure esku daudenen artean, %25,63 30-39 adin-tartean dago (2009. urtearekin konparatuz tarte hau zertxobait hazi da). Deien % 55,15 kokatzen da 30 eta 59 urte bitarteko adin-tartean (beheranzko joera aurreko urtearen aldean). 29 urte beherako taldean dago emakumeen %26,13. Halaber, 60 urtetik gorakoak badaude (%18,72), baita emakume oso gazteak ere (%5,15ek 19 urte baino gutxiago ditu).

b) Emakume erabiltzaileen jatorri geografikoa

EAEko edo estatuko emakumeen deiak nabarmendu dira, kasuen % 78,92 izan baitira; eta horien aurrean, berriz, atzerriko emakumeen %21,08. Europatik etorritako emakumeek egindako dei-kopurua % 2,19 da; Afrikatik etorritako emakumeek egindako dei-kopurua % 2,43

izan da eta Asiatik egindakoa %0,08 gutxitu da; Latinoamerikako herrialdeetatik etorritako emakumeei dagokienez, dei guztien % 16,38 da.

Beraz, datu horien bidez ondoriozta daiteke dei gehienak bertako emakumeek egiten dituztela; izan ere, zerbitzura egindako dei-kopurua igotzen jarraitu baita. Atzerriko nazionalitatearen duten pertsonen deiei dagokienez, jaitsiera txikia ikusi da, batez ere, Latinoamerikatik eta Asiatik etorritakoen artean.

Gainera, deia egiten duen pertsonaren jatorri geografikoa nahiz osatzen duen bikotemota aintzat hartuta, ondorioztatu da egindako deien %30,31 kasuetan bikotekideren bat atzerritarra dela. Horretaz gain, bikotea osatzeko bi mota bereizi dira: bikote horretako bi kideak atzerritarrak dira, kasuen %50,26, eta bikote mistoak, bikotekide bat atzerritarra da eta bestea naziokoa, (kasuen %49,74). Bikote mistoen artean, halaber, bikoteak osatzeko bi modu aurkitu dira: bikote mistoa, emakumea atzerrikoa eta gizona naziokoa, kasuen %33,33, eta, alderantzizko bikote mistoa, emakumea naziokoa eta gizona atzerrikoa (%66,67)

Bestalde, zerbitzu horretan aldibereko itzulpen-sistema dago atzerriko pertsonen ere erabil dezaten; horrela, laguntza hainbat hizkuntzatan ematen da: ingelesez, frantsesez, arabieraz, errumanieraz edota txineraz, baita gaztelaniaz eta euskaraz ere. Zerbitzu horrek lagundu du beste naziotasun batzuetako pertsonen elkarrizketak izaten, horien artean arabieraren erabilera nabarmendu behar da.

Datu horien arabera, atzerritarren arteko bikoteak eta mistoak diren bikoteak osatzen dituzten erabiltzaileen ehunekoen artean hurbiltasun gehiago dago, osatzeko modu bakoitzak %50era hurbilduz.

c) Deien jatorrizko lurraldea

Deien %54,89 Bizkaitik egin dituzte, Gipuzkoatik %28,03 eta Arabatik %13,79; gainerakoa (%3,25) Estatutaren beste leku batetik egindako deiak dira edota kasuen %3,29 ez da jaso.

Dei gehienak hirigune handietatik egin dituzte. Araban nagusi dira Gasteiztik egindako deiak. Bizkaian aipatu behar dira Bilbao, Barakaldo eta Getxotik egindakoak. Gipuzkoako lurraldean, berriz, aipagarriak dira Donostia, Irun eta Errenteriatik egindakoak.

17. taula. Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko telefono-zerbitzura egindako deiak, lurralde historikoen eta urteen arabera (2006-2010)

	2006 (%)	2007 (%)	2008 (%)	2009 (%)	2010 (%)
Araba	8,57	7,60	8,97	11,46	13,79
Bizkaia	70,57	66,40	67,90	61,93	54,89
Gipuzkoa	14,00	15,70	18,50	22,06	28,03
Estatuko beste leku batzuk	6,86	10,30	4,63	4,55	3,29

Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Ikus daitekeen bezala, estatistikak adierazten du hazi egin dela Arabako eta Gipuzkoako lurraldeetatik egindako dei-kopurua eta Bizkaian berriz jaitsi egin dela, nabarmenki, beste bi lurraldeen aldera.

d) Ardurapeko seme-alaba adingabeak

Ditugun datuen artean, deien %47,97 egin dituzte ardurapeko seme-alaba adingabeak dituzten emakumeek. Horien %2,29 haurdun daude eta %6,16k seme-alaba adingabeak eta 18-23 urteko gazteren bat edo adineko pertsonaren bat dituzte etxean. Dakigunez, genero-indarkeriaren emakume biktimen seme-alaba gehienek dakite amek tratatu txarrak jasaten dituztela eta, hainbat azterketen arabera, seme-alaba horien %70 tratatu txarren biktima dira edota abandonatu dituzte. Bost urtetik beherako haurrek ez dute onartzen tratatu txarrak eta, beraz, tratatu horien aurrean oldartu eta erantzun egiten dute; 5-10 urteko adingabeak direnean, ostera, beren burua erruduntzat jo eta tratatu txarrak merezitako zigortzat onartzen dituzte, ez dira jabetzen biktimak direla. Etorkizunean, horrek guztiak ondorio psikologiko larriak izango ditu.

e) Biktima diren emakumeek beren erasotzaileekin duten harremana

Hurrengo taulak (18. taula) jasotzen du biktimak erasotzailearekin duen harremana. Ikus daitekeenez, 2010 urtearekin ez dago alde handirik; izan ere, telefono-zerbitzura deitzen duen emakumeen ehuneko gehiena erasotzailearen ezkontidea edo bikotea baita. Dena dela, garrantzitsua da aipatzea beherakada egon dela ezkontideen ehunekoari dagokionez eta bikotekide ohien ehunekoak gora egin duela.

18. taula. Biktimak erasotzailearekin duen harremana (2008-2010)

	2008 (%)	2009 (%)	2010 (%)
Ezkontideak	39,60	48,40	40,24
Bikotekidea	26,60	24,10	26,63
Bikotekide ohia	8,10	9,70	12,13
Ezkontide ohia	9,60	8,30	10,98
Beste batzuk	9,60	5,50	6,07*
Semea	5,30	3,10	2,78
Aita	1,20	0,90	1,17

Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

*Besteak beste, hauei dagozkien datuak sartu dira: ezagunak/adiskideak (%1,39), ezezagunak (%0,35), profesionala/nagusia (%0,35) eta besterik (%3,98).

3.4.2.4. Deien ezaugarriak

a) Deiaren zergatia eta egindako esku-hartze mota

Deitzeko arrazoi nagusiari dagokionez, informazioa bilatzeko eta aholku emateko arrazoiak mantentzen jarraitzen da eta segurtasun tartea emango dion laguntza emozionalaren arrazoiak jaisten doa. Gero, erabakiak hartzeko prozesuan, profesional-taldeak biktimari laguntzen jarraitzen du telefono bidez.

Lehen aldiz deitu duten emakumeei laguntzeak eskatzen du koordinazio maila handienera jardutea, emakume horiei aurrez aurreko laguntza ematen dieten profesionalekin (gizarte-langileak, abokatuak, psikologoak...).

Besteak beste, 19. taulak jasotzen ditu deien arrazoiak eta, zerbitzu hau abian jarri zenetik, erabiltzaileekin egindako esku-hartzea; eta, ikusten denez, zerbitzu horrek azken 5 urteetan egindako esku-hartze mota nagusiak dira, funtsean, informazioa eta aholkularitza, baita laguntza emozionala ere, nahiz eta hori 2008tik jaitsi den.

19. taula. Deiazen zergatia eta egindako esku-hartze mota

DEIAREN ARRAZOA ETA ESKU-HARTZEA	2006 (%)	2007 (%)	2008 (%)	2009 (%)	2010 (%)
Informazioa eta aholkularitza	44,80	32,30	44,70	55,00	51,32
Lagun egitea / telefono bidezko jarraipena	3,20	22,90	24,30	16,90	23,48
Babes emozionala	44,50	41,80	27,80	23,60	19,44
Beste batzuk (indarkeriarekin zeharka lotutako gaiei buruzko informazioa)	5,20	1,80	1,80	2,60	2,02
Larrialdiak	1,70	1,10	0,70	0,60	0,86
Sexu-erasoa (orain gutxikoa edo lehenagokoa)	0,60	0,10	0,30	0,20	-
Profesionalekiko koordinazioa	-	0,00	0,40	1,10	2,88

Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

b) Deiak ordutegiaren arabera

Dei gehienak goizez egiten dira % 45,33 eta, horren atzetik, arratsaldean egiten direnak % 40,96 eta gainerakoak, % 13,71, gauez.

Lanegunen eta jaiegunen banaketari dagokionez, deien % 81,54 astelehenetik ostiralera egiten dira eta % 18,46 asteburuetan.

Jaiegunetan eta gaueko ordutegi-tartean egin diren deiei dagokienez, ezaugarri gisa, emozioei eusteko behar-maila handiagoa izaten jarraitzen dute; izan ere, ordu horietan deitzen duten emakumeek larrimin eta estresa handiagoa dute, oro har; beraz, zerbitzu horren beharra dute larrimin-sentsazio hori gutxitzeko.

Halaber, gaur egun, tratatu txarretatik ateratzeko prozesuan esku-hartze trinkoa izan duten erabiltzaileek egindako deietan, konfiantzazko profesionalarekin hitz egin nahi izaten dute; horrelakoetan, profesionala egongo den gaueko edo jaiegunetako txandetara bideratzen zaizkie.

c) Deiazen iraupena

Deien batez besteko iraupena 17 minutukoa da; hala ere, horrek ez du kentzen esku-hartzea luzeagoa izan ahal izatea, hala eskatuz gero.

d) "Indarkeria-zikloaren" arabeko deiak

Ezinbestekoa da antzematea deitzen duenaren indarkeria-zikloaren fasea, Leonor Walker-en formulazioaren arabera. Iparramerikako psikologo honek ziklo bat deskribatu zuen ("The battered woman", 1979), errepikatutako jokaera-eredu modura, indarkeria-prozesuen etapak azaltzen dituen eta, lehen, 2.1.1.3. puntuan azaldu dena.

- Tentsioak gora egiten duen edo tentsioa pilatzen joaten den fasea.
- Gertaera bortitzaren fasea edo tentsioa hustea.
- Maitagarritasunaren, damuaren fasea, “eztei-bidaia”.

Jarraian, sailkapen honekin lotutako aldeak ezarriko dira.

Argi eta garbi, tentsio-pilaketaren fasean dago lehenengo deiaren arabera deitu dutenen talderik handiena (%69,07) eta dei horien %57,06 tentsioa igotzen den une zehatzetan: orduan, hain zuzen, emakumeak sentitzen eta hautematen du eraso egon daitekeela, zalantzaz eta benetako beldurrez. Bere erreakzioa jasaten dituen tratu txarren kontzientzia-mailaren eta garatu duen “babesgabetasun ikasiaren” mailaren arabera izango da; horregatik, beti gogorarazi behar dira norbere burua babesteko neurriak.

Gertaera bortitza (erasoa bera) izan eta berehalako fasean egindako deiak ez dira hain ohikoak eta indarkeriazko gertaera horren ondorengo bi edo hiru egunetan egindako deiek gorako joera dute, % 19,04 izatera iritsiz (jaz handitu eta gero, aurtan mantendu egin da). Horrelakoetan, ahalik eta azkarren aktibatzen dira larrialdietako baliabideetara deribatze mekanismoak (polizia, 112-SOS Deiak) edo emakumea hartzeko edota aurrez aurre atenditzeko mekanismoak. Bestalde, hasi berria bada ere, batzuetan, gertaera bortitza izandakoan, lege- nahiz osasun-alderdiak jasotzen eta izapidetzen dituzten zerbitzuetan bertan esaten diete emakumeei zer egin behar duten arreta-zerbitzu hau erabil dezaten; bertan laguntza ematen baitute egunaren edozein unetan eta edozein egoeratan.

Ikusi denez, interes handiko ekintza koordinatuan datza, emakume horiei aukera ematen baitie oreka emozionala berrezartzeko, hasitako ekintzen aurre egin ahal izateko modu errealistagoan eta orekatuagoan. Abandonatze eta bakardade sentimendua oso ikaragarria denez, dagoen arriskua gora behera, une gakoa da atzera egitea baitatorkie burura.

Arreta-zerbitzu hori gutxien erabiltzen duen taldea erasoaren ondorengo barealdi-egoeran dauden emakumeek osatzen dute; hala ere, deien %2,04 jaso egiten dira. Batzuetan, alderdi biek ondo onartzen dute une bateko sosegua eta horrek galarazten du emakume biktimak bestelako jarrera hartzea. Barealdi hori eteten denean, tentsio-pilaketaren fasea hastearekin batera, orduan antzematen da beste erasoaldi bat jasateko beldurra eta harremanaren dinamikan atsekabea.

3.4.2.5. Zerbitzuaren erabiltzaileei ematen zaien laguntza

Kasuen %67,68ri ematen zaio emozioei eusteko laguntza psikosoziala. Emozioei eusteko laguntzaren batez besteko ehunekoak bere horretan jarraitzen du; dena dela, jarduera-mota horren premia dagoenean, intentsitate handikoa izaten ari da.

Oro har, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak shock-egoera eta antolaketarik gabeko egoera orokorrean egoten dira; ezinean sentitzen dira, ahul, babesik gabe, isolatuta, blokeo emozionala dute.

Kasu gehienetan, askotariko orientazioa eta informazioa ematen da: tratu txarren kasuen aurrean nola jardun, auto-babesarekin lotutako zioak edota zerbitzuari berari buruzkoak.

a) Emakumeei laguntzeko beste zerbitzu batzuetara bideratzea

Kasuen %55,3 ez dira beste zerbitzu batzuetara bideratzen hasiera batean; beraz, egoera aztertzen da telefono bidezko arreta-zerbitzutik bertatik. Izan ere, askotan, emakumeek zuzeneko eta berehalako laguntza nahi izaten dute (telefono bidez ematen dena, hain zuzen), baina une horretan ez dira prest sentitzen aurrez aurreko laguntza ematen duten zerbitzuetara joateko edota, jada, aurrez joan izan dira. Emakume horiek beren segurtasuneremua galtzen dutela senti dezakete beste zerbitzuren batera bideratzean eta, horren ondorioz, emakume horiekin harremana gal daiteke; beraz, harremana galtzeko aukera hori nahiz beren kasa aurrera ez egiteko arriskua direla-eta, hobe da telefono bidezko harreman bat izatea, emakumearekin kontaktuan egoteko eta hura laguntzeko aukera emango duena.

Erabiltzaileen % 11,73rekin esku-hartze intentsiboak egin dira; hau da, beste baliabide batzuetara bideratu dira, bideratze-txostenarekin edo zerbitzuan bertan zehaztutako eta telefono bidezko arretan garatutako esku-hartzeko proiektu batekin.

Laguntza mota hori emateko, hainbat zerbitzuren arteko lankidetzaproto-kolo eta ereduak ezarri dira. Protokolo horiei esker, jada, esku-hartze integralak egin ahal izan dira, biktima zerbitzuarekin harremanetan jartzen den unetik beretik, bai eta lehenengo harremana izan duen profesionalak telefono bidezko arreta-zerbitzuarekin lankidetzaharremana ezartzea erabakitzen duen unetik ere. Hala, profesionalen arteko koordinazioagatik egindako deiek gorakada txikia izan dute % 2,88 izatera heldu dena, 2009an izandako % 1en alde.

Bideratutako kasuen artean, aipatu behar dira zerbitzu juridikoetara, gizarte-zerbitzuetara eta Berdintasun edo Emakumearen Areari atxikitako zerbitzu espezializatuetara egindakoak. Halaber, Telefono Bidezko Zerbitzuetara bideratzen dira, gutxiago izan arren.

2010ean, 29 dei (%0,84) bideratu dira urgentziazko zerbitzuetara edota 112ra (SOS Deiak).

2010. urtean zehar harremana mantendu da zerbitzua koordinatzeko zeuden erakunde eta baliabideekin:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin mantendu edo hobetu dira kasuak eta mekanismoak bideratzeko protokoloak, horien segimendua hobetu ahal izateko.
- Ertzaintzarekin lankidetzaz-ildo berriak hasi dira, batez ere, Bortxa telefonoa duten emakumeei laguntza espezifiko eman ahal izateko.
- SOS-DEIAK-ekin koordinazio-protokolorako oinarriak ezarri dira.
- Sexu-jazarpena edo laneko sexu-jazarpena sufritzen duten emakumeei laguntzeko koordinazio-harremanak hasi dira eta informazio-liburuxka zabaldu da.
- Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren arteko lankidetzaz-hitzarmena mantendu egin da; hain zuzen, genero-indarkeriaren emakume biktimei laguntzeko 24 orduko Telefono-zerbitzua emateko (016).

Akordio hori indarrean sartzea eta, 016 telefonoa abian jarri zenetik, garatutako hedatze-kanpaina handiek handitu egin du etengabe zerbitzu horietatik bideratutako dei-kopuruak.

- Beste autonomia-erkidego batzuetako antzeko zerbitzu batzuekin dagoen harremana ere estua eta egonkorra da. Sare informala da eta horren bidez prozedurak hobetzen dira, ezagupenak alderatzen, baita zerbitzu horretatik kudeatzen den errealitatea ere.

3.5. PRESTAZIO ETA LAGUNTZEN KATALOGOA, GENERO INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMENTZAT

Ondoren aurkeztuko da gure autonomia erkidegoko genero-indarkeriaren emakume biktimentzat dauden laguntza-baliabide, programa eta laguntzen zerrenda, hori dena Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio-mekanismoei buruzko martxoaren 1eko 29/2011 Dekretuaren 7. artikulua arabera; hauxe dio zehatz-mehatz: “Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak genero-indarkeriaren biktimentzako prestazio eta laguntzen katalogoa prestatu eta gaurkotuta izango du. Katalogo horretan Eusko Jaurlaritzako Zerbitzuen Katalogoan daudenak sartuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren organoek zuzenean kudeatuta baitaude, baita administrazioari lotutako beste erakunde batzuek kudeatutakoak ere.”

3.5.1. Baliabide ekonomikoak

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, edozein herritarrek bezala, prestazio ekonomikoak jaso ditzake, besteak beste, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), Gizarteratzeko Errenta Aktiboa (GEA), etab., betiere betetzen badituzte ezarritako betekizunak. Horietaz gain, badira beste laguntza ekonomiko batzuk, indarkeria mota hori jasaten duten emakumeentzat.

3.5.1.1. 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzkoa

Diru-laguntza publikoen sistema ezartzen du Espainian gertatutako delitu mingarrien eta indarkeriazko delituen zuzeneko eta zeharkako biktimentzat; hau da, delitu horien ondorioz, heriotza edo gorputzeko lesio larriak nahiz osasun fisiko zein mentalean kalte larriak izan dituzten biktimentzat. Halaber, lege horretan zehaztutako laguntzen onuradun izango dira sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak, baita delitu horiek indarkeriarik gabe egiten direnean ere.

Laguntza horien onuradunak hauek izango dira, zuzeneko biktima gisa: delitua gertatu den unean espainiar nazionalitatea edo Europar Batasuneko beste estatu kide bateko nazionalitatea dutenak, edota, hala ez izan arren, eskuarki Espainian bizi direnak edo beren lurraldean espainiarrei ematen zaizkien laguntza analogoak aitortzen dituen beste estatu bateko nazionalitatea dutenak. Heriotza-kasuetan, zeharkako biktimei dagokienez, hauek jasoko dituzte laguntzak: hildakoaren ezkontidea, seme-alabak eta gurasoak, ekonomikoki hildakoaren mende bazeuden (betiere Legean araututako baldintzak betetzen badituzte).

Besteak beste, 35/95 Legeak zehazten du lesio larritzat zer hartu behar den; hau da, "gorputzaren segurtasunari edo osasun fisiko nahiz mentalari kalte egiten dioten lesioak, eta lesio horiek izan dituen pertsona behin-behinean edo betirako ezgaitzen dutenak (gutxitasun iraunkortzat hartzeko gutxienez %33ko elbarritasun-maila izan behar da)". Horrez gain, laguntzak ukatzeko edo mugatzeko kausak nahiz laguntza horiek delituek eragindako kalte-galeren indemnizazioak (epai bidez zehaztuak) jasotzearekin duten bateraezintasuna zehazten ditu, delituaren erruduna ordainezintasun-egoeran dagoela aitortu ezean; dena den, ezingo da inola ere bi kontzeptuen bidez epaian zehaztutako kopurua baino gehiago jaso. Halaber, bateraezinak izango dira onuradunak seguru pribatuko sistema baten bidez legeaz jaso ditzakeen kopuruekin. Edonola ere, laguntzen zenbatekoak ezingo du gainditu, inola ere, epaian zehaztutako indemnizazioa.

Lege honetan aurreikusitako laguntzak Legean zehaztutako datan indarrean dagoen Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren 40 eta 130 hileko soldaten artekoa da; zenbatekoa hainbat irizpideren arabera izango da, esaterako: biktimaren eta onuradunaren egoera

ekonomikoa, ekonomikoki horien mende dauden pertsonak edota biktimaren itxurakeria- edo galera-maila.

Lege honen funtsezko bi alderdi azpimarratu behar dira:

- Biktimaren osasun mentalean kalteak eragin dituen sexu-askatasunaren aurkako delituei dagozkien laguntzen bidezkoatasuna; hau da, biktimak bere kasa aukeratutako tratamendu terapeutikoa ordaintzea, nahiz eta jasandako kalteak behin-behineko ezgaitasuna eragin ez.
- Prozesu penalari amaiera emango dion behin betiko ebazpen judiziala eman aurretik behin-behineko laguntzak lortzeko aukera, betiere biktima edo haren onuradunak egoera ekonomiko eskasean gelditu direla egiaztatzen bada, behin gertaerak agintari eskumendunen aurrean salatu eta gero edo prozesu penala ofizioz jarraitzen denean; behin-behineko laguntza horiek ezin dira izan Legeak heriotza-kasuetarako, gorputzeko lesio larrietarako edo osasunean eragindako kalte larrietarako ezarritako gehieneko laguntza-kopuruaren %80 baino gehiago.

Laguntza-eskaerak egiteko aukera baliogabe geratzen da delitu-ekintza gertatzen den datatik urtebetera; horrenbestez, bertan behera geldituko da hainbat egoeratan. Bestalde, Ekonomia eta Ogasun Ministerioari dagokio laguntza horiek izapidetzea eta ebaztea (ministerio horren web orriko “klase pasiboak” atala).

3.5.1.2. Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoak

Genero-indarkeriaren aurkako Babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren emakume-biktimei diru-laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen Herrizaingoko sailburuaren 2010eko martxoaren 3ko Aginduaren bidez diru-laguntza berezi batzuk arautzen dira. Horien asmoa da genero-indarkeriaren biktimari hauxe erraztea: gutxieneko biziraupen-baliabide batzuk eta, horien bidez, erasotzailea utz dezakete eta bere kabuz bizitzen hasi, lanpostua lortu arte; horrek ere, gizarteratzen lagunduko die.

1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan zehaztutako neurria da Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %75 baino errenta txikiagoa duten biktimentzat; hau da, horien adina, prestakuntza orokor edo espezializatuaren falta eta gizarte-baldintzak direla-eta, enplegu bat lortzeko zailtasun bereziak dituztenentzat.

Laguntza horietaz baliatzeko, bete beharreko eskakizunak hauek dira: laguntza hori lehenago jaso ez izana; genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzea; INEMeko enplegarritasun-txostena; EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren % 75 gainditzen duten errentak ez izatea, hil osoa hartuta.

Ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa da eta aldatu egiten da mendeen adingabeak edota ezintasunen bat badituzte (%33 baino gehiago).

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ez da bultzatzera eta koordinatzera mugatzen diren funtzioak dituen organoa, baizik eta beste urrats bat eman da; hain zuzen, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeari dagokionez Gobernuak dituen eskumenak kudeatzeko organotzat eratu da. Horri dagokionez, azpimarratu behar da laguntza ekonomiko horiek zuzendaritza honek zuzenean kudeatzen dituen baliabideak direla.

Guztira, 2010ean, 129 eskaera aurkeztu dituzte genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza ekonomikoetarako, (horietako lau 2009koak dira, ebatzi gabe zeuden eta). 129 eskaera horietatik 115 ebatzi dira (86 onartuta eta 29 ukatuta) eta 14 ebatzteke geratu dira.


Azpimarratzekoa da 2010eko laguntzen aurrekontuan ezarritako hasierako kantitatea 2009rako ezarritakoaren antzekoa zela, hau da, 230.000 €. Hala ere, 2010eko aurrekontua birritan handitu eta gero, 2010eko ekainean 150.000 € eta 2010eko abenduan 75.000 €, genero-indarkeriaren biktimei, diru-laguntzen kontzeptuan, onartutako kantitatea, guztira, 452.412 €-koa izan da (aurrekontuaren %99,43) 2009an, berriz, 139.191,33 € eman ziren.

Hauxe da 2010ean emandako 86 laguntzen lurralde-banaketa:

- Araba: guztira, 26 eskaera onartu dira; zenbatekoa: 145.692 €, gastu guztiaren %32 izanik.
- Bizkaia: guztira, 27 eskaera onartu dira; zenbatekoa: 132.912 €, gastu guztiaren %30 izanik.
- Gipuzkoa: guztira, 33 eskaera onartu dira; zenbatekoa: 173.808 €, gastu guztiaren %38 izanik.

2010ean laguntza hori jaso duten emakumeen errolda-udalerriei dagokionez, horren banaketa jaso da 19. grafikoan eta, bertan ikus daitekeenez, hiru udalerrri nabarmendu dira gainerakoekin alderatuz: bi Gipuzkoan (Donostia eta Irun) eta Arabako hiriburua (Vitoria-Gasteiz). Bizkaian, berriz, azpimarratzekoak dira Bilbao eta Erandio, horietan erroldatutako emakumei emandako diru laguntzen zenbateko osari dagokionez.

19. grafikoa. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza ekonomikoak jaso dituzten emakumeen bizitokiko udalerriak (2010)



Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Diru-laguntzak emateko 29 eskaera horiek atzera botatzeko arrazoi juridikoak hauek izan dira, futsean: lehenengoa, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eskatutako dokumentazioa zuzendu gabe egotea (13 kasu); bigarrena, laguntza eskatzeko ezinbestekoak diren eskakizunen bat ez betetzea (12 kasu), eta, bukatzeko, jasotako Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta) edo Gizarteratzeko Errenta Aktiboa bezalako laguntzekin duten bateraezintasuna (4 kasu).

3.5.2. Egoitza-baliabideak

Gure erkidegoan, bi bizitegi-baliabide mota bereiz daitezke funtsean: batetik, berehalako harrera-zerbitzuak eta, bestetik, jarrera-etxeak/zentroak.

Hurrengo orrietan, lurralde bakoitzeko bizitegi-baliabideak aurkeztuko dira, bi kategoria horien arabera; hau da, berehalako harrera-zerbitzuak diren edota egonaldi ertaineko edo luzeko harrera-etxeak/zentroak diren aintzat hartuta.

3.5.2.1. Arabako egoitza-baliabideak

a) Berehalako harrera-zerbitzuak

- *Vitoria-Gasteizko udalaren berehalako harrera-zentroak:*

Etxebizitza bakarra izan da 2010. urtean, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak berehala hartzeko erabili dena. Bertan hilabeteko egonaldia egiten da; aldi horretan, profesional espezializatuek biktimak hartu eta laguntzen dituzte, eta egoera bakoitzerako egokiak diren baliabideak eskura jartzen dizkiete. Bertara Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren eta Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuaren bidez iristen dira.

b) Arabako harrera-etxeak

- *Arabako Foru Aldundiaren harrera-etxeak:*

Bi etxe dira eta guztira 10 plaza dituzte. Arabako nekazaritza-eremutik datozen eta genero-indarkerian biktima izan diren emakumeak eta horien mende edo ardurapean dauden pertsonak hartzeko baliabidea da. Etxean sartzean emakumeak laguntzarako gizarte- eta hezkuntza-programa bat onartu behar du. Laguntzarako programak etxetik irten eta gero jarraitzen du.

- *Amurrioko udala:*

Sei plazako pisua du genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzat eta horien mende edo ardurapean dauden pertsonentzat.

- *Laudioko udala:*

Bost plazako etxea da eta bakarrik emakume biktimek eta beren ardurapean dauden pertsonak erabil dezakete.

- *Vitoria-Gasteizko udala:*

Guztira sei etxe eta 33 plaza izan ditu 2010. urtean genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat; etxe horietan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bidez sartzen da.

3.5.2.2. Bizkaiko bizitegi-baliabideak

a) Berehalako harrera-zerbitzuak

- *Bizkaiko Foru Aldundiaren berehalako harrera-zerbitzua:*

Zerbitzu honi esker, berehalako erantzuna eman dakioke tratatu txarren biktima den eta Bizkaian dagoen edozein emakumeri, bai eta bere seme-alabei edo bere ardurapean dauden beste pertsona batzuei ere, harrera-baliabideen premia dutenean. Hamabi

plaza ditu eta lagun egiteko langileak daude 24 orduz; horiek, hain zuzen, biktimei harrera eta lagun egin, eta egoeraren aurrean esku hartzen dute. Zerbitzu horretara Ertzaintzaren bidez edo 112ra deituz iristen dira eta lurralde osoko biktimentzat da.

- *Barakaldoko udalaren berehalako eta urgentziazko harrera-zerbitzua:*

Barakaldok harrera eta arreta integraleko etxe bat du 2009. urteko maiatzetik. Berehalako eta urgentziazko harrera-zerbitzuak eta arreta- eta egonaldi ertain eta luzeko harrera-zerbitzu integralak osatuta dago.

Berehalako eta urgentziazko harrera-zerbitzua eguneko 24 orduetan erabil daiteke, urteko 365 egunetan. Harrera berehalakoa da eta premiak baloratzeko behar den denboran, betiere baliabiderik egokienera bideratu baino lehen.

- *Mungialdeko Partzuergoaren berehalako harrera-zerbitzua:*

Gizarte-zerbitzuen arloan Mungialdeko Partzuergoa osatzen duten udalak hauek dira: Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Mungia. Partzuergo honek berehalako harrera-zerbitzu 1 du, eta 6 plaza guztira. Dena den, esan behar da ez dela genero-indarkeriaren arloko harrera eskusiboko baliabidea. Egonaldia 7 egunekoa da, baina luza daiteke, betiere urgentziazko baliabidea dela kontuan hartuta.

b) Bizkaiko harrera-etxeak/zentroak

- *Bizkaiko Foru Aldundiaren egonaldi ertaineko eta luzeko harrera-zentroak:*

Arreta osoa ematen duen bizitegi-zerbitzua da, tratatu txarren biktima diren eta Bizkaian bizi diren emakumeentzat, bai bakarrik daudenentzat, bai ardurapean dituzten pertsonen lagundutakoentzat. 2003ko irailean ireki zuten eta lagun egiteko langileak egoten dira, 24 orduz. Egun, hogeita sei plaza ditu (gutxi gorabehera, honela banatuta: emakumeentzat 10 plaza eta 16 plaza horien ardurapeko seme-alaba eta pertsonentzat); bertara, Bizkaiko Foru Aldundiko Emakume eta Familien Zerbitzuaren bidez iristen dira.

- *Barakaldoko udalaren urgentziazko eta egonaldi ertain nahiz luzeko zentro integrala:*

Barakaldoko udalak harrera eta arreta integraleko etxea 2009. urtean ireki zuen, berehalako eta urgentziazko harrera-zerbitzuak eta arreta- eta egonaldi ertain eta luzeko harrera-zerbitzu integralak osatuta, biok etxe berean kokatuta daudela. Emakume biktimentzako eta beren ardurapean dauden pertsonentzako baliabide eskusiboa da. Guztira 12 plaza ditu eta gehienez urtebeteko egonaldia onartzen da, baina luza daiteke.

- *Bilbaoko harrera-etxeak:*

Une honetan, Bilbaon, bederatzi harrera-etxe daude genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak hartzeko; eta honela daude banatuta: berehalako edo egonaldi ertaineko/luzeko 7 harrera-etxe, berehalako harrera-zerbitzu gisa edo egonaldi

ertaineko/luzeko harrera-baliabide gisa funtzionatzen dutenak, eta guztira 20 gela dituzte eta gehienez 34/35 pertsona har ditzakete; 2 zubi-etxe, egonaldi ertaineko/luzeko etxeetan lehenago egon diren emakumeen autonomia indartzeko, etxebizitza eta enplegua bilatzea areagotuz, eta 4 gela dituzte eta guztira 8/10 pertsona har ditzakete.

- Bizkaiko gainerako udalerrietako harrera-etxeak:

Jarraian, 1. taula sartu da, Bizkaiko lurraldean dauden harrera-pisu/etxe guztien zerrenda jasotzen duena. Horrek jasotzen ditu udalerrri eta mankomunitateen mendeko harrera-baliabideak, foru-zentroez gain eta, aurreko paragrafoan esan bezala, hiribideak (Bilbao) dituen bederatzi pisuez gain, pisu eta zentro horien mendeko entitatea eta plazen kopurua.

20. taula. Bizkaiko harrera-pisuak/zentroak, foru, udal eta mankomunitateen menpekoak (2010)

ZENTROEN/ETXEEN JABETZA DUTEN ERAKUNDEAK	ZENTROEN/ETXEEN KOPURUA	PLAZAK
Bizkaiko Foru Aldundia	Urgentziazko harrera-zentro 1	12
	Egonaldi ertaineko/luzeko harrera-zentro 1	26
Amorebieta-Etxanoko udala	Harrera-etxe 1	5
Barakaldoko udala	Urgentziazko eta egonaldi ertain nahiz luzeko zentro integrala	12
Basauriko udala	2 harrera-etxe	10
Bilbao udala	9 (Berehalako harrerako edo egonaldi ertain nahiz luzeko 7 etxe, eta 2 zubi-etxe	45
Durangoko udala	Harrera-etxe 1	5
Ermuko udala	Harrera-etxe 1	5
Galdakaoko udala	Harrera-etxe 1	5
Santurtziko udala	Harrera-etxe 1	5
Sestaoko udala	Harrera-etxe 1	5
Busturialdeko herri-elkargoa	Harrera-etxe 1	5
Mungialdeko Partzuergoa	Berehalako harrera-zerbitzu 1	6
GUZTIRA	URGENTZIAZKO 3 HARRERA-ZENTRO, EGONALDI ERTAINEKO/ LUZEKO 2 ZENTRO ETA 19 PISU	146

Iturria: Geuk egina, Bizkaiko Genero-indarkeriaren Behatokiaren datuak oinarri hartuta.
Gizartekintza Saila–Bizkaiko Foru Aldundia.

3.5.2.3. Gipuzkoako bizitegi-baliabideak

a) Berehalako harrera-zerbitzuak

- *Urrats Larrialditarako Foru Aldundiko harrera zentroa:*

Zentro honek hamabi plaza ditu (gehienez hemeretzi) eta lurralde osoa hartzen du, Donostia izan ezik; izan ere, azken horrek Gizarte Larrialditarako Udal Zerbitzu propioa du. Zerbitzu hori Gizarte Larrialditarako Foru Zerbitzuaren bidez eskura daiteke; urteko egun guztietan eguneko 24 orduetan egoten da eskura.

- *Donostiako udalaren berehalako harrera-zentroa:*

Tratu txarren eta/edo sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen larrialdi-egoeretarako Donostian dagoen harrera-zentroa da; bertan, hamalau plaza daude, eta, gehienez ere, 30 eguneko egonaldiak egin daitezke. Bertara, zerbitzu hauen bidez irits daitezke emakumeak: Tratu Txarren eta Indarkeriaren Biktimen Larrialditarako Udal Zerbitzua, Ertzaintza eta Udaltzaingoa. Urteko 365 egunetan, eguneko 24 orduetan, profesionalak bertan izaten dira lanean.

b) Gipuzkoako harrera-etxeak

Bukatzeko, 2. taulak jasotzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokion informazioa: pisuen kopurua, horien jabetza duten erakundeak eta deskribapen txikia; Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak lortu duen informazioaren arabera, pisu horien mendeko entitateekin elkarriketatu eta gero.

21. taula. Gipuzkoako harrera-etxeak (2010)

ERAKUNDEAK	PISU-KOP.	DESKRIBAPENA
Andoaingo udala	1	Gehienez ere hiru hilabeteko egonaldia egin daiteke bertan, nahiz eta luzatzeko aukera dagoen. Orain arte erabiltzen zen etxearen ordez beste bi txiki ezarri dira, egokigarritasun-arrazoiak direla-eta; horiek bata bestearen ondoan daude. Guztira, lau logela dituzte.
Arrasateko udala	1	Udaleko pisuak, erabilera anitzekoak emakumeentzat.
Asteasuako udala	1	Gehienez ere hiru hilabeteko egonaldia egin daiteke bertan, nahiz eta luzatzeko aukera dagoen.
Azpeitiko udala	1	Erabilera anitzeko etxea da; bertan, gizarte-larrialdiko gertaerak artatzen dituzte, ez eskusiboki genero-indarkeriaren biktimak. Gehienez era, lau hileko egonaldia dute. Ezinbestekoa da familia-gatazka larriko egoeran egotea eta gizarte-zerbitzuen berriazko eskaera egitea.
Beasaingo udala	1	Erabilera anitzeko etxea. Orain dela urtebete arte, genero-indarkeriaren emakume biktimentzat zen bakarrik. Baina, baliabidea gutxiegi erabiltzen zenez, erabilera anitzeko etxe bihurtu zen; izan ere, beste kasuistika batzuek, guraso bakarreko familiak esaterako, beharrezkoa baitzuten berrantolatzea. Gehienez ere, 3 hilabeteko egonaldia egin daiteke bertan, guraso bakarreko familietan salbu, horiek ez baitute zehaztutako mugarik.

ERAKUNDEAK	PISU-KOP.	DESKRIBAPENA
Donostiako udala	5	Gutxi gorabehera 25 plaza. Gehienez ere, hiru hilabeteko egonaldia dute, luza daitekeena dagokion balorazioa egin eta gero.
Eibarko udala	1	Udal-harrerako babes-etxea da eta hiru logela ditu. Udal-baliabide bat izan arren, Debarrena eskualde osoko emakumeak hartzen dituzte bertan (Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Soraluze eta Eibar); gainera, probintziako gainerako udalerriek ere lekua eskatzeko aukera izango dute, eta Eskualdeko Batzordeak onartu beharko du beti. Gehienez ere, lau hilabeteko egonaldia dute.
Errenteriako udala	1	Pisu hori 2007an itxi egin zen.
Hernaniko udala	1	-
Irungo udala	1	Erabilera anitzeko harrera-etxea; bertan, gizarte-larrialdiko gertaerak artatzen dituzte, ez eskusiboki genero-indarkeriaren biktimak.
Lasarte-Oriako udala	1	Pisu hori 2008an itxi egin zen.
Pasaiako udala	1	Erabilera anitzeko pisua da, emakumeentzat, berriztatu dena eta irekitzeko zain dagoena.
Tolosako udala	2	Erabilera anitzeko harrera-etxea; bertan, gizarte-larrialdiko gertaerak artatzen dituzte, ez eskusiboki genero-indarkeriaren biktimak.
Usurbilgo udala	1	Erabilera anitzeko baliabidea da; bi pisu daude eta, guztira, 10 plaza. Larrialdi egoerako pertsonak hartzen ditu (genero-indarkeria, bizikidetzaz-arazoak, suteak, uholdeak, etab.). Gehienez ere, hiru hilabeteko egonaldia egin daiteke bertan; gainera, beste udalerri batzuetako pertsonak ere sar daitezke, egoki iritziz gero.
Zarauzko udala	1	Gaur egun, gehienez ere, hiru hilabeteko egonaldia dute, eta beste sei hilabetez luzatzeko aukera dago. Une honetan, beste dekretu bat onartzeko zain daude, egonaldiaren gehieneko iraupenak lau hilabetera luzatuko duena, denbora-mugarik gabe luzatzeko aukerarekin. Etxean lau logela daude, eta, gehienez ere, zortzi pertsona edo lau bizikidetzaz-unitate egon daitezke bertan.
GUZTIRA	20 HARRERA-ETXE GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN	

Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

3.5.3. Programa espezifikokoak

3.5.3.1. Aholkularitza juridikoa

Hiru lurralde historikoetan ematen dituzten arreta juridikoko doako zerbitzuen helburua da tratatu txarren edo sexu-erasoen biktima izan diren pertsonen egindako kontsultei erantzutea eta, beharrezkoa izanez gero, prozesu judizialean esku-hartzea.

Arabian, zerbitzu horiek Vitoria-Gasteizen, Laudion eta Amurrión ematen dira, Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko udalak kontratatutako kabinete pribatu baten bidez.

Bizkaian, Bizkaiko Foru Aldundiak familia-eskubideei nahiz tratu txarren eta/edo sexu-erasoen egoerei buruzko aholkularitza juridikoaren zerbitzua ematen du; biztanleria guztiarentzat bada ere, batez ere, emakumeek erabiltzen dute. Gainera, lurraldeko zenbait udalek aholkularitza juridikoaren zerbitzu propioa dute.

Azkenik, Gipuzkoan, zenbait udalek prozesu aurreko aholkularitza juridikoaren zerbitzuak ere ematen dituzte.

3.5.3.2. Laguntza psikologikoa

EAE guztian, laguntza psikologikoaren askotariko programak daude, biktimei genero-indarkeriaren ondorioz sortutako nahaste psikologiko larriak gainditzeko; horiek modu autonomoan antolatzen dira lurralde historiko bakoitzean.

Arabian, Vitoria-Gasteizen eta Laudion kanpo-esleipenaren bidez ematen da, aholkularitza juridikoaren zerbitzuaren modu berean, eta Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko udalaren artean sinatutako hitzarmenetan dago oinarrituta.

Segidan, 22. taula ezarri da eta bertan jaso dira laguntza psikologikoaren programa horrek Araban 2009an izandako datuak.

22. taula. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta adingabekoei laguntza psikologikoa emateko Arabako zerbitzu espezializatuak (2010)

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA	KOPURUA
Lagundutako emakumeak	426
Lagundutako adingabekoak	61
LEHEN ALDIZ ARTATU DIREN PERTSONEN KOPURUA	286

Iturria: geuk egin, Arabako Foru Aldundiak emandako datuak oinarri hartuta.

Bizkaian, zerbitzu hori Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dago, eta Bilbaon, Markinan eta Zallan ematen dute. Zerbitzua hainbat programaren bidez garatzen da (23. taula), artatutako taldeen eta horiek dituzten arazoen arabera; hots:

- Familiako indarkeria-kasuetarako eta sexu-erasoen biktima helduentzako programa klinikoa.
- Familian bertan edo kanpoan tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren adingabeentzako programa klinikoa.

23. taula. Tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko Bizkaiko programa (2010)

PROGRAMAK	LAGUNDUTAKO EMAKUME BIKTIMAK		
	2010EKO PAZIENTE BERRIAK	2010/01/01EAN TRATAMENDUAN ZEUDEN PAZIENTEAK	GUZTIRA
Familiako indarkeria-kasuetarako eta sexu-erasoen biktima helduentzako programa klinikoa	390	318	708
Tratu txarren biktimak	366	304	670
Sexu-erasoen biktimak	24	14	38
Familian bertan edo kanpoan tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren adingabeentzako programa klinikoa	24	22	46
LAGUNDUTAKO EMAKUME BIKTIMAK GUZTIRA	414	340	754

Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuak oinarri hartuta.

23. taulako datuei gaineratu behar zaie psikologikoki lagundutako zeharkako biktima-kopurua (familiakoak) ere. Guztira, 2010ean, 54 pertsona dira, gehienak emakumeak (% 91) eta honela banatu dira: 31 kasu berri eta 2010eko urtarrilaren 1ean tratamenduan zeuden 23.

Familiako indarkeria-kasuetarako eta sexu-erasoen biktima helduentzako programa klinikoa zuzenduta dago, batetik, etxeko indarkeriaren edota sexu-erasoen biktimak dituzten ondorio psikologikoak gainditzeari; eta, bestetik, esku-hartze espezifikoan, tratu txarrak edota abusuzko sexu-jarrerak eragiten dituzten pertsonen; horien lehentasunezko helburua da, beste batzuen artean, jokabide horiek desagerrarazteko bulkadak kontrolatzea eta errotik desagerraraztea. Eremu horretan, 2010ean, 89 pertsonari eman zaie laguntza; horietako % 92 gizonezkoak izan dira eta % 8 emakumezkoak, 7 guztira; horietako 5 kasu berriak dira eta 2010eko urtarrilaren 1etik, jadanik, tratamenduan zeuden 2.

Lurralde horretan, gainera, "Familian esku hartzeko programa du Bizkaiko Foru Aldundiak, etxean emakumeen aurka egiten den indarkerian espezializatua"; programa hori bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktima diren eta erasotzailea bizi den etxean jarraitzen duten edo itzuli diren emakumeentzat da, edota erasotzailearekin bizi ez bada ere, berriz ere berarekin bizitzeko arrisku handian dauden emakumeentzat, tratu txarren lehengo egoerara bueltatuz, bai eta familia-unitate horiekin bizi diren adingabeentzat ere.

Amaitzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Psikologoaren Kolegio Ofizialak sinatutako hitzarmenaren bidez ematen dute zerbitzu hori eta 15 udalerritan du eragina: Donostia, Irun, Andoain, Arrasate, Azpeitia, Beasain, Bergara, Eibar, Errenteria, Hernani, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Urretxu eta Zarautz. Lurralde honetan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez soilik erabil daiteke zerbitzu hori.

Segidan dagoen taulan (24. taula), etxean tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza psikologikoa emateko Gipuzkoako Foru Aldundiaren programaren bidez artatu den biktima-kopurua jaso da.

24. taula. Laguntza psikologikoa emateko Gipuzkoako programak (2010)

2010EKO PAZIENTE BERRIAK INDARKERIA-MOTAREN ARABERA	LAGUNDUTAKO EMAKUME BIKTIMAK
Etxeko tratatu txarrak	1.066
Sexu-erasoak	90
LAGUNDUTAKO EMAKUME BIKTIMAK GUZTIRA (KASU BERRIAK)	1.156

Iturria: Geuk egina, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuak oinarri hartuta.

3.5.4. Beste baliabide eta programa batzuk

3.5.4.1. Abokatu-laguntzako ofiziozko txanda

Jada, funtzionamenduan diren aholkularitza juridikoaren zerbitzuak osatzeko, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak, Legelarien Euskal Kontseiluarekin batera, Erkidegoko abokatu-elkargo guztietan ofiziozko txanda espezifikoak sortzea sustatu du, genero-indarkeriaren biktimei berehalako abokatu-laguntza integrala eta espezializatua emateko.

Laguntza hori ofiziozko txanda espezifiko profesionalak ematen dute eta doakoa da, jarduera hauei dagokienez:

- Hala dagokionean, salaketa jarri eta babes-agindua eskatu aurretik ematen den aurrez aurreko aholkularitza-zerbitzua.
- Salaketa jartzeko eta babes-agindua eskatzeko abokatu-laguntza.
- Babes-agindua hartzeko agerraldian abokatu-laguntza, hala badagokio, bai eta epaiketa azkarrean ere, baldin eta agerraldian bertan edo hurrengo egunetan egiten bada.

3.5.4.2. Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak

Zerbitzu horiek, halaber, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren mende egon dira eta, fisikoki, Gasteizko, Bilbaoko, Barakaldoko eta Donostiako epaitegietan daude.

Hala ere, 2011ko urtarrilaren 1etik, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak, genero-indarkeriaren edozein adierazpenaren biktimei dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo

Saileko Genero-indarkeriaren Biktimak Laguntzeko Zuzendaritzak kudeatuko ditu eta horren mende geratuko dira, zuzenean.

Biktimei laguntzeko zerbitzuen xedea da edozein delitu-motaren biktimei laguntza juridikoa, psikologikoa eta soziala ematea (hau da, genero-indarkeriaren biktimez gain, baita bestelako delituen biktimei ere), sor daitezkeen prozedura polizial eta judizialetan.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuek prestazio hauek eskaintzen dituzte:

- Biktimei informazioa ematea dituzten eskubideei eta lege-prozedurei buruz: erantzukizun zibila, doako laguntza juridikoa, ekintza penalak, laguntza ekonomikoak, gizarte-baliabideak...
- Hasierako laguntza zehatza ematea: egin beharreko tramiteak ondo egin direla egiaztatzea, kautela-neurriak, arazoari buruzko informazio espezifikoak, sare sozio-sanitariora bideratzea, familiarekiko harremana, etab.
- Laguntza jarraitua ematea: etengabeko informazioa, bilakaeraren jarraipena, laguntza psikologikoa, gizarte-baliabideetara bideratzea, epaiketetara eta deklarazioetara laguntzea, etab.
- Banakako eta gizarteko baliabideak abian jartzea.
- Babes-agindua duten biktimei laguntzea.

Iaz, BLZko bulegoetan, 1.482 pertsona atenditu ziren, genero-indarkeriaren adierazpen guztiekin lotuta: gutxi gorabehera, lagundutako erabiltzaileen %62 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako zuzeneko edo zeharkako biktimak ziren (911 erabiltzaile), %30 familia barruko genero-indarkeriaren zuzeneko edo zeharkako biktimak ziren (448) eta gainerako %8 sexu-askatasunaren kontrako delituen zuzeneko edo zeharkako biktimei (123) dagokie.

- *Bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeriagatik artatu diren erabiltzaileak:*

Aipagarria da 911 pertsona horiek gehienak genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatzat hartu direla (881-%97) eta gainerakoak (%3-30 lagun) genero-indarkeriaren zeharkako biktimak direla (biktimaren senideak edo hurbilekoak, zerbitzura hurbiltzen baitira laguntza eske).

- *Familia barruko indarkeriagatik artatu diren erabiltzaileak:*

Genero-indarkeria mota horri lotuta, 448 laguni eman zitzaion laguntza, funtsean, indarkeria mota horren zuzeneko biktimak dira emakume horiek (%94). Gainerakoak (%6) zuzeneko biktimak dira.

- *Sexu-askatasunaren kontrako delituengatik artatu diren erabiltzaileak:*

Sexu-askatasunaren kontrako delituekin lotuta, 2010ean, BLZk 123 laguni eman zion laguntza; hots, kasuen %68 zuzeneko biktimatzat hartutako emakumeak ziren eta gainerako %32 genero-indarkeriaren adierazpen zehatz honen zeharkako biktimak (gizonezko eta emakumezkoak) ziren.

Laguntza eskatzea eragin zuen delitua bera kontuan hartuz (25. taula), banaketa hau adieraz dezakegu: lagundutako pertsonen %56 hurbildu ziren zerbitzu horretara “sexu-erasoa” izeneko delituagatik, %36 sexu-abusuengatik, %4 sexu-jazarpenagatik, %1,6 exhibizionismo eta sexu-probokazioagatik, eta %2,4 prostituzio eta adingabeen galbideratzeagatik.

25. taula. Zuzeneko eta zeharkako biktimak, sexu-askatasunaren kontrako delituengatik BLZn (2010)

SEXU-ASKATASUNAREN KONTRAKO DELITUEN BIKTIMAK	ZUZENA	ZEHARKAKOA		GUZTIRA
	E	E	G	
Sexu-erasoak	53	13	3	69
Sexu-abusuak	25	15	4	44
Sexu-jazarpena	5	-	-	5
Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa	-	2	-	2
Prostituzioa eta adingabeen galbideratzea	1	2	-	3
GUZTIRA	84	32	7	123

Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua-GIBLZ

3.5.4.3. Etxebizitza alorreko laguntzak

Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak Agindu bat eman zuen 2006ko urriaren 4an, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat¹⁷ etxebizitza-arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa; abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren —genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa— 1. artikuluari jarraiki, Agindu honen aplikazio-eremuan sartzen dira indarkeriaren biktima diren emakumeak, betiere haien bikotekideek edo bikotekide izandakoek edo antzeko afektibitate-loturak izan dituztenek —elkarrekin zertan bizi gabe— gauzatu badute indarkeria emakume horiengan, diskriminazioaren, desoreka-egoeraren eta gizonek emakumeengan duten botere-harremanaren adierazpen gisa.

Agindu horrek ekintza positiboen bi neurri ezarri zituen emakume horientzat:

- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat kupo berezia sortzea, alokairu-erregimeneko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren zozketarako.
- Alokairu-erregimeneko etxeak zuzenean esleitzea, egoera larrietan eta salbuespene-koetan; eta egoera hori honen arabera baloratuko da: Eskatzailea izatea udaleko edo foru-aldundiko harrera-etxeen/zentroen erabiltzailea, bere egonaldi-denbora eta bertan jarraitzeko aukerak amaitu eta gero; denboraldi batean etxea bilatzen aritu arren lortu ez izana; eta etxean hartuko duen gizarte-sarerik edo familiarik ez izatea.

¹⁷ EHAA, 2006ko urriaren 11


Era berean, Agindu horren 7.4. artikuluan beste neurri bat ezarri da, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren —Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa— 64. artikuluan xedatutakoari jarraiki; hau da, eskatzailea jabekidea den etxebizitzaren erabilera trukatzeko aukerarekin lotura handiagoa duen neurria, epaileak horretarako baimena eman duen kasuetan¹⁸. Beraz, Lege Organikoan xedatutako neurria da eta, horren bidez, epaileek salbuespenezko ahalmena izango dute erabaki hori hartzeko prozedura judizialen baitan; orain arte, gure erkidegoan ez da horrelakorik gertatu.

2010. urteari dagokionez, hurrengo lerroetan jaso dira ekintza positiboko bi neurri horietako bakoitzari buruzko datuak.

a) Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako kupo berezia

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebide Zerbitzuak emandako datuen arabera, genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatu duten emakumeen 224 espediente dau-de; horiek parte hartzen ari dira alokairu-erregimeneko etxebizitza-esleipenen prozeduretan. Segidan, grafiko bat egin da, 224 espediente horien lurralde-banaketa adierazteko.

20. grafikoa. Genero-indarkeriaren biktima diren eta alokairu-erregimeneko etxebizitza-esleipenen prozeduretan aktibo dauden emakumeen espedienteak, lurralde historikoen arabera (2010)




Iturria: Geuk egina, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta

¹⁸ Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 64. artikulua jasotzen ditu besteak beste etxebizitzatik irteteko, etxebizitzatik urruntzeko edo komunikazioak eteteko neurriak: "Epaileak, salbuespenez, baimendu ahal izango du babestutako pertsonak hitzarmena egitea, agentzia batekin edo, egon dagoen tokian, sozietate publiko batekin, horrek bere jardueren artean etxebizitza-errentamenduak baditu; hitzarmen horren bidez trukatzeko da euren jabekidetzako familia-etxebizitzari eratxikitako erabilera beste etxebizitza baten erabilerarengatik, zehaztutako aldian eta baldintzetan."

Grafikoan ikus daitekeen bezala, espediente gehienak Bizkaikoak dira (123), atzetik, oso urrunetik Arabakoak (59) eta Gipuzkoakoak (42), 2009ko datuekin alderatuz gero tarte txikiagoa dela ikusi bada ere.

Bizikidetza-unitateko kide-kopuruari dagokionez, 21. grafikoan egindako eskaeren banaketa adierazi da; bertan ikus daitekeenez, kasu gehienak (%74,54) bi edo hiru kidek osatutako bizikidetza-unitateei dagozkien espedienteak dira.

21. grafikoa. Genero-indarkeriaren biktima diren eta alokairu-erregimeneko etxebizitza-esleipenen prozeduran aktibo dauden emakumeen espedienteak, bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren arabera (2010)



Iturria: Geuk egina, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta

Bestalde, azpimarratu behar da Etxebiden izena emateko eskabide bakar bat ere ez dela atzera botatzen genero-indarkeriaren biktima ez izateagatik. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitza-arloko ekintza positiboko neurriei buruzko 2006ko urriaren 4ko Aginduaren 3. artikuluan zehaztutako baldintza egiaztatzen ez bada, emakumeek dagokien kupoan hartuko dute parte.

Gogorarazi behar da, halaber, kupo espezifiko batean parte hartzeko aukerak alokairu-erregimeneko prozeduretarako soilik balio duela; beraz, eskatzaileek etxea erosketa-erregimenean eskatuz gero, dagokien kupoan sartuko dira (35 urtez azpikoak, banandutako emakumeak, desgaitasunen bat dutenak...).

Gainera, azpimarratu behar da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dagozkien 224 espediente horiek guztiak salbuetsi egin direla, oro har, baldintza hauek betetzetik:

- Batetik, gutxieneko diru-sarreraren baldintza, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren —Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen

inguruko finantza-neurriei buruzkoa— 19. artikularen amaieran eta 2006ko urriaren 4ko Aginduaren (aurrez aipatua) 7.3. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Horrela, beraz, edozein kupotan sar daiteke aldez aurretik diru-sarrerak egiaztatu beharrik gabe, hau da, 0 eurotik hasita.

- Eta bestetik, parte hartu nahi den edozein udalerritan errolatuta egoteko baldintza, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitza-arloko ekintza positiboko neurriei buruzko Aginduaren 7.3. artikuluan (aurrez aipatua) xedatutakoari jarraiki.

Amaitzeko, 2010. ekitaldiko prozedura arruntetan (hau da, etxebizitzaren zozketan) sartu diren 224 espedienteetatik 19 emakume izan dira esleipendunak; hau da, espediente guztien % 8,48 baino ez (aurreko urtean, berriz, % 4).


Nolanahi ere, adierazi behar da zenbait emakumek ekitaldi horretan zozketarik egin ez den udalerrietan eskatu dutela etxebizitza; badira, halaber, etxea erosketa-erregimenean eskatu dutenak ere eta, beraz, horiek dagokien kupoan hartuko dute parte.

Genero-indarkeriaren biktima zirela egiaztatu zuten 153 emakumeren espedienteak izapidetu ziren 2009an eta errentan hartzeko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan parte hartu zuten.

b) Alokairu-erregimeneko etxebizitzaren zuzeneko esleipenak

Etxebizitzak zuzenean esleitzeko aukera izateko eskabide-kopurua 15 izan da. Oraindik ere, lau espediente dago erabaki gabe, agiriren bat falta baitzaie (22. grafikoa)

22. grafikoa. Alokairu-erregimeneko etxebizitzaren zuzeneko esleipenak, lurralde historikoen arabera (2010)



Iturria: Geuk egina, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta

Alokairu-erregimeneko etxebizitzan zuzeneko esleipen-prozeduretan (Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako kupo bereziaren bidez) parte hartu duten eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen espedienteekin gertatu bezala, zuzeneko esleipen orokorrean ere (neurri handiagoan, gainera) esleipen gehienak Bizkaian egin dira; atzetik datoz Araba eta Gipuzkoa.

Eskaera egin duten instituzioei dagokienez, 26. taulan jaso da horien banaketa.

26. taula. Zuzeneko esleipen-neurria eskatu duten instituzioak (2010)

ESKATZEN DUEN ERAKUNDEA	ESKAERA-KOPURUA
Vitoria-Gasteizko udala	2
Bizkaiko Foru Aldundia	1
Bilbaoko udala	3
Barakaldoko udala	1
Donostiako Udala	2
Bergarako udala	2
GUZTIRA	11

Iturria: Geuk egina, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta

Segidan, 27. taula aurkeztuko dugu; horrek jasotzen ditu neurri horren onuradun izan diren eta, beraz, zuzenean alokairu-erregimeneko etxea esleitu zaien emakumeen ezaugarri soziodemografiko nagusiak (nazionalitatea, adina, egoera zibila eta bizikidetz-unitateko kideak).

27. taula. Zuzeneko esleipenaren onuradun diren emakumeen ezaugarri soziodemografikoak (2010)

EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK	EMAKUME-KOPURUA
NAZIONALITATEA	11
Espainiarra	6
Atzerritarra:	5
Latinoamerikarra	3
Afrikarra	2
Europarra	0
EGOERA ZIBILA	11
Ezkongabea	4
Ezkondua (banantze- edo dibortzio-demanda ezarrita)	1
Banandua	2
Dibortziatua	4

EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK	EMAKUME-KOPURUA
ADINA	11
18 urte baino gutxiago	0
18-30	4
31-40	4
41-50	2
51-60	1
60 baino gehiago	0
BIZIKIDETZA-UNITATEA	11
Kide bat	2
2 kide	6
3 kide	3
4 kide	0
5 kide	0

Iturria: Geuk egina, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta

Naziotasunari dagokionez, neurri horren onuradunen %50 ea espainiarrak dira eta gainerako %50 atzerritarrak.

Bestalde, egoera zibilar dagokionez, azpimarratu behar da zuzeneko esleipenaren onuradun izan diren emakume horien ea % 70 bananduta, dibortzizatuta daudela edo banantze-izapideak egiten ari direla, eta gainerako %30 baina zerbait gehiago ezkongabeak direla.

Adinari dagokionez, laguntza horren onuradun diren emakumeen %36, gutxi gorabehera, 31-40 adin-tartekoa da; 41-50 adin-tartekoa % 18; 51-60 adin-tartekoa % 9; eta, bukatzeko, 18-30 adin-tartekoa % 36.

Bizikidetza-unitateari dagokionez, alokairu-erregimeneko etxea zuzenean esleitu zaien onuradunen % 18 bakarrik bizi diren emakumeak dira, kasuen %54 seme-alaba bakarra duten emakumeak dira eta, kasuen % 28 bi edo hiru seme-alaba dituzten emakumeak dira.

Amaitzeko, zuzeneko esleipenei dagokienez, adierazi behar da etxe horien eskaerak dagokien diputazioak, emakumeak bizi diren udalerrietako alkatetzek edo gai horretan eskumena duten zinegotzigoek izenpetu dituztela (2006ko urriaren 4ko AGINDUaren 6.2. artikulua) eta, horrez gain, eskaera egin aurretik, kasu bakoitza xehetasunez aztertu du etxebizitza-eskaera sinatu duen instituzioak.

3.5.4.4. Enplegu alorreko eskubideak eta laguntzak

Abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuaren bidez, enplegu-alorreko laguntzak arautzen dira; besteak beste, 6.1. h) artikuluan, hau adierazten du talde onuradunei buruz: “Kapitulu honetan ezarritako laguntzen onuradunak pertsona fisiko eta juridikoak izan daitezke, ondokoak izan ezik: administrazio publikoak, erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta horien mendeko enpresa publikoak. Hala ere, salbuespen gisa, toxikomano ohiak kontratatzen direnean, udalak eta udal-erakundeak ere (hala nola, udal-elkarteak, udalerrietako mankomunitateak, koadrilak eta toki- eta eskualde-garapen agentziak) onuradun izan daitezke”. Horretarako, besteak beste, talde hauetako pertsonak kontratatatu behar dituzte: “etxeko indarkeriaren biktima izan diren pertsonak. Pertsona horiek edo beren seme-alabek ezkontidearen edo antzeko afektibitate-harreman baten bidez era egonkorrean lotuta dagoen edo egon zen bikotekidearen indarkeria fisikoa edo psikikoa jasaten dutenean ulertuko da pertsona horiek adierazitako egoeran daudela, betiere gertaera horiek dagokien polizia-erakundearen edo erakunde judizialaren aurrean salatu badira”.

2010. urtean, laguntza-mota horren onuradun izan dira bi enpresa, genero-indarkeriaren biktima diren bi emakume kontratatatu baitituzte; bata lanaldi partzialeko kontratua izan da eta bestea kontratu mugagabea, Donostian.

Gaineratu behar da bi eskaera egin direla kontzeptu horregatik; eta; zenbaketa orokorragoa eginda, 397 laguntza eman zaizkie enpresei, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei nahiz lanean hasteko zailtasun bereziak dituzten beste taldeei enplegua emateagatik; horietatik 211 emakume izan dira eta 186 gizon.

3.5.4.5. Genero-indarkeriarekin lotutako arloetan lan egiten duten elkarte eta erakundeak

Elkarteak dira egonkortasunez ekintza kolektiboak burutzeko elkartzen diren pertsonen taldeak, demokratikoki antolatuta, irabazi asmorik gabe eta Estatu, alderdi politiko eta enpresen mende ez daudenak.

Gizarte-lan handia burutzen dutenez, eta askotan ezezaguna denez, komenigarritzat jo da atal bat gehitzea genero-indarkeriarekin lotuta lan egiten duten elkarte guztien izenak aipatzen dituen; horretaz gain, hau ere labor azalduko dute: zein den burutzen duten ekintza, zein talderekin lan egiten duten eta horren jarduteko eremu geografikoa (28., 29. eta 30. taula).

28. taula. Arabako elkarteak

IZENA	UDALERRIA	TALDEA	JARDUERA NAGUSIA
Aizan	Vitoria-Gasteiz	Genero-indarkeriaren biktimak	Gizartean eta lanean sartzea
Clara Campoamor	Vitoria-Gasteiz	Generoagatik egoera okerragoan dauden pertsonak	Erkidegoaren laguntza
Eginaren Eginez	Vitoria-Gasteiz	Pertsona ezinduak	Aukera-berdintasuna eta Genero-ind.
Gizarterako	Vitoria-Gasteiz	Gizarte-bazterketarako arriskuko pertsonak	Prostituzioan aritzen edo aritu diren emakumeei laguntzea.
Berdintasunaren alde eta genero-indarkeriaren kontra dagoen gizonen taldea.	Vitoria-Gasteiz	Generoagatik egoera okerragoan dauden pertsonak	Erkidegoaren laguntza
Hegala	Vitoria-Gasteiz	Generoagatik egoera okerragoan dauden pertsonak	Gizartean eta lanean sartzea
Sartu	Amurrio	Genero-indarkeriaren biktimak	Gizartean eta lanean sartzea

Iturria: Geuk egina. Eusko Jaurlaritzako datuak. www.direktorioa.net/eus

29. taula. Bizkaiko elkarteak

IZENA	UDALERRIA	TALDEA	JARDUERA NAGUSIA
Aluen Poza	Bilbao	Genero-indarkeriaren biktimak	Aisialdia
Abima	Bilbao	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza
Acamu	Bilbao	Generoagatik egoera okerragoan dauden pertsonak	Orientazioa eta aholkularitza
Adostoki	Bilbao	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza
Agintzari	Bilbao	Adingabeak eta gazteak	Gizarte-hezkuntzako programak
Amikeco	Bilbao	Erasotzaileak berreztea.	Erkidegoaren laguntza
Argitan	Barakaldo	Arazoak dituzten emakumeak	Laguntza psikologikoa, juridikoa eta lanekoa
Ascovige	Portugalete	Genero-indarkeriaren biktimak	Orientazioa
Askabide	Bilbao	Prostituzioaren gertuko pertsonak	Informazioa, sentsibilizazioa, salaketa
Auzolan	Bilbao	Herritar guztiak	Aholkularitza, familia-plangintza...
Avicntedo	Bilbao	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza
Bizi Berriro	Barakaldo	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza
Caridad Luisa de Marillac	Bilbao	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza
Clara Campoamor	Bilbao	Generoagatik egoera okerragoan dauden pertsonak	Erkidegoaren laguntza
Sexu-erasoen kontrako Batzordea	Bilbao	Genero-indarkeriaren biktimak	Orientazioa eta aholkularitza
Besarkatuz	Bilbao	Bazterketarako arriskuko pertsonak	Oinarritzko beharren arreta

.../...

IZENA	UDALERRIA	TALDEA	JARDUERA NAGUSIA
Sin Romi	Bilbao	Genero-indarkeriaren biktimak	Emakume ijitoen taldeari laguntzea
Supergintza	Bilbao	Genero-indarkeriaren biktimak	Zerbitzu teknikoak eta kudeatze-zerbitzuak.
Emakumearen kontrako krimenen Auzitegi Iraunkorra	Bilbao	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza

Iturria: Geuk egina. Eusko Jaurlaritzako datuak. www.direktorioa.net/eus

30. taula. Gipuzkoako elkarteak

IZENA	UDALERRIA	TALDEA	JARDUERA NAGUSIA
Acovidem	Donostia-San Sebastián	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza
Asfamogi	Donostia-San Sebastián Arrasate	Guraso bakarreko familiak	Aholkularitza. Orientazioa
Aukera	Donostia-San Sebastián	Prostituzioan aritzen diren pertsonak	Osasun, lan arloko orientazioa
Bekoz Beko	Pasaia	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza
Cáritas	Donostia-San Sebastián	Gizarte-bazterketarako arriskuko pertsonak	Gizartean eta lanean sartzea
Cruz Roja	Donostia-San Sebastián	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza
Eraldatzen	Zumarraga	Emakumeak	Genero-indarkeriari buruzko sentsibilizazioa
Garraldi	Donostia-San Sebastián	Generoagatik egoera okerragoan dauden pertsonak	Aisialdia
Gaurko Andreak-Berdintasunaren	Irun	Genero-indarkeriaren biktimak	Erkidegoaren laguntza
Ialde	Donostia-San Sebastián	Hautzaroa	Genero-indarkeriari laguntzea
Kimetz	Ordizia	Emakumeak	Genero-indarkeriari buruzko sentsibilizazioa
Malen Etxea	Zumaia	Atzerritarrak eta errefuxiatuak	Orientazioa eta integrazioa

Iturria: Geuk egina. Eusko Jaurlaritzako datuak. www.direktorioa.net/eus

3.6. ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA

Genero-indarkeriaren sustraiak daude emakumeak hainbat eremutan jasaten duen egitura-desberdintasun egoeran sartuta eta, sexuaren arabera, rolak banatzeko ohiko moduan eta familia eta gizarte arduretan mantentzen da; horrek kokatzen ditu emakumeak gizonaren mende.

Gizarte-arazo larri horri aurre egiteko, funtsezkoa da erakundeen inplikazioa eta erakundeen arteko koordinazioa.

Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza arduratzen da genero-indarkeriaren biktimen prebentziorako eta horiei laguntzeko programa integralak egiteko koordinazioaz, hainbat erakunde publikoren eta administrazio publikoren artean.

EAEen gauzatzen da koordinazio hori, Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bidez, etxeko tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta hobea ematea helburu hartuta, baita beste koordinazio-formula batzuen bidez ere aipatu ez diren genero-indarkeriaren beste adierazpen batzuetan.

Bestalde, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak koordinatu behar du Eusko Jaurlaritzaren politika, genero-indarkeriaren alorrean; horretarako, Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren baitan garatutako genero-indarkeriaren biktimen prebentziorako eta horiei laguntzeko programak eta proiektuak gainbegiratuko ditu eta horien jarraipena egingo du, Zuzendaritza Gobernuaren leihatila bakarra eratzeke Dekretuan aurreikusitako Sail arteko Batzordearen bidez.

3.7. POLIZIA-JARDUERA¹⁹

3.7.1. Arriskua neurtzeko irizpideak eta irizpide horiek aplikatzeko protokoloak

Ertzaintzak kalitatea kudeatzeko sistemaren baitan du Etxeko eta/edo Genero Indarkeriaren Prozesua; zehazki, AENOREk ziurtatzen du komisaria guztietan, UNE IN ISO 9001-2000 arauaren bidez.

Prozesu horretan deskribatzen da etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima bizi den arrisku-egoera ebaluatzeko modua; hau da, arrisku-maila identifikatu eta poliziaren babes-neurriak zehazten dira, kasu eta egoera bakoitzaren arabera.

¹⁹ Paragrafo honek jasotako informazioa Ertzaintzaren Zuzendaritzako Idazkaritza Teknikoak eman du.

Etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktima batek duen arriskua neurtzeko zehaztutako sisteman, arrisku-maila ezartzen da kasu bakoitzaren ageriko eta zuzeneko alderdiei buruzko datu objektiboak eta subjektiboak oinarri hartuta; hau da, biktimak eta erasotzaileak emandako informazioa, esku hartu duten polizia-baliabideek emandakoa, gertaeraren lekua, lekukoak eta eskuragarri dauden datuen oinarriak.

Balorazio horiek hainbat pertsonak egiten ditu komisariako egituraren baitan, bai eta momentu desberdinetan ere. Arriskua neurtzeko sistema hori EHUKo talde baten laguntzaz egin zen, Enrique Etxeburua Psikologiako katedradunaren zuzendaritzapean. Egiten diren balorazioetan, arriskua maila hauen arabera banatzen da: oinarritzkoa, altua eta berezia.

2009. urtean, Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bultzatuta, eskala berrikusi eta balioztatu zen; horrez gain, 2010. urtean eskala horren fidagarritasuna eta baliozkotasuna handitzeko ezarriko diren zenbait ezaugarri sartu dira: itemen haztapen berezia horien diskriminazio-ahalmenaren arabera.

3.7.2. Poliziaren babes-neurriak abian jartzeko baldintzak edo betekizunak

Ertzaintzak El/Glko biktima baten berri izan bezain laster (salaketagatik, jarduteagatik, ofizioz...), biktimaren egoera ebaluatzen du, eta kasu eta egoera bakoitzean egoki diren babes-neurri polizialak esleitzen dizkio. Halaber, espediente bat irekitzen da eta han jasota geratzen dira biktimari eta erasotzaileari buruzko informazio guztiak.

Arrisku-egoera neurtzea eta, horren ondorioz, poliziaren babes-neurriak hartzea Operazioen Buruzagitzari dagokio, lehenik eta behin.

Gero, espedientea bideratzeko ardura duen taldeak aztertu behar du, eta hartutako erabakia eta jarritako babes-neurri polizialak berretsi edo aldatu behar ditu. Ebaluazioaren arduradunak du El/Glko espedientean sartzeko ardura. Arriskua ebaluatzea eta babes-neurri polizialak hartzea berritu egin behar dira kasuari buruzko datu berriak jakiten diren bakoitzean; eta, edonola ere, berriro egin behar dira kasu hauetan guztietan:

- El/Gl jazoera bati buruzko “Zutabe” jarduera (baliabide informatikoa) itxi ostean.
- El/Glko salaketa aurkeztu ostean.
- El/Glko jazoera bati buruzko argitze-agiria epaitegira lehen aldiz bidali ostean.
- Babesari buruzko epaile-erabakia jaso ostean.
- Biktimarekin aldi berean behingo elkarrizketa egin ostean.

Zehazki, hauek dira har daitezkeen poliziaren babes-neurriak:

- Zaintza iraunkorra.
- Prebentzio-jarduerak egunerokoan.
- Prebentzio-jarduerak babes-eremuan.

- Babes-operatibo bereziak.
- Biktimei egiten zaizkien ausazko bisitak.
- Erasotzailea zaintzea eta haren jarraipena egitea.
- Ausazko egiaztatzeak telefono-deien bidez.
- Lekualdatzeak eta laguntzeak.
- Autobabeserako neurrien arloko prestakuntza.
- “Bortxa” telefonoa (Ertzaintzarekin zuzeneko harremana izateko telefono mugikorra, baliabideak berehala mugitzeko). Sistema hori erabiltzen da, biktimekin ahalik eta harreman zuzenena eta azkarrena izateko.
- Beste batzuk.

3.7.3. Hainbat arrisku-egoeren aurrean abian jartzen diren neurri zehatzak

Arrisku mailaren arabera, babes-neurri polizial batzuk nahitaez eman behar ditu Ertzaintzak, eta beste batzuk, berriz, biktimari eskaintzen zaizkion hautazko neurriak dira.

Oinarrizko arriskuaren mailan derrigorrezkoak dira:

- Auto-babeserako neurrien arloko prestakuntza.
- Ausazko egiaztatzeak telefono-deien bidez.

Oinarrizko arriskuaren mailan, aukerakoak dira:

- Ausazko bisitak biktimari.
- Lekualdatzeak eta laguntzeak.
- Babes-operatibo bereziak.
- Prebentzio-jarduerak babes-eremuan.
- Prebentzio-jarduerak egunerokoan.
- Baliabide teknologikoak: Bortxa telefonoa eskaini.
- Erasotzailea zaintzea eta haren jarraipena egitea.

Arrisku-maila altuan eta berezian, nahitaezkoak dira:

- Autobabeserako neurrien arloko prestakuntza.
- Ausazko egiaztatzeak telefono-deien bidez.
- Baliabide teknologikoak: Bortxa telefonoa eskaini.

Arrisku-maila altuan eta berezian, berriz, aukerakoak dira neurri hauek:

- Ausazko bisitak biktimari.

- Lekualdatzeak eta laguntzeak.
- Babes-operatibo bereziak.
- Prebentzio-jarduerak babes-eremuan.
- Prebentzio-jarduerak egunerokoan.
- Erasotzailea zaintzea eta haren jarraipena egitea.

Arrisku-maila *berezian* etengabeko zaintza ere hautazkoa da.

3.7.4. Arriskurik eza eta, horren ondorioz, babes-neurrien premiarik eza aztertzeako irizpideak eta/edo horiek eteteko jarraibideak

Espedientea bideratzeko ardura duen taldeak erabakiko du noiz itxiko duen espediente hori behin betiko, edo noiz artxibatuko duen behin-behinean.

Behin-behinean artxibatzeak aldi baterako egoera dakar eta espedientea bideratzeko ardura duen taldeak berrikusi egin beharko du geroago, egoera aldatu den ikusteko eta behin betiko ixtea edo kasua berriz irekitzea erabakitzeke.

El/Glko espediente bat behin-behinean artxibatu daiteke edota behin betiko itxi daiteke kasu hauetan:

- Gutxienez bi hilabete baino gehiagoan, biktima EAetik kanpo biziko dela jakitea.
- Babeserako epaile-ebazpena indarrean ez egotea, biktimen arrisku-maila altua edo berezia ez izatea, eta biktimak adieraztea azken hiru hilabeteetan ez duela tratatu txarrik pairatu. Azken kasu horretan, indarkeriazko gertakari gabeko epe baten ondoren behin-behinean artxibatzen da eta, hurrengo hiru hilabeteetan egoera berdina izanez gero, espedientea behin betiko ixten da.
- Erasotzaileak mugitzeko askatasunik ez badauka; hau da, atxilotuta, presondegian, ospitalean... baldin badago.
- Erasotzailea edo biktima bera hilez gero.
- Udaltzaingoak kasuaren ardura duenean.

Operazio-buruak edo espedientea bideratzeko ardura duen taldeak erabakitzen badu babes-neurri polizialak indargabetzea, espedientean datu hauek adierazi behar ditu:

- Erabakia noiz hartuko den (eguna eta ordua).
- Erasotzailea zenbat denboran egongo den mugitzeko askatasunik gabe, aurreikuspenen arabera.
- Indargabetzearen arrazoia.
- Erasotzaileak egoera horretan jarraitzen duela egiaztatzeke egin beharreko kudeaketa eta nork egin behar dituen kudeaketa-lan horiek.

Itxitako edo behin-behinean artxibatutako espedienteak berrireki behar dira biktimak berriro EI/GIko jazoerak pairatu dituela jakinez gero.

Dena dela, kasua udaltzaingoren bati badagokio ere, udaltzaingo horrekin batera biktima babesten arituz gero, neurriak aktibatuko dira eta gauzatzen ari diren eginkizunak espedienteen adieraziko dira.

Operazio-buruak aldeztu aurretik indargabetzea erabakiz gero, espedienteak bideratzeko ardura duen taldeak aztertu beharko du, erabaki hori berresteko, aldatzeko edo baliogabetzeko, ebaluazio berri bat eginez, hartutako erabakia eta ezarritako babes-neurri polizialak berretsiko edo aldatuko dituen.

2010 urtean 3.071 EI/GIko espediente ireki ziren. Espediente horietan 2.928 emakume daude; horietatik, 2.738 sartu dira lehenengoz, 2010ean.

2010ean eten diren babes-neurriak eta erabaki hori eragin duten kausei buruzko datuak 31. taulan adierazi dira. Bertan ikus daitekeenez, etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren 4.568 espediente artxibatu dira behin-behinean edo itxi dira behin betiko; funtsean, hiru hilabetearen erasoak izan ez dela-eta behin-behinean artxibatu diren espedienteak eta sei hilabetearen gertaerarik izan ez dela-eta behin betiko itxi diren espedienteak azpimarratu behar dira (behin-behinean artxibatutako edo behin betiko itxitako espedienteen %52 eta %89,5, hurrenez hurren).

31. taula. Babes-neurriak etetea eta horien kausak (2010)

BABES-NEURRIAK ETETEA ETA HORIEN KAUSAK	ESPEDIENTE-KOPURUA	
	2010EAN IREKITA	GUZTIRA
Behin betiko ixtea, erasoaren ondorioz biktima hil delako.	2	4*
Behin betiko ixtea, beste arrazoi batzuen ondorioz biktima hiltzeagatik	3	9
Erasotzailearen heriotza dela-eta, behin betiko ixtea	6	50
Behin-behinean artxibatzea, erasoak ez egoteagatik (3 hilabete)	539	1.187
Behin betiko ixtea, erasoak ez egoteagatik (6 hilabete)	384	2.900
Bizilekuz aldatzea dela-eta, behin-behinean artxibatzea	10	21
Bizilekuz aldatzea dela-eta, behin betiko ixtea	112	291
Behin betiko ixtea, titulartasuna beste polizia batzuei pasatzeagatik	7	8
EI-GIren ezaugarriak ez betetzeagatik ixtea.	78	98
ARTXIBATUTAKO ETA ITXITAKO EI-GIren ESPEDIENTEAK GUZTIRA	1.141	4.568

Iturria: Geuk eginda, Ertzaintzaren Zuzendaritzako Idazkaritza Teknikoak emandako datuak oinarri hartuta.

* Espediente batek 2005ean zuen irekitzeko data eta besteak 2009an. 2009an argitaratutako datuak urte horretan irekitako espedienteak dagozkie.

3.7.5. Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko koordinazio-neurriak

Ertzaintzaren eta hainbat udaltzaingoren artean eratutako koordinazio-batzordeen baitan, etxeko indarkeria eta/edo genero-indarkeria aztertzen da; funtsean, bi akordio-mota daude:

- 1) Kasuaren erantzukizuna ebazten da gertaeraren berri lehenengo izaten duen polizia-erakundeari ematen dioten akordioen bidez; informazioa trukatzuz ezagutza hori osatuko dute, kasu bakoitzean gerta daitekeen larrialdiari behar bezala erantzuteko, batez ere.
- 2) Akordio zehatzak edo isilpekoak; horien erantzukizuna beti Ertzaintzak izango du eta, horiek osatzeko, kasu larrienei buruzko informazioa emango da (babes-aginduak, arrisku-maila berezia...), kasu bakoitzean gerta daitekeen larrialdi-egoerari erantzuteko, batez ere.

Laburbilduz, informazioa Etxeko indarkeriaren eta/edo Genero-indarkeriaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren baitan “berehalako jarduerarako jarraibideak” atalean zehaztu da. Horien bidez, biktimari ulertarazi nahi diote oso garrantzitsua dela berak informazioa ematea; horrela, indarkeriazko beste gertaera bat izan eta patruilek jardun behar izanez gero, hobeto ezagutuko dituzte kasu bakoitzaren xehetasunak eta biktimaren nahiak: nori abisatu, seme-alabekin zer egin, etab.

Hori dela-eta, gai hauei buruzko informazioa bildu nahi izaten da:

- Erasotzailearen arriskugarritasuna (altua/ertaina/baxua).
- Aurreko gertaeretako jokabide bortitzak (bai/ez).
- Armen erabilera (bai/ez) eta arma-motaren kodetzea.
- Polizia-aurrekariak.
- Gaixotasunak direla-eta kutsatzeko arriskua (bai/ez).
- Biktimak izendatutako pertsonen egin behar zaizkien jakinarazpenak.
- Biktimarekin edo adingabeekin egin beharreko jarduerak.
- Egin daitezkeen lekualdatzeak.

Orain arte, horrelako hitzarmenak egin dira polizia-etxeen eta udaltzaingoa duten udalerrien artean:

a) Araban:

- Gasteizko ertzain-etxea: Gasteizko Udaltzaingoarekin egindako protokoloa; eta horretan adostu denez, etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren ondorioz egiten diren jardueretan, jazoera horien berri aurrena duen polizia-kidegoak du titulartasuna. Gainera, kasuei buruzko informazioa trukatzeko dute.

- **Laudioko ertzain-etxea:** Laudioko eta Amurrioko Udaltzaingoekin ez dago sinatutako protokolorik, baina Babes-aginduei buruzko informazioa trukatzeko da, larrialdietan biktimari arreta hobea emateko.
- **Guardiako ertzain-etxea:** Guardiako udaltzaingoekin ez dago sinatutako protokolorik, baina informazioa trukatzeko akordioa dago, larrialdietan biktimari arreta hobea emateko.

b) Bizkaian:

- **Balmasedako ertzain-etxea:** 2009an, Zalla eta Gordexola udalekin protokoloa sinatu da, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak urgentziari erantzuteko. Balmasedako eta Gueñeseko Udaltzaingoekin sinatutako akordioaren bidez, Ertzaintza EI/GI-ko kasu guztiez arduratzen da eta, aldian behin, udaltzaingoei informazioa emango diete.
- **Basauriko ertzain-etxea:** 2005ean, Basauriko udaltzaingoekin protokoloa sinatu da eta horren bidez adostu da, etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren ondorioz egiten diren jardueretan, jazoera horien berri aurrena duen polizia-kidegoak duela titulartasuna.

Etxebarriko Udaltzaingoari dagokionez, hauxe adostu zen: Ertzaintza bakarrik arduratzen da udalerri horretako EI/GI-ko kasuez eta, aldian behin, informazioa ematen du.

- **Bilbaoko ertzain-etxea:** Bilbaoko Udaltzaingoarekin egindako protokoloa, 2009an; eta, horretan adostu denez, etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren ondorioz egiten diren jardueretan, jazoera horien berri aurrena duen polizia-kidegoak du titulartasuna. Informazioa trukea eta urgentziari erantzutea.
- **Durangoko ertzain-etxea:** 2006an, Durangoko Udaltzaingoekin protokoloa sinatu zen, Alkatetzaren Dekretuak onartuta, informazioa emateko eta urgentziari erantzuteko. 2008. urtean, Amorebietako Udaltzaingoekin protokoloa sinatu zen; horretan adostu egiten da informazioa trukea eta urgentziari erantzutea.

Abadiño, Areatza, Dima eta Elorriko udalerrietan, Ertzaintza bakarrik arduratzen da EI/GI-ko kasuez eta, aldian behin, informazioa ematen du.

- **Erandioko ertzain-etxea:** 2007an, Derio, Erandio, Leioa eta Sondikako udalerriekin sinatutako protokoloak, Koordinazio Batzordearen bidez, informazioa emateko eta urgentziari erantzuteko.
- **Galdakaoko ertzain-etxea:** 2010ean, Galdakao, Ugao-Miraballes eta Arrigorriagako udaltzaingoekin sinatu dira protokoloak. Ertzaintza bakarrik du kasuak kudeatzeko eta kontrolatzeko titulartasuna eta, aldian behin, informazioa emango du. Galdakaoko Udaltzaingoari dagokionez, kasu larrienei buruzko informazioa ematen da.
- **Gernikako ertzain-etxea:** 2009an, Udaltzaingoak dituzten udalerriek (Gernika, Bermeo, Mungia, Bakio) buruz, Koordinazio Batzordeak adierazi zuen, gai horretan

Ertzaintzak bakarrik duela erantzunkizuna eta biktimaren bizitokiko udalerriko udaltzaingoaren informazio trukea izango duela.

- Getxoko ertzain-etxea: 2009an, udalarekin sinatu da erakunde arteko Akordioa; horrek jasotzen du EI/GI-ko biktimei laguntzeko Getxoko Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren laguntza-prozedura.

2009ko amaieran, Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatearen protokoloa sinatu zen, EI/GI-ko kasuetarako Ertzaintzaren titulartasun soilaren akordioa jasotzen duena Gorliz, Sopela, Berango, Plentzia, Barrika, Urduliz eta Lemoiz udalerrietarako; aldiari behin, informazioa emango da.

- Muskizko ertzain-etxea: 2007an, Santurtzi eta Portugaleteko Udaltzaingoekin protokoloa sinatu zen; horretan adostu da etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren ondorioz egiten diren jardueretan, jazoera horien berri aurrean duen polizia-kidegoak duela titulartasuna. Informazio trukea, urgentziari erantzuteko.

Abanto-Zierbenako udalaren eta Ertzaintzaren arteko akordioa, Udaltzaingoko eta Ertzaintzako urgentziazko jarduerak.

Muskiz eta Ortuellako udalerrietan, Ertzaintza bakarrik arduratzen da EI/GI-ko kasuek eta, aldiari behin, informazioa ematen du.

- Ondarroako ertzain-etxea: 2005ean, Markina, Lekeitio eta Ondarroako protokoloak sinatu ziren, informazio trukea eta urgentziari erantzutea adosteko.
- Sestaoko ertzain-etxea: 2010ean, Barakaldoko Udaltzaingoarekin protokoloa sinatu zen; horren bidez, erantzundako kasuekin lotutako eginbideak eta argiketak egiten dituzte eta, jarraian, informazioaren berri Ertzaintzari ematen diote, kasuaren segimendua egiteko.

Sestaoko Udaltzaingoekin ez da protokolorik sinatu; dena dela, Barakaldoko Udaltzaingoaren antzera funtzionatzen du.

- Gaur egun, Trapagarango Udaltzaingoarekin lan egiten ari gara protokolo bat egiteko.

c) Gipuzkoan:

- Azkoitiko ertzain-etxea: ez da akordiorik sinatu. Ertzaintzak erantzuten die kasuei eta Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako Udaltzaingoaren informazio trukea dute, biktimari urgentziaren aurrean erantzuteko.
- Beasaingo ertzain-etxea: ez da akordiorik sinatu. Ertzaintzak erantzuten die kasuei eta Beasain, Ordizia eta Lazkaoko Udaltzaingoaren informazio trukea dute, biktimari urgentziaren aurrean erantzuteko.
- Bergarako ertzain-etxea: ez da akordiorik sinatu. Ertzaintzak erantzuten die kasuei eta Bergara eta Arrasateko, Oiñati, Sorluze eta Aretxabaletako Udaltzaingoaren informazio trukea dute, biktimari urgentziaren aurrean erantzuteko.

- Donostiako ertzain-etxea: ez dago protokolorik. Ertzaintzaren baliabideek erantzuten diete El/GI-ko jazoaldi guztiei, Donostiako Udaltzaingoak berak lehenago jakin dituenak salbu; horrelakoetan, hasieratik amaitu arte arduratuko da.
- Eibarreko ertzain-etxea: 2007an, Elgoibar, Deba eta Mutrikuko Udaltzaingoekin protokoloa sinatu zen; horren bidez, Ertzaintzak hartzen du bere gain kasu guztien titulartasuna eta horri buruzko informazioa ere emango du.

Eibar eta Ermuako Udaltzaingoekin ez da protokolorik sinatu, baina titulartasuna ere Ertzaintzarena da bakarrik udalerri horietan; horri buruzko informazioa ere emango du urgentziari erantzuteko.

- Hernaniko ertzain-etxea: ez da protokolorik sinatu. Ertzaintzak erantzuten die kasuei eta Hernani, Lasarte, Andoain, Astigarraga, Billabona, Urnieta eta Usurbilgo Udaltzaingoen informazio trukea dute, biktimari urgentziaren aurrean erantzuteko.
- Irungo ertzain-etxea: 2007an sinatu zen protokoloaren bidez, Ertzaintzak erantzuten dien kasuei, nahiz eta, hasiera batean, Irun eta Hondarribiako Udaltzaingoei, kasuaren lehengo ezagutza izatean, hasierako izapideak egin; geroxeago, Ertzaintzari pasatuko diote eta harremana mantendu egiten da biktimari urgentziaren aurrean erantzuteko.
- Errenteriako ertzain-etxea: ez da protokolorik sinatu. Ertzaintzak erantzuten die kasuei eta Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzungo Udaltzaingoen informazio trukea dute, biktimari urgentziaren aurrean erantzuteko.

2010ean, Errenteria, Osakidetza eta Ertzaintzak protokoloa sinatu zuten.

- Tolosako ertzain-etxea: Ez dago protokolorik, bai ordea akordioa Tolosako Udaltzaingoarekin. Ertzaintzak erantzuten die kasuei eta informazioa ematen du, urgentziari erantzuteko.
- Zarautzeko ertzain-etxea: 2008an, Zarautzeko udalarekin erakundeen arteko akordioa sinatu zen; horretan zehazten da Ertzaintzak erantzungo diela kasuei eta Zarautz, Orio eta Zumaiako udaltzaingoei informazioa emango diela, urgentziaren aurrean biktimari erantzuteko.
- Zumarragako ertzain-etxea: ez da protokolorik sinatu. Ertzaintzak erantzuten die kasuei eta Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko Udaltzaingoei informazioa emango die, biktimari urgentziaren aurrean erantzuteko.



ETORKIZUNeko ERRONKAK

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren etorkizuneko erronken zirriborroa egitea errazteko asmoz, zazpi elkarrizketa burutu dira, hain zuzen, genero-indarkerian gutxien arautu, landu diren eremuetan, edo eremu ahaztuetan lan egiten ari diren entitateko aditu eta profesionalekin. Ildo horretan, hauek elkarrizketatu dira:

- Fekoor (gutxitasun fisikoa edo/ta organikoa duten Bizkaiko pertsonak) eta Munduko Medikuek izenekoan ordezkaria, bereziki ahulak diren genero-indarkeriaren biktimen alorrean (urritasuna duten emakumeak eta atzerritarrak, hurrenez hurren).
- Save the Children izenekoaren ordezkaria, adingabekoen alorrean, emakume-biktimen seme-alabak, hain zuzen.
- Askabideko ordezkaria, protituzioan aritzen diren eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen alorrean (bezeroek eragindako indarkeriaren biktimak, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak, etab.).
- Mar Casas aditu gisa eta Urtxintxaren ordezkaria, genero-indarkeriaren biktimak diren emakume gazteen alorrean.
- Lucia Martínez Odriozola, komunikabideetan genero-indarkeriaren tratamenduan aditua.

GENERO INDARKERIA ETA EZINTASUNA-DIBERTSITATE FUNTZIONALA

Hobetu beharreko arloak

- Genero-indarkeriaren arloan, laguntzari, sentsibilizazioari eta prebentzioari zuzendutako baliabide publiko eta pribatuak ez daude egokituta emakume ezinduen talde espezifikoren beharretara.
- Informazioa ezin da eskuratu urritasun guztiek ulertzeko eta iristeko formatuetan. Esaterako, ikusteko urritasuna duten emakumeek irakurtzeko formatu egokia behar dute.
- Langileek ez dute urritasunei buruzko prestakuntzarik, beraz ez dakite zein berezitasun eta behar dituzten; horrek ekar dezake aurreiritzien bidez funtzionatzea. Ezintasuna duten emakumeek jasaten dute bizitzeko behar dutenen indarkeria. Horregatik ez dituzte erasotzaileak salatzen.
- Baliabideak ez daude emakume ezinduei egokituta (harrera-pisuak, diru-baliabideak, laguntza pertsonaleko beharrak,...). Ertzain-etxeak ez dira iristeko errazak, beraz salaketa jartzea zaila gertatzen da. Poliziaren ibilgailuak ez daude egokituta lekuz aldatzeko mugitzeko arazoak dituen emakumea, urgentzia kasuetan.
- Irratiko, telebistako eta prentsako iragarkiek ez dute erakusten gurpil aukietan doan edo makuluak darabilen emakume erabiltzailea.

Erronkak

- Oro har, genero-indarkeriaren emakume-biktimei laguntzeko alorrean nahasitako profesionalek prestakuntza izan beharko lukete, urritasun guztien eremuan.
- Emakume ezinduei egokitutako harrera-baliabide gehiago eta hobeak eduki ahal izatea.
- Harrera-baliabideak, diru-laguntzak, laguntza pertsonaleko zerbitzua, etab. eskuragarri izan.
- Emakume ezinduen parte hartzea kontuan hartzea, eskainitako zerbitzuak hobetzeko asmoz.
- Sentsibilizazio eta prebentzio kanpainetan emakume ezinduak agertaraztea.

GENERO INDARKERIA ETA INMIGRAZIOA-KULTURA-DIBERTSITATEA

Hobetu beharreko arloak

- Atzerriko emakumeen artean informazio eza handia dago, genero-indarkeriaren inguruan dauden neurri, baliabide eta zerbitzuei dagokienez.
- Askotan, bizi duten egoera larriari aurre egiteko autonomia-maila nahikorik ez duten emakumeak dira, muturrekoa den sufritzeko mailak laguntza bila mugiarazten baditu ere.

Erronkak

- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen arteko esperientziak partekatzen laguntzen duten jarduerak antolatzea.
- Atzerriko emakumeak ahalduntzea.
- Genero-ikuspegia legegintza-sisteman txertatzea.

GENERO INDARKERIA ETA GAZTERIA

Hobetu beharreko arloak

- Oztopo handia da adierazle goiztiarren bidez ez jakitea nerabeen arteko abusuzko harremana dagoela edo indarkeria-zikloa ez ezagutzea.
- Adingabeek ez dakite genero-indarkeriaren biktimak direnik indarkeria fisikoa edo hitzezkoa agertu arte; izan ere, burura datorkien irudia da emakume helduarena, ezkondata eta ardurapeko adingabeak dituen eta bere bizitza osoan genero-indarkeria jasan duena.
- Irakasleen artean nolabaiteko normalizazioa eta tolerantzia gertatzen da abusu psikologiko edo hitzezko abusuaren hainbat modurekin.

- Ikastetxeetan, abian jarritako prebentzio programak ez daude oso egokitura nerabeen errealitatera.

Erronkak

- Eskoletan, genero-indarkeria prebenitzea da hezkuntza-maila osoa hartzea, haur hezkuntzatik batxilergora, ikasleen eboluzio-aldiari egokituz.
- Hezkuntza emozionalari heltzea eta indarkeria prebenitzea, baita sexuen arteko harreman osasungarriak sustatzea, haur hezkuntzan zein lehen hezkuntzan. Genero-estereotipoak eta rola transmititzea saihestuko da, umeei horiek gabeko identitate propioa gara ditzaten.
- Bigarren hezkuntzan, benetako harreman afektiboak direnean, alderdi hauek lantzea komeni da:
 - Norbere burua ezagutzearen eta autoestimua aldatzea.
 - Indarkeriazko harremanaren dinamika ezagutzea, harreman osasungarriaren aldera.
 - Indarkeria-zikloa zer den eta zergatik den hain zaila abusuzko harremanetatik ihes egitea jakitea.
 - Erkidegoak dituen laguntza-baliabideak ezagutzea, horietaz baliatzeko behar denean.
 - Nerabeen artean dagoen abusu psikologikoaren normalizazioarekin lan egitea.
 - Maitasun erromantikoaren mitoak lantzea.
 - Hezkuntza psiko-sexuala lantzea.
- Genero-indarkeriaren arazoari eta sexuen arteko benetako berdintasunari buruz irakasleak prestatzea.

GENERO INDARKERIA ETA ADINGABEAK

Hobetu beharreko arloak

- Genero-indarkeriaren emakume biktimei emandako laguntza osoak bazterrean utzi du seme-alaba adingabei arreta eskaintzea, beraz, berriz ere, pentsatu behar dugu emakumearen oneratzeko bere seme-alaben oneratzeko ere ekarri behar duela.

Erronkak

- Adingabeen datuak sartzeko beharrezkoa da. Horrela gara daitezke errealitateari egokitutako jarduerak.
- Baliabide eta administrazio guztien arteko koordinazioa hobetzea, genero-indarkeriaren emakume biktimen seme-alaben —adingabeen— behar espezifikoak

aurre egiteko jarduera-plana edo protokoloa ezartzeko asmoz. Izan ere, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko sistema eta seme-alabak atenditzeko ardura duten instituzioen arteko koordinaziorik ez dago eta.

- Gertakari horren berri emango duten azterketa eta ikerketak sustatzea, genero-indarkeriak dituen ondorioen gaineko azterketa egiteko asmoz, belaunaldien artean indarkeria transmititzearen bidez.
- Profesionalak prestatzea sustatuko da, emakumea babesteko eremukoa zein haurtzaroari laguntzearekin lotutako eremu guztietakoak. Prestakuntza horrek generoaren ikuspegia izan beharko luke, haurtzaroaren eskubideak, inola ere, galdu gabe.
- Emakume horien seme-alaben beharrei lagunduko dieten kalitate-errekurtsoak garatzea, egoitza-zentroetan gune fisikoak egokituz, profesionalak prestatuz, etab.
- Talde hori ikustea. Izan ere, kontuan hartu behar da genero-indarkeriaren emakume biktimen seme-alaba asko ez direla ikusten, ez baita kontuan hartzen ez beraien iritzia ezta bizipenak ere ez, dagozkien erabakiak hartzerakoan. Era berean, ez da garatzen indarkeria horrek beraien bizitzan izan dituen ondorioei aurre egiteko eta erantzuteko lanik.
- Emakumeekin lan egin ama-rola indartzeko eta seme-alabekin dituzten lotura afektiboak sendotzeko.

GENERO INDARKERIA ETA PROSTITUZIOA

Hobetu beharreko arloak

- Baliabide materialak eta giza-baliabideak, bereziki taldeari zuzendutakoak ez dira nahikoak.
- Erasotzailearen errepresalien beldur egoteak, administrazio-egoera irregularrak, administrazioek zalantzan jarri izanaren sentimenduak edo sistema judizialarekin konfiantzarik ezak emakumeak bultzatzen dituzte indarkeria-kasuak ez salatzerara.

Erronkak

- Babesteko neurriak eta tresnak eskatzen jarraitzea, emakumeek erantzun ahal izateko jarduera hori egiteko baldintzetan eta tokietan gertatzen ari den abusu eta esplotazioari. Informazioaren alde lan egiten jarraitzea, abusuaren eta esplotazioaren kontrako ezinbesteko tresna gisa.
- Legea betearaztea emakumearen kontrako delitua gertatzen den kasu guztietan, esaterako: salerosketa, haur-prostituzioa, behartutako prostituzioa, bezeroarekin izandako indarkeria egoerak; betiere lehentasuna emango zaio egoera horretan dauden emakumeen babesari, segurtasunari eta erabakiari.

- Emakume horiek ez hartzea biktima soil gisa, horrek baliogabetzen baititu solaskide baliodun gisa; aldiz, bizi duten errealitatea aldatzeko protagonista eta gako bihurtu.
- Prostituzioaren bezeroekin lan egitea, sentsibilizatzeko eta emakumearekiko eskaera eta portaeren arduradun egiteko asmoz, jarrerak aldatzeko eta horrela prostituzioan aritzen direnen bizitza-kalitatea hobetzeko.

GENERO INDARKERIA ETA KOMUNIKABIDEAK

Hobetu beharreko arloak

- Komunikabide eta profesional batzuek ez dute behin ere pentsatzen genero-eskemak eta estereotipoak berriro gertatzen ari diren ala ez.
- Genero-indarkeria dago emakumea erahil edo eraso egin dutenean.
- Profesionalek ez diete testuingururik ematen berriei. Ez dute esaten zeintzuk izan diren arrazoiak hilketa edo sexu-erasoaldia gertatzeko.

Erronkak

- Genero-indarkeriaren berriei beti eman testuingurua, horrelakoak zergatik gertatzen direnaren gako publikoari emanez.
- Biktimizazioa saihestea, hau da, biktimei buruz hainbeste ez hitz egitea, aurrera atera diren, saiatu diren eta guztiz oneratu diren emakumeei buruz baizik.
- Erasotzaileak delinkuentetzat hartu.
- Profesionalek hobeto espezializatzea genero-indarkeriarekin lotutako gaitan.

Horren ondorioz, eta genero-indarkeriaren arazoarekin lotutako hainbat kontu hobetzeko arloak ikusita, funtsezkoa dirudi hurrengo urteetan hainbat jarduera burutzea, alderdi hauekin lotuta:

- *Genero-indarkeria, adingabekoak eta gazteak*: egindako elkarrizketetan egin bezala, prebentzioa da funtsezko estrategia herritarren kontzientzian aldaketa sustatzeko. Horretarako, beharrezkoa da eragile sozializatzaile guztiak sartzea, imotasunez, konpromenez eta modu sentsibilizatuaz.
- *Genero-indarkeria eta komunikabideak*: komunikabideek genero-indarkeriaren ondoriozko heriotzez baino ez dute informaziorik ematen, baina ez dute gogoan hartzen gertakari horren kausalitate anitza, familiengan, ingurune hurbilean eta bere erkidegoan duen ondorioez gain. Inportantea da islatzea genero-indarkeria mota horren kontra emakumeen borroka eta erresistentzia, eta objeto pasibotik subjeto aktibo bihurtzea.



JARDUERA-ARDATZAK ETA
ZUZENDARITZAREN EKINTZAK

Bukatzeko, eta txosten hau amaitzeko, hurrengo lerroetan aurkeztuko dira Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak 2010ean burutu dituen bere hiru jarduerar-datzetako bakoitzean landuko dituen funtsezko zenbait gai:

1. Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza:

a) Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: Gobernuaren lehiatila bakarra:

- Martxoaren 1eko 29/2011 Dekretua idaztea eta izapidetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko koordinazio-mekanismoei buruzkoa.
- Gobernuan, genero-indarkeria kasuak kudeatzeko informatika-tresna ezartzeko hasierako lanak, biktimen espediente bakarra lortzeko.
- “Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren I. Jarduteko Plana” egitea.

b) Arreta eta informazioa:

- Estatistika eguneratuak antolatzea, aztertzea eta hedatzea.
- Eguneko 24 orduetan funtzionamenduan egoten den telefono bidezko doako arreta-zerbitzua kudeatzea eta etengabe hobetzea: 900 840 111.
- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak gain hartzea Ertzaintzak emandako laguntza duten biktimen gogobetetze-inkestak egitea.
- Genero-indarkeriaren Biktimak Laguntzeko Zuzendaritzako bulegoetan, 2010ean, informazioa eta aholkua emateko 715 jarduera burutu dira, gutxi gorabehera.

c) Diru-laguntza:

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko programa gauzatzea 2010ean.

d) Babesa:

- Ertzaintzaren EI/GI prozesuaren etengabeko berrikuspena eta hobetzeko aukerak ikertzea.
- Sexu-erasoen kasuetan Ertzaintzaren arreta poliziala hobetzeko konparazioa.
- Ertzaintzaren kalitatea kudeatzeko sistema garatzea, sexu-askatasunaren kontrako delituen biktimei laguntzeko.
- Sexu-esplotazioko helburuarekin egiten diren salerosketen biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza eta babesa hobetzea.
- EAEn, GPS gailuak ezartzearen jarraipena.
- Herrizaingo Sailaren eta Taxisten Euskal Federakundearen arteko lankidetzaprotokoloa sinatzea, genero-indarkeria kasuetan adingabeak lekuz aldatzeari buruz.
- Ertzaintza eta Udaltzaingoen arteko koordinazio protokoloak bultzatzea.

e) Laguntza integrala:

- Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko ekimenak sustatzen dituzten erakundeentzako laguntzen deialdia, 2010ean.
- Dokumentu-azterketa eta gizartean alderatzea, esku-hartzeko sistema guztien profesionalek parte hartutako eztabaida-taldeen bidez, dituzten eskaerak kontuan hartzeko egingo den Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimei Laguntza Osoa Emateko Legean.
- Lan-taldea, sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen biktimei buruz: hainbat hizkuntzatan egindako hiru Gida desberdin egitea (triptikoa biktimentzat, gida handiago bat biktimak izan daitezkeinei zuzenduta eta profesionalei eta herritarrei, oro har, zuzendutako gida); eta behartutako prostituzioa eta emakumeen salerosketa kasuetarako elkarte/erakunde guztien arteko jarduera eta koordinazio protokoloa egitea.
- Lan-taldea, atzerriko emakumeen ahultasun bereziari buruz: diagnostikoa egitea, EAEko genero-indarkeriaren biktimak diren emakume etorkinen kontrako genero-indarkeria prebenitzeko eta erantzuteko arloan; eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakume etorkinei laguntzeko gomendio-dokumentua egitea.
- Sexu-jazarpena jasaten duten emakumeentzako ekimenak: liburuxkak, etab.

2. Instituzioen arteko koordinazioa eta lankidetzak:

- a) Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriako alorrean duen politika koordinatzea.
- b) Etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen Idazkaritza gain hartzea.
- c) Genero-indarkeria errotik moztea sustatzen duten EAEko hainbat organotan parte hartzea.
- d) Biktimei informazioa ematen, laguntzen eta horiek babesten esku hartzen duten talde profesionalen prestakuntza espezializatua sustatzen bultzatzea.
- e) Genero-indarkeriaren aurkako borrokan, toki-protokoloak bultzatzea eta gainbegiratzeko:
 - Toki-protokoloak egitea bultzatuko da.
 - Jada eginda dauden protokoloak gainbegiratu dira.
- f) Berdintasunerako Estatuaren Idazkaritzarekin koordinazio lana, EAEn GPS gailuak ezartzeko eta Justizia eta Administrazio Publikoaren Departamentuarekin, Epailatzarekin eta Fiskaltzarekin ere bai, erabilera hobetzeko.

3. Sentsibilizazioa, prebentzioa eta indarkeria ikertzea:

- a) Gizarte osoa sentsibilizatzea genero-indarkeriaren aurka:
 - Genero-indarkeria gaitzesteko hainbat erakundek antolatutako ekintzetan eta ekimenetan parte hartzea.

- EAEn gertatutako genero-indarkeriaren ekintzak publikoki gaitzestea.
- Informazio-diptikoak hainbat hizkuntzatan egitea, biktimen hizkuntza-berezitasunei erantzuteko, honetaz: Inmigrazioa, bortxa telefonoa eta sexu-jazarpena lantokian.
- Sentsibilizazio kanpaina egitea, goiburu hau duena: “Tratu txarretatik irten baitaiteke” (I. eranskineko kanpainaren irudia).
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakume etorkinen taldeari zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina egitea (II. eranskina).
- Eudel eta Emakunderekin batera parte hartzea Berdinsarea 2010 Beldur Barik (III. eranskina) izeneko kanpainan.

b) Prebentzioan eta ikerketan lan egitea gizarte-izurri hori desagerrarazteko

- Genero-indarkeriaren biktimak gizartean eta lanean txertatzeko ikerketa proiektuak egitea.
- Genero-indarkeriaren Euskal Behatokia sortzeko Dekretua egitea.
- Biktimei laguntzeko egiten diren jardueren eta jardute egokien azterketa eta analisisia sustatzea.
- Genero-indarkerian hain bistakoak ez diren moduei buruzko jardunaldiak, Bilbaoko Euskalduna Jauregian egin ziren, 2010eko irailaren 29 eta 30ean.
- Genero-indarkeriaren erasotzaileak berreztea helburu duten esku hartzeko programei buruzko nazioarteko jardunaldia, Bilbaoko Euskalduna Jauregian egin ziren, 2010eko azaroaren 5ean.

Laburbilduz, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzan egunez egun saiatzen gara gero eta gehiago egiten arazo honen ondorioak egunero jasaten duten emakumeen alde; izan ere, ulertu egiten baitugu haiek beti izan behar direla gure jardueren lehenetazko helburua. Gainera, azpimarratu nahi dugu gure beharra dela instituzio guztien ahaleginak bateratzea, gizartearen arazo gaitz horri aurre egiteko, guztion lanean eta osagarritasunean baitago emakumeen kontra eragindako indarkeriaren arazoaren irtentzea.

Gure ustez, genero-indarkeria errotik kentzeko eta berdintasunaren alde zenbat eta organo gehiago lan egiten saiatu eta zenbat eta laguntza politiko eta aurrekontu-laguntza gehiago egon, hobeto, askoz hobeto.

Azkenik, ahalegina egin dezagun denok gure indarrak batzeko, gizarte honetan emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dugun indarkeriarekin bukatzeko.

**HERRITARREI, ORO HAR, EMAKUME GUZTIEI, BATEZ ERE
ETA ZUZENAKO BIKTIMEI (EMAKUMEAK ETA BERE SEME-ALABAK) BEREZIKI.**



BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, I ETA MATAS, N. *Etxeko indarkeria. Espainiako emakumeei eragindako tratu txarren gaineko txostena*. La Caixa Fundazioa. Ikerketa sozialak Bilduma, 10. zk., 2002.
- BOCH, E. ETA FERRER, V. *Ikustezinen ahotsa. Hiltzen duen maitasun txarraren biktimak*. Cátedra, Madril. 2002.
- DUTTON, D.G ETA PAINTER, S.L (1981). "Traumatic bonding: The development of emotional attachment in battered women and other relationships of intermittent abuse". *Victimology: An International Journal*, 6.
- EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeria*. Emakunde, Vitoria-Gasteiz, 2001.
- IBÁÑEZ, M. *Euskadiko familia barruko indarkeria: emakumeari eragindako tratu txarrak*. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2004.
- JIMÉNEZ CASADO, C. *Ezkontideen tratu txarrak Sevillako areako emakumeei*. Emakumearen Andaluziako Institutua, Sevilla/Málaga, 1995.
- LOPEZ, E. (Koordinatzailea) *Emakumeen kontrako indarkeria: Deskripzio eta esku-hartze biopsikosoziala*. Miguel Lorente Acostaren sarrera. Jaengo Unibertsitatea. Jaén 2010.
- LORI HEISE, J. ; PITANGUY, J. ; eta GERMAIN, A. « Violence against women : the hidden health burden ». *Munduko Bankuaren* 255. zk.ko lan-agiria, Washington DC, 1994.
- OSBORNE, R. *Genero-indarkeriari buruzko oharrrak*. Bellaterra argitaletxea. Bartzelona. 2009.
- RUIZ, C.; QUEMADA, J. eta BLANCO PRIETO, P. *Emakumeen kontrako indarkeria. Prebentzioa eta antzematea*. Diez de Santos argitaletxea. Madril. 2006.
- SANMARTÍN, J. (Koordinatzailea). *Indarkeriaren labirintoa. Eragileak, motak eta ondorioak*. Ariel argitaletxea. Reina Sofía Zentroa. Bartzelona. 2004.
- WALKER, L. *The Battered Woman*, Harper and Row, New York, 1979.



ERANSKINAK

I. ERANSKINA: "TRATU TXARRETATIK.... IRTEN BAITAITEKE"

ERASOTU **OHIA**

UMILIATU **OHIA**

MENPERATU **OHIA**



Berriz ere bizimodu normala egin daiteke.
Laguntza eskatu eta berriz has daiteke.

Tratu txarretatik irten daitekeelako.

EXIT

Genero-indarkeriaren biktime diren
emakumezkoen laguntzeko telefonoak:

016 ☎ 900 840 111

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZANGO SAILA
Genero-indarkeriaren Baitik
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Dirección de Atención a las Víctimas de
la Violencia de Género

II. ERANSKINA: "SEINALEAK SUMATUZ GERO AURRE EGIN"



Kontrola, beldurra eragitea, isolatzea:
hori ere genero-indarkeria da
SEINALEAK SUMATUZ GERO
AURRE EGIN!

المراقبة، التخويف، العزل هي كذلك أشكال من العنف ضد النوع.

操控，威胁，孤立也是性暴力的表现形式

Le contrôle, l'intimidation, l'isolement, sont aussi des formes de violence de genre.

Control, intimidation, isolation are also forms of gender violence

O controle, a intimidação, isolamento, também são formas de violência baseada no gênero

Controlul, intimidarea și izolarea, deasemenea sunt forme de violența de gen

El control, la intimidación, el aislamiento también son formas de violencia de género
FRENTE A LAS SEÑALES
ACTÚA

Genero Indarkeriaren Biktimentzat 24orduko/
Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua
Servicio de Atención Telefónica 24 horas /
Mujeres Víctimas de Violencia de Género

900840111

EUSKO JAURLARITZA
HERRIZANGO SAILA
Gereko indarkeria-egoia
Laguntza Jazandakia
ENPLEGU ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
Integratze Jazandakia

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Integración

III. ERANSKINA: "BELDUR BARIK"



**ZATOZ BILBORA TA ADIERAZI EMAKUMEEN
KONTRAKO INDARKERIARI ZURE GAITZEZPENA**

**VEN A BILBAO Y MUESTRA TU RECHAZO
A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES**

// ARTE ERAKUSKETA // MUSIKA // // EXPOSICIONES DE ARTE // MÚSICA
HITZALDIAK // SARI BANAKETA // // DEBATES // PREMIOS // TALLERES
TAILERRAK // ETA ASKOZ GEHIAGO... // Y MUCHO MÁS...

www.beldurbarik.org

AZAROAK 27 LARUNBATA BILBON
Goizeko 11-etan
Zabalguneko Azokan
(Zabalgune Plaza)

TOKI DESBERDINETATIK
AUTOBUSAK DOHAIN,
AURRETIK IZENA EMANDA.
Bera erabaki: www.beldurbarik.org

SÁBADO 27 DE NOVIEMBRE EN BILBAO
A las 11.00 de la mañana
En el Mercado del Ensanche
(Plaza del Ensanche)

AUTOBUSES GRATUITOS
DESDE DISTINTOS PUNTOS
PREVIA RESERVA DE PLAZA.
Reserva tu plaza en:
www.beldurbarik.org



